

# Goienkaria

2008ko ekainaren 27a > Egubakoitza > VIII. urtea > 338. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Bozketan  
ezezkoa  
irteten bada,  
espainolismoa  
indarberri  
egingo da"

Jon  
Abril  
Aralar > 09



## G2a

Gazteek oporrak  
antolatzeko  
moduak > 43-44

### OSASUNA

Fetuaren prebentzio probak doan  
izango dira ama guziendako > 06

### MOTORZALEAK

Segurtasuna eskatzeko ekitaldira  
joango dira ibarreko zaleak > 07

### KIROLA

XI. Torreauzoko Krosa jokatuko  
dute etzi, domeka, Oñatin > 41

ARRASATE > SAIHESBIDEA

## Olandixoko obrak hasi dituzte

Hondeaketak egin  
urretiko lanak  
egiten hasi dira;  
eguaztenean hasi  
ziren horretan > 18

AZPIEGITURAK > TRANBIA

## Tranbia, batzar batzen zain

Arrasateko, Bergarako eta  
Aretxabaletako Udalekin  
batzarra egingo zuela esan  
zuen orain hilabeteak direla  
Garraio Sailak, baina orain  
dik ez dago berritasunik; soi-  
lik, Arrasaterako data jarrita  
dagoela. Udalek jarritako ale-  
gazioak landuko dituzte. > 05

EUSKARA > 'AHOTSAK'

## Bergarako berbak, Interneten

'Bergarako ahotsak'  
proiektua gaur  
aurkeztuko dute > 15

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarrikzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

ELKARTASUNA > SAHARA ETA TXERNOBIL

## Saharako 16 ume etorri dira ibarrera, bi hilabete pasatzera

UDALEKUAK Nubi eta lesbao  
elkarteen ekimen berritzaire  
batzen bidez, Saharako hamar  
ume udalekuetan egongo dira

FAMILIATAN Beste sei ume  
saharar Bergarako, Antzuolako  
eta Elgetako familiekin daude,  
Bubisher elkarteaek ekarrita

TXERNOBIL Oñatiako familia  
batzuk Ukrainiara joan dira  
Txernobilgo umeen bila, eta  
bihar, zapatua, etorriko dira > 04



BIKOTEA Cadizko Javi Gil eta Angel Irure aretxabaletarra orain dela bi urte ezkondu ziren, eta Lukun (Araba) bizi dira.

MIRIAN BITERI

## "Kalean eskutik helduta goazenean, oraindik jendeak buelta eman eta begiratu egiten digu"

EKAINAREN 28A, GAY, LESBIANA, BISEXUAL ETA TRANSEXUALEN ASKAPENERAKO EGUNA DA > 02-03

**MEMESA**  
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE  
TEL.: 943 712 425  
FAXA: 943 712 298

ARETXABALETA  
TEL.: 943 712 411  
FAXA: 943 712 004

**SEIN**  
grupotaldeia

Euskadiko erreferente nagusia  
industria horniduran



JENDARTEA > GAY, LESBIANA, BISEXUAL ETA TRANSEXUALEN ASKAPENERAKO EGUNA

# Ezkututik agerira pauso asko emateko homosexualitatean

**EZKUTUAN** Batzuek aitortzeko inolako arazorik izan ez duten arren, homosexualtasuna aitortzeko pausoak ematea kosta egiten zaie gehienei

**ERREAKZIOAK** Ingurukoek euren orientazio sexuala onartu duten arren, kalean modu arraroan begiratu eta eurei buruz gaizki berba egiten duenik bada

**OSPAKIZUNAK** Ekainaren 28an, bihar, manifestazio eta festak izango diren arren, elkarrizketa egin diegun bikoteek ez dute modu berezian ospatuko eguna

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA Ekainaren 28a gay, lesbiana, bisexual eta transexualen askapenerako eguna da. Pixkanaka, garai batean uste zen gaixotasun izateari utzi eta aukera sexual moduan onartzeko pausoak ematen dihardu gizarteak. Aurrerapausoak eman diren arren, oraindik giza eskubideak urratu egiten dira, orientazio sexuala edo sexu identitatea dela eta. Ibilbide horretan euren esperientziak kontatu dizkigute ibarreko hiru bikotek: Bergarako eta Eibarko Floren Oteizak eta Juan Carlos Olivenzak; Aretxabaleta-ko eta Cadizko Angel Irurek eta Javi Gilek; eta Oñatiako eta Arrasateko Ainhoa Rodriguezek eta Oihana Caballerok.

**HOMOSEXUALITATEA AITORTU** Euren homosexualitatea aitor-tzeari buruz galdetuta, Floren Oteizak esan digu berak ez due-la sekula arazorik izan: "Txiki-txitik argi izan dut zer nahi dudan. Zein zeinekin ohera joaten den inori ez zao axola, importa dena pertsona bera da". Haren senar Juan Carlos Olivenzak Floren ezagutu zueneman eman zuen pausoa: "Niri asko kosta zitzaidan esatea, Floreni esker eman nuen pausoa, eta arrebak lagundu zidan. Amari kosta egin zitzai onartzea. Lanean eta lagunekin ez dut arazorik izan, nahiz eta hasieran harritu egin ziren".

Angeli kosta egin zitzai onartzea homosexuala zela: "Behin esandakoan, niretzat garantzi-tsua zen jendeak ondo hartu zuen eta hori nahiko izan zen". Ainhoak kontatu digunez. "Donostiarra ikastera joan nintzean Gehitun sartu eta ikusi nuen denetariko jendea zegoela. Horrek konfianza eman zidan eta erabaki nuen etxeen esatea. Ama min emango zidaten beldur zen, Oñatin kanpo joan beharko nuela uste zuen, eta, alaba bakarra izanik, gogorra izan zen haren-dako".

Oihana Caballerok Ainhoa lanean ezagutu zuen: "Emakume batekin izan dudan lehen esperientzia da eta uztailean ezkondu egingo gara; orain arte muti-lak izan ditut bikotekide".

Lanean oso ondo hartu dute la esan digute, hasieran harritu egin ziren arren, batik bat Oihana mutilekin ibili izan delako. "Etxean eta lagun artean ondo hartu dute nik Ainhoa bikotide izatea, baina orain batik bat Oñatin irteten gara eta Arrasaten ez dut uste jende askok daki-enik", esan digu Oihanak.

## JENDARTEAN ONARPENA

Inguruko onarpena da gauza bat eta oro har jendartean dagoen jarrera bestea. Denak bat etorri dira esatean homosexual-ko jokaerak aldatuz doazela. "Kon-tua aldatzen doa, gero eta jende

## ESANAK

**"Zein zeinekin ohera joaten den inori ez zao axola, importa dena pertsona bera da"**

Floren Oteiza eta Juan Carlos Olivenza > Bergara eta Eibar

**"Kalean eskutik helduta goazenean jendeak begiratu egiten digu"**

Angel Irure eta Javi Gil > Aretxabaleta eta Cadiz

**"Emakume asko dago homosexuala dena baina ez duena onartu edo azaldu nahi"**

Ainhoa Rodriguez eta Oihana Caballero > Oñati eta Arrasate

gehiagok onartzen eta azaltzen duelako norbere homosexualitatea. Beti dago homosexualen artean baten bat ohi baino atentzio handiagoa ematen duena, baina denok ezin gaituzte zaku berean sartu homosexual izate hutsaren-gatik", dio Florenek.

Angelek uste du denetariko jendea dagoela: "Badaude onar-tzen dutenak eta oraindik onar-tzen ez gaituztenak. Elizakoek, esaterako, homosexualen gaine-an zer esaten duten jakineko da. Niri homosexuala izateagatik atzera egin didanik ez da egon".

Ainhoak eta Oihanak aurrerapauso asko eman direla uste duten arren, lesbianek oraindik zailagoa dutela uste dute: "Gizo-nezkoena hobeto ikusita dago. Agerikoagoak dira, erreferente gehiago dago... Emakumeok gizartean gutxietsita gaude, eta lesbianak areago. Erakutsi nahi dugu lesbianok hor gaudela eta era askotako emakume lesbianak gaudela, estereotipoak hautsi nahi ditugu. Emakume asko dago homosexuala dena baina ez due-na onartu nahi, besteek esango dutenaren beldur direlako".

## KALEAN ESKUTIK HELDUTA

Kalean oraindik modu arraroan begiratzen dienik badagoela uste dute. Juan Carlos Olivenzak dio eurak ez direla kalean eskutik helduta joaten diren horietako-ak. "Donostian eta Bilbon jende



Floren Oteiza eta Juan Carlos Olivenza iaz ezkondu ziren



Angel Irure eta Javi Gil Aretxabaletatik Lukura (Arab) lantzen

gehiago ikusten da musuka kalean eta nik uste dut iritsiko dela noizbait eguna herri txikiagoe-tan ere lasai ibiliko garena horrela homosexualak".

Angel Irureren esanetan, "oraindik kalean eskutik helduta goazenean jendeak buelta eman eta begiratu egiten digu, batik bat ezezagunek; dakitenek normal-tzat jotzen dute. Orain, Lukun bizi gara eta 60 biztanleko herri txiki-ka izan arren denok gara ezagu-nak. Herriko jaietako baziaria hartzen dugu parte eta abadea ere bertan izaten da eta inork ez du ezer esaten", azaldu du.



**MULTIOPTICAS**  
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN  
[www.multiopticaspipuzkoa.com](http://www.multiopticaspipuzkoa.com)

R.P.S. N°190/04 I.G.

J. Carlos Guerra 1  
Tel. 943 79 29 95

Ibargarai 16  
Tel. 943 76 15 75

ARRASATE

C/ Nueva 15 - GROS  
Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta 2  
Tel. 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7  
Tel. 943 51 78 11

ERRENTERIA

Mendibil M. G.  
Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel. 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70

TOLOSA







JOSE LUIS DIZ



MIRIAN BITERI



Ainhoa Rodriguezek eta Oihana Caballerok lanean elkar ezagutu zuten eta uztalean ezkonduko dira. I. AGIRREZALDEGI

Ainhoa eta Oihana ez dira kalean euren homosexualitatea erakusten joaten: "Momentu batean elkarri musu emateko gogoa edo eskuistik helduta joateko gogoa badugu, naturaltasunez egiten dugu". Hala ere, inoiz entzun dituzte berba itsusiak bikote direnetik eta ezagun batzuen aldetik jarrera aldaketak ere ikusi dituzte, eta horrek mindu egin ditu.

#### EZKONTZA

Ezkonduta daude batzuk eta ezkontzar bestetako batzuk eta homosexualen arteko ezkontza legezatzea aurrerapausotzat jo dute.

"Batzuek uste dute homosexualen arteko ezkontzak familia kristaua desegiten duela, baina guk ez diogu inori kalterik egiten. Besteek bezala betebeharrak baditugu, zergatik ez ditugu esku-bide berak izan behar? Ezkontze-ko pausoa besteek bezala eskubi-deak izateko eman genuen", esan digu Florenek.

Angel Irure ere bat dator aurrerapausoa dela esatean: "Bizimodua bikote moduan eginez gero, gauza asko partekatzen dira; testamentua egiteko ere ezkonduta egonez gero, ezberdina da... hortaz, ezkontza onera-

ko da. Errenta aitorpena egiterakoan nire senarraren datuak eman beharra normaltzat har-tzen dut nik neuk, noski, baina jendartean ere gero eta gehiago normaltzat hartzen dira".

Ainhoa eta Oihana uztalean ezkonduko dira eta argi dute eskubideak aldarrikatzeko egiten dutela, batik bat: "Ezkonduko gara beste edozein bikotek dituen eskubide berberak izateko: biotako bat gaixotzen bada, baime-na izateko besteak, esaterako".

Pausoak aurrera eman arren oraindik asko dago egiteko, euren esanetan.

#### EKAINAREN 28A

Hala ere, euren askapenerako eguna ez dute modu berezian ospatuko. "Heterosexualak ez dira euren heterosexualtasuna aldarrikatzera kalera ateratzen egun zehatz batean; hortaz, guk ez dugu zertan ospatu, are gutxiago gauzak neurri batean normaltasunera bidean doazenean. Kontra ez gaude, baina ez dugu ospatzen", dio Javi Gilek.

Homosexual bikoteak dira eta, hala behar ez lukeen arren, beste edozein bikotek ez bezala zeresana ematen dute. Oraindik normaltzat jotzen ez dugun seinale.

Imanol Alvarez  
EHGAMeko kidea

**"Homosexualek diru asko dutela esan arren, ez da beti hala"**

Goiena Telebistan izan da asteon EHGAMeko kide Imanol Alvarez, eta ekainaren 28ko gay, lesbiana, bisexual eta transexualen askapernerako egunaren harira hainbat adierazpen egin ditu.

Festarako eta aldarrikapenerako eguna dela esan du Imanol Alvarez: "Nahiko kritikoak gara kontu horrekin. Inauteri itxurako jai giroak estaltzen eta zokoratzen ditu askotan egun horretako aldarrikapenak, eta biek bat egin behar dutela uste dugu".

Aurtengorako EHGAM taldekoek aukeratu duten leloa *Ez gaude salga* da. "Askotan esaten da kolektibo homosexualak diru asko daukala, eta kontsumismora lerratuta bizi dela, baina hori ez da horrela kasu guztietan. Hortaz, lelo hori erabilita okerreko estereotipo hori apurtu nahi dugu. Bestalde, administrazioaren aurrean ere salduta gaudela uste dugu, eta hori ere bat dator aukeratutako leloarekin".

Imanol Alvarez gaineratu du badirudiela beste gai askotan alderantziz bada ere, homosexualitatearen kasuan, jendartea legearen aurretik joan beharrean, legea bera dela jendartearren aurretik doana.

Bilbon egingo dute manifestazioa zapatauan EHGAMkoek, garbi uzteko 30 urteren ostean oraindik kaleak eurenganatzeko borrokan jarraituko dutela. "Gauza asko lortu dira, bai, baina oraindik asko dago egiteko eta pauso asko ematea falta zaigu normalizazio-rako bidean".



Imanol Alvarez.

ZUREZKO BIZILEKU BIKLIMATIKOAK

**Zbb**

C/ZORROLLETA, 5  
01015 GASTEIZ  
T. 945 29 06 06  
615 78 28 23  
WWW.ZBB.ES

ELKARTASUNA &gt; HAUR SAHARARRAK ETA UKRANIARRAK GUREAN

# Saharatik etorritako hamasei ume gure artean egongo dira bi hilabetez

Nubi eta Iesbaa elkartekoenei eskuak, 10 neska-mutil etorri dira gurera; Bergarako Bubisher elkartetik, berriz, sei. Bi hilabetez egongo dira gurekin

**JASONE ZABALA > BERGARA**  
Euskal Herri mailan haur sahararrendako udalekuak antolatzenten dituzten lehen urtea da. Loiuko aireportura iritsi ziren astelehenean, Aljeriako Tindouf herrian dauden saharar errefugiatiak kanpamentuetatik.

Arrasateko Sahararen Lagunen Elkarteari, Aretxabaletako Sahararen Lagunen Elkarteari eta Euskadiko Fronte Polisarioari esker, 7-8 urte bitarteko 10 neska-mutil –2 neska eta 8 mutil etorri dira. Lasturko nekazari etxe batean daude guztiak, eta bertan egongo dira datorren abuztuaren 23a arte.

**EKINTZA EZBERDINAK**  
Lasturren pasako dituzten bi hilabeteetan, egiteko ekintza ugari izango dituzte neska-mutikoek. "Gogorra da haur hauendako gurasoengandik banatuta egotea, baina are gogorragoa da 50 gradutara egotea. Baldintza oso gogorragak dira bertan bizi dituztenak



Bi hilabetez izango dira Saharatik etorritako haurrak gure artean.

NUBI ELKARTEA

eta bi hilabete hauetan indarrak hartuko dituzte bueltan urte osoa pasatu ahal izateko", adierazi digu Nubi elkarteko Agurne Juldaine.

Ekintza ezberdinak antolatu dituzte beraientako; horrela, ikastaro ezberdinak izango dituzte, hala nola talo ikastaroa eta jantzi ikastaroa. Lasturren pilotaleku bat ere badago, eta han ere ibiliko dira; bertako errekan uretan jolasteko aukera ere izango dute.

Horrekin guztiarekin batera, Euskal Herriko txoko ezberdinak eza-gutzeko aukera izango dute, eta Debako hondartzara, Zestoara... joango dira.

Zestoan bertan osasun azterketak egindo dizkiete neska-mutikoek, Iesbaa elkarteko Olaia Sagredok esan digunaren arabera: "Haurrak itxuraz ondo etorri dira, baina anemia arazoak ugariak

izaten dira haur hauetan eta azterketa medikua egingo diete". Datorren zapatuan zezentxoak izango dituzte, eta uztailaren 13an Donostia ezagutzera joango dira. Egun horretarako, Donostian, Euskal Herriko Sahararen aldeko koordinatzaileek ongietorri jaia antolatu dute. Lasturren bi begirale sahararekin daude neska-mutilik, baina beste batzuk ere joan-

go dira datozen asteetan bertara, udalekuek iraungo duten bi hilabete hauetan zehar.

## LAGUNTZA EKONOMIKOA

Ekintza gehiago ere egin nahi dituzte, baina horiek aurrera era-mateko jendeak diruz lagundu behar du. Horretarako, nahi duenak ondorengo kontu korronte zenbakietan sar dezake dirua: Euskadiko Kutxan: 3035000216 0020047050; La Caixan: 210063838480200002671 eta Gipuzkoako Kutxan, 2101005567 0126379429.

## BUBISHER ELKARTEA

Bergarako Saharako haurren aldeko elkarteko (Bubisher) Bibi Anduezak aipatu du Bergara, Elgeta eta Antzuolara sei neska-mutiko etorri direla, bina herri bakoitza. Gure artean abuztuaren 23a arte egongo dira. Bi hilabete hauetan egongo diren familiak arduratuko dira haur bakoitza osasun azterketetara eramateaz eta dituzten beste behar batzuk asetzear.

## TXERNOBILEKO HAURRAK

Oñatiko guraso talde batek, berriz, Txernobiletik ekartzen ditu neska-mutikoak, eta herriko familia desberdinen etxean bi hilabete pasatzen dituzte. Martitzenean joan ziren Ukraniara haurren bila eta bihar etorriko dira.

ADMINISTRAZIOA &gt; UDALEN LEGE PROIEKTUA

# Udalena lege proiektua, onuragarri udalendako

Debagoieneko  
udaletan legea aztertu  
ez duten arren,  
haren  
"beharrezkotasuna"  
ikusten dute

**J.Z. > BERGARA**  
Ekain hasieran onartu zuen Eusko Jaurlaritzako gobernu kontseiluak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakundeen arteko eskumenetan eta harreman instituzionalak zehaztuko dituen udalen lege proiektua. Oraindik ere, Gasteizko legebiltzarra lege proiektua onartu beharko du. Lege proiektuaren helburua antolaketa politiko-administratiboaren araudia erregulatzea da. Jaurlaritzak

onartu duen lege proiektuak, bestea beste, herri galdeketa egi-tea arautzen du. Baina oraindik ez dute jakinarazi nola arautuko duen.

## ASPALDI ONARTUTA

Pedro Lasagabaster Mankomunitateko presidenteordearen ustez, "aspaldi onartu beharreko legea zen hau, legean aipatzenten diren edukiak ondo aztertu behar dira, beharrezkoak diren eskumenak ondo arautzen dituen edo ez ikus-teko". Eskoriatzan lege berri horri buruzko galdeketa egiteko asmoa ere azaldu du Lasagabasterrek.

Hala eta guztiz ere, uste du zeresan handia sor dezakeen legea izan daitekeela; haren ustez, "udal konpetentziak murriztuta daude herri kontsultak egiteko orduan. Madriletan esaten dute erkidego mailan kontsultak anto-

latzeko eskubidea dugula, eta gero herri mailan halako kontsultak antolatzeko nahiko murriztuta dago". Baina legearen beharrezkotasuna argi ikusten du Lasagabasterrek. Horren harira, Oñatiko Udaleko idazkari Jesus Mari Madinabeitiak eskumen horiek guztiak egunerautuko dituen lege baten beharra zegoela uste du. Izan ere, "nahasketa" dagoela dio. "Uste dut lege horrek argitu egingo dituela gauza horiek guztiak".

Antzuolako Udalean esan dute ez dutela horren berririk. Elgetako Udalean, berriz, hau diote: "Udal txikia da eta ez dugu lege proiektu hori aztertu". Gainera-tu dute, Eskoriatzako alkateak ez bezala, beraiek ez dutela herri kontsultariak egiteko beharrik ikusten eta beharra dagoenean aztertuko dutela gaia.

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKA  
[www.eps.mondragon.edu](http://www.eps.mondragon.edu)

**GOI - MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**  
2008-2009

**eteo**  
ETEO, KOOP. E.  
[www.eteo.mondragon.edu](http://www.eteo.mondragon.edu)

**Matrikula epea:**  
**Ekainaren 30etik Uztailaren 4ra**

**Lanerako gertu!**

**ESKAINTZA AKADEMIKOA**

<b>MGEP</b>	<b>ETEO</b>
• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak	• Administrazio eta Finantzak
• Informatika Sistemen Administrazioa	• Idazkaritza
• Informatika Aplikazioen Garapena	• Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna
• Proiektu Mekanikoen Garapena	• Nazioarteko Merkataritza
• Mekanizazio Bidezko Produkzioa	
• Industri Ekipoenen Mantenimendua	



Tranbiaren irudi bat.

GOIENKARIA

AZPIEGITURAK > DEBAGOIENEKO TRANBIA

## Ibarreko tranbia geldi, batzar baten zain

Udalek tranbiaren proiektuari jarritako alegazioek ze erantzun izan duten aztertuko dute Jaurlaritzarekin egingo duten bileran

**ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA**  
Urte hasieran Debagoieneko tranbiaren proiektuaz berba egi-tekoak ziren Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegitura Saila eta tranbiak hasieran lotuko lituzkeen hiru herrietako udal ordezkarriak –Arrasate, Bergara eta Aretxabaleta. Bainan denbora pasa da eta oraindik ez dute bilerarik egin erakundeek.

Horren harira, Oihana Aranburu Arrasateko jarduneko alka-teak esan du "oraindik" ez direla batu Garraio Sailarekin, baina data ipinita dutela.

**ALEGAZIOAK AZTERTZEA**  
Batzar horretan, batik bat, udalek tranbiaren proiektuari jarritako alegazioek ze erantzun izan duten landuko dute. "Jaurlaritzak aurkeztutako tranbiaren proiektuari Udalak hainbat alegazio jarri zizkion; baina, bileran, alegazio horiek onartu dituzten edo ez azalduko dizkigute", adierazi du Aranburuk. Arrasateren kasuan, alegazio jakin baten gainean erantzungo zuela agindu zion Eusko Jaurlaritzak; hain zuzen, hasieran, ibilbidea Zarugalde kaletik zizhoan; auzotarren alegazioen aurrean, Garraio Azpiegitura Sailak Santa Barbara parkea zeharkatzea proposatu zuen, eta, horri erantzunez, Arrasateko Udalak "alternatiba arrazoizkoaga" proposatu zuen; alegia, Garibai kaletik pasa zedila tranbia.

Jaurlaritzako teknikariak proposamen hori aztertzekotan geratu ziren. Aranburuk gaine-

ratu du alegazioak Udalak eta herritarrek jarritakoak direla.

### INFORMAZIORIK EZ

Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok esan du eurek ez dutela bilera horren berri jaso. "Urte hasieran garraio publikoaren inguruan berba egitekotan ginen, baina dagoeneko hiru bider atzeratu da bilera", dio Garrok. Tranbiaren inguruan, baina, Aretxabaletako Udalak ez du bilerarik egiteko informaziorik jaso, eta "gure artean ez da inongo komunikaziorik egon", gaineratu du.

Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegitura Sailak esan du sailburua oraindik ez dela alkateekin elkartu.

Zerbaitetan, behintzat, bat datoaz Debagoieneko udalak eta Eusko Jaurlaritzak: tranbiari bultzada eman gura diote. Eperik ez finkatu arren, egokiena ahal bezain laster bilera egin eta trazaturik onena zehaztea da.

KONTSUMOA > EROSKI

## Eroskik ezkongabeen merkatua garatuko du

Ezkongabeei eta familia unitate txikiei zuzendutako denda bi irekiko dituzte Bilbon eta Amorebietan; urtea amaitu aurretik, beste bi denda zabaltzea da nahia

A.E. > BERGARA

Eroskik bajarrik bizi diren ezkongabeei zuzendutako dendak irekiko ditu. Asmoa da gaur egungo gizartean gero eta gehiago diren ezkongabeen beharrak ase-tza da, eta, horretarako, ezkongabeen merkatua garatu gura du Eroskik. Proba bezala, bi denda irekiko dituzte, Eroski Merca izenarekin, bata Bilbon eta bestea Amorebietan. Gainera, urtea amaitu baino lehen beste bi denda irekitzea erabaki du.

Merkatu berriak zabaldu direla argi dago; eta horietako bat ezkongabeen edo familia unita-

te txikienda da. Familia unitate txikietan, umerik gabeko bikoteak eta ezkongabeak sartzen dira.

GORA DOAN MERKATUA

Ezkongabeen gora doan merkatua dela ohartuta, Eroskik haiei zuzendutako denda bereziak irekitzea erabaki du.

Denda horiek txikiak izango dira, 400 metro koadrotik beherakoak. Helburua erosketak agudo egitea izango da, eta eroso, itxaroten egon barik eta ilaran egon barik. Bestalde, Eroski Merca dendetan, produktu jakin batzuk egongo dira. Guztira, 1.700 pro-

duktu jarriko dituzte salgai, eta Eroskik jakinarazi du produktu horiek eguneroko erosketetan erosten direnak izango direla; hau da, kontsumo handiko produktuak.

### SALMAHAI BARIK

Eroski Merca dendek ez dute, besteak beste, arraina eta okela saltzeko salmahairik izango. Produktu guztiak ontziratuta egongo dira eta norberak hartu beharko ditu. Gainera, fruta eta barazkiak banaka hartzeko aukera egongo da.

Gaur egun ezagutzen diren Eroski etxeko gainontzeko dendekin alderatuta, produktuen salneurrien etiketak elektronikoak izango dira. Gainera, dendetako instalazioak ekoeragin-korrak izango dira, eta izango duten argi instalazio berezia dela-eta, %30 aurreztuko dute dendok. Zoru erradiatzalea izango dute; modu horretan, denda barruko bero-energia ez

da kanporatuko, eta lokala bera berotzeko erabiliko da. Gainera, puntako hotz energia izango dute.

Eroski Merca dendek diseinua zainduko dute; behar bereziak dituzten erosle jakinei zuzendutakoak izango dira.

### POLTSAS EKOLOGIKOAK

Ekainaren 5a ezkerro daude kontsumitzalearen esku poltsa eko-logiko eta berrerabilgarriak. Eroski taldeak ingurumenaren alde egindako apustua izan da poltsena. Poltsa ekologikoa material birziklatuz egina dago, eta eros-teko poltsa konbentzionalareki-ko aukera da. Hori erabilita, 15 poltsa tradizional erabiltzea galaraziko da.

Poltsa ekologikoa eskuratzeko, 10 euro zentimo ordaindu behar da; poltsa hondatzen bada, bigarren poltsa doan eskuratzeko bidea dago. Kontsumitzaleari informatzeko, informazio posituak jarriko ditu Eroskik.

> HEZKUNTZA  
**Irakasleen heziketa eta prestakuntza sarean sartu da Huhezi**

Ekainetik aurrera, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatea Nett sarean egongo da; hau da, Irakasleen Heziketa eta Prestakuntzarako sarean. Europako Batasuneko 20 herrialdetako 32 hezkuntza fakultatek osatzen dute sarea. Helburua elkarrekin garatzeko hezkuntza sistema bultzatzea da Europan.

> UDAKO IKASTAROAK  
**Datorren astean, udako ikastaroak Oñatiako lege soziologia institutuan**

Oñatioko LSNE institutuan, udako ikastaroa egingo dute datorren astean. Uztailaren lean, martxozenean, saio irekia: *Munduko emakumeak*, kultura etxearen, 17:00etan. Eguaztenean, SOS Arrazakeriak elkarritzaketa bideratuko du, eta *El lobo de los cuentos* filma emango dute, 17:00etan, kultura etxearen. Ondoren, dantzak.

> INDUSTRIA  
**Pilekin dabilen lehen berogailu termostatikoa aurkeztu du Fagorrek**

Fagor etxeak Thermostatic pilekin dabilen lehen berogailu termostatikoa aurkeztu du. Orain arteko berogailuekin alderatuta, aparailu berriak ez dauka kable beharrik; hala, modu erosoan jar daiteke etxeoko edozein tokian. Bi botoi ditu, uraren temperatura kontrolatzeko. 14 edo 11 litroko berogailuak dira.

## LANBIDE HEZIKETA CES

**ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA KURTSOAK**

**Matrikulazio epea zabalik**

Titulo ofiziala  
3. maila Erresuma Batuan  
Nazioartean du balioa  
Goi mailako diplomatura



Olagibel kalea 61 B  
Tel.: 945 12 03 60  
Gasteiz

formacionprofesionalces@gmail.com



OSASUNA &gt; HAURDUNALDIA

# Umearen gaitzak antzemateko teknika berriak, orain, haurdun guztiendako

Amniozentesiarekin fetua galtzeko dagoen arriskua murritztu egin gura dute teknika berriekin

Urritik aurrera hasiko dira probak egiten bederatzi ospitaletan, besteak beste, Debagoinenekoan

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Urritik aurrera haurdun dauden Gipuzkoako, Arabako, eta Bizkaiako emakume guztiak izango dute beren umekiek Down sindromea edo bestea gaitz kromosomikoren bat duten jakiteko proba egiteko aukera. Hain zuzen, bederatzi ospitaletan hasiko dira proba berriak egiten, tartean, Debagoineneko ospitalean.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Gabriel Inclanek astelehenean egindako agerraldian, besteak beste, teknika berrien nondik norakoak eta lortu gura dituzten helburuak azaldu zituen. "Helburu nagusia da 35 urtetik beherako emakume haurdunen artean Down sindromea garaiz antzematea. Egun, amniozentesia 35 urtetik gorakoek egiten

dute doan, eta gainerakoek ordaindu egin behar dute". Hori guztia azaltzeko datuak eman zituen: 2005. urtean, 66 haur jaio ziren Down sindromearekin Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Haietatik hamabi erditzean edo haurdunaldian detektatu zituz-

## ESANAK

## "Teknika berriarekin Down sindromea garaiz antzman gura dugu 35 urtetik beherako emakume haurdunen artean"

Gabriel Inclan &gt; Osasun sailburua

ten. Gainera, hamabi horietatik bederatzi kasutan, erditu zutenak 35 urtez azpiko emakumeak izan ziren. "Horrek bide berriak sortzena bultzatu gaitu", esan zuen Inclanek.

## ANALISI KLINIKOAREN BIDEZ

Orain arte, 35 urtetik gorako emakumeek bakarrik zuten amniozentesia doan egiteko aukera. Baino, Osakidetzak jarri dituen teknikei esker, gaitz kromosomikoak garaiz antzemateko aukera izango dute haurdun dauden emakume guztiak.

Hain zuzen, analisi klinikoaren bidez egingo den proban, biomarkagailu biokimiko eta ekografia egiteko aparailua erabiliko dituzte. Bestalde, teknika berriak gaitz kromosomikoak aurrez

antzemateko eraginkortasuna hobetuko duela esan zuen Gabriel Inclanek. Horrela, kasuen %90ean antzman ahal izango da fetuak Down sindromea edo beste gaitz kromosomikorik duen.

Bestalde, teknika berriaren bidez, fetua galtzeko dauden arriskuak murritztu gura ditu Osasun Sailak. "Egun, amniozentesia egiten dutenen %1ek fetua galtzeko arriskua du", esan zuen Jaurlaritzako Osasun sailburuak.

## BEDERATZI OSPITALETAN

Urrian hasiko dira teknika berria erabiltzen, besteak beste, Gipuzkoan, Debagoineneko, Zumarragako eta Mendaroko ospitaletan. 2009. urteko urtarriko EAE osora zabaldu gura dute.

Jose Ramon Serrano &gt; Ginekologoa

## "Teknika berriei ez digute gaitz kromosomikoen gaineko diagnostiko zehatzik emango"

M.B. &gt; BERGARA

**Jose Ramon Serrano Debagoineneko ospitaleko Ginekologia Zerbitzuko burua da. Harekin berba egin dugu gaitz kromosomikoak antzemateko teknika berriei buruz.**

Teknika berria erabiliko duzue gaitz kromosomikoak antzemateko. Zertan datza?

Proba oso erraza da. Haurdunaldi lehen hiru hilabetekoan egiten ditugun analisi klinikotan, beste bi proba gehiago ditugu: hain zuzen, Beta HDG eta PPPAPA izenekoak. Haurdunaldi 12. astean, ginekologoaren konultara etortzen denean, emaitzak izango ditugu, eta ekografia baten bidez fetuaren lepoa (españolez, "pliegue nucal") neurituko dugu. Bi datu horiei amaren adina gehituko diegu. Hortik aterako den parametroakesan go digu haurdun dagoen emakumearen umekiak Down sindromea iza-

teko duen portzentajea zeinden. Horiaz, analisi klinikoko batetik abiatutako jakin dezakegu umeak Down sindromea edo bestea gaitz kromosomikorik iza-teko duen arriskua. Amniozentesi proba arriskutsuagoa da haurdunaldiko, emakumeen %1ek umekia galtze-ko arriskua du-eta.

### Portzentajea aterata, zer egindo duzue ondoren?

Amniozentesia egiteko beharra duten emakumeei, egiteko esan diegu; eta gainerakoei, emaitzak emanago dizkiegu. Dena den, garbi utzi gura nuke analisi klinikoen bidez egingo ditugun proba berri hauetaz ez direla amniozentesiaren ordezko izango, proba osagarriak izango dira.

Bestalde, urritik aurrera erabiliko ditugun teknika berriei ez digute diagnostiko zehatzik emango. Baino, gaitz kromosomikoak garaiz antzeman lagunduko digute.

Down sindromeaz gain, ze beste gaitz antzman daitezke proba berriekin?

Beste hiru antzman daitezke; hain justu ere, Patau, Edwards eta Turner sindromeak. Baino, duda barik, Down sindromea da nahasmendu kromosomikoak eta malformazioak eragiten dituen sindrome ohikoena, eta buru atzeratasuna eragiten duen arrazoiz nagusienetakoak.

Noiz hasiko zarete proba berriak egiten?

Foru Aldundiaren asmoa da urriaren 1etik abenduaren 31ra arte teknika berriei hastea, besteak beste, Gipuzkoako Eskualde ospitaletan; hain zuzen ere, Debagoinen, Mendaro eta Zumarragan. Ondoren, urtarriko aurrera, EAEn haurdun dauden emakume guztien eskurajari gura dute.

Amniozentesi asko egiten dituzue Debagoineneko ospitalean?

Bai. 35 urtetik gorako emakumeen %90ek egiten du proba. Adin horretatik beherakoentzat daturik ez dugu, baina gehienek egiten dute. Adibidez, Andaluziako emakumeekin alderatuta, Euskal Herrian bost aldiz gehiago egiten ditugu.



GOIENKARIA

## KULTURAK BATZEN GAITU

Erakusketa: Sabin Oregi zarauztarraren argazkiak ekain osoan.

## Astelehenetik barikura eguneko menua

Asteburuetan

platet konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85





Suzuki GSXR 600 motorra du Joseanek.

NEREA MENOR

Josean Bernier > Motorzalea

## "Ez gara isilik geratuko gure kideak errail-babesen erruz hiltzen diren bitartean"

NEREA MENOR > BERGARA

Duela zortzi urte sartu zen Jose Angel Kaneda motorren munduan. Orduan hona gauzak asko aldatu dira, lagun asko egin ditu horren inguru eta motorra bizi-filosofia bihurtu da parentzat. Oso ondo daki errail-babesen (guardarrailak) arazoak zer-nolako eragina duen bere zaletasunean eta bere bizitzan. Horregatik, jendea informatu nahian, datorren domekako elkarretaratzearen inguruko kartelak itsasten dabil bailarako herriean zehar.

**Ze helbururekin antolatu da domekako elkarretaratzea?**

Gipuzkoako Real Motoclubak antolatu du Gobernuari presio egiteko. Bide batez, gure bizi-ko eskubidea aldarrikatu nahi dugu eta esan ez garela isilik geratuko gure kideak errail-babesen erruz hiltzen diren bitartean.

**Non izango da protesta?**

Ezinaren 29an izango da, Donostian, 10:00etan, Ibaetako parkingean. Euskal Herriko motorzaleak batuko gara. Martxa 10:00etan hasiko da Tolosa etorbidean, gero Kontxa aldera joango gara, San Martin, Mirakruz, Bidebieta, Antigua eta geroxeago Juan Ramon Arantzabal motor-kidea hil zen lekutik ere pasatuko gara.

**Jende asko espero da?**

Zoritzarrez gure kolektiboa ez dago sozialki oso ondo ikusita, makarra talde baten moduan ikusten gaituzte, eta noski makarrak daudela, baina gutxiengoa da, gehienak adeitasunez eta edukazioarekin ibiltzen gara. Beraz,

motorzaleak ez direnak ez dut uste ikusiko gaituztenik, ez askorik, behintzat, nahiz eta errail-babesek txirrindulariei ere zuzenki afektatu. Dena den, biktimen senideak-eta seguruuenik agertuko dira; modu okerrenean ulertu dute haien borrokatu egin behar dugula...

**Zerbait lortu duzue errail-babesen inguru?**

Gutxi. Duela urte pare bat Gipuzkoan akordio bat lortu zen horiek konpontzeko eta berriak egiten ziren errepideetan Motoziklisten Babeserako Sistemak (MBS) ipintzeko. Azkenean, ahoa ixteko kilometro batzuk baino besterik ez zuten egin.

**Presioa agian ez da nahikoa?**

Horrela jarraituz gero, agian 10-15 urte barru askoz hobeto egongo gara, baina orain egin behar dugu borroka. Presioa egoikia dela uste dut, erakunde asko ditugu eta oso ondo antolatutakoak. Adibidez: AMM (Asociacion Mutua Motera); eta hainbat plataforma ere: Moteros Unidos por la Vida, esaterako.

**"Elkarretaratzea domekan izango da, Donostian, 10:00etan, Ibaetako parkingean"**

**"Dirutza handia balio dutela babes sistemek? Zenbat balio du pertsona baten bizitzak?"**

**MBSak ipintzeak dirutza handia izango da, ala?**

Dirutza? Zenbat balio du pertsona baten bizitzak? 2007an 432 motorzale hil ziren, 432 familia apurtu ziren. Bestalde, radar bakar baten instalazioan 100.000 euro gastatzen dira; hori bai, radar bakoitza amortizatuta dago jadanik, abiaduraren gaineko multetan diru asko batu dutelako. Baina nora doa diru hori guztiori, eta zergatik ez dute erabilten errepideen segurtasuna hobetzeko?

**Gizarteak gehiago inplikatu beharko lukeela uste duzu?**

Noski, azken finean gizarte-arazo bat da. Pentsa Irala kalean, Bergaran, estolda tapa bat gaizki jarri eta hainbat pertsonak hanka apurtzen dutela; hori ez al da guztion arazoa? Errail-babesak gauza bera dira, azkenean denontzat dira.

**Debagoienean motorzale asko dago?**

Bai. Eta ezagutzen ditudan gehienak [www.motozerrak.com](http://www.motozerrak.com) foroaren bidez ezagutu ditut: Euskadiko motorzaleen foroa da.

**Inguruan egon al da zauriturik-edo istripurik errail-babesen erruz?**

Ekainaren 14an, Jon Tecdor Aginaga lasartearra hil zen A-8an. MBSak instalatzen dituzte, baina ez dute behar diren beste jartzen. Gazte hark kolpea haritu zuen errail-babesen kontra eta handik bost metrora hasten zen MBSa. Bost metrogatik hil zen! Sinestezina, ezta? Zenbat euro kostatu da Jonen bizitza?

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txoko Ekaineko zozketa

**Sariak irabazteko  
HARPIDETU!**  
**Tel.: 943 08 10 50**  
**20 euro abendura arte**

DVD-a

**EROSKI**  
zurekin



**KAMISETA+POLTSA**

**skunkfunk**



**KAMISETA+ALPARGATAK+CD-ak**

**karrikiri**  
Trinitateko alkaltzun elkartea



**SARI NAGUSIA:  
HONDARRIBIKO ARTIZARRA  
LANDETXEAN GAU BAT**



Artizarra nekazturturismoa  
[www.nekatur.net/artizarra](http://www.nekatur.net/artizarra)  
943 64 23 37 / 655 72 18 34

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batzen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo eeztatatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

## gure artekoak

**OPEL AGILA** > Opel etxeak Agila autoa berritu du. Bai diseinua eta baita motorra ere hobetuta dauzka auto berriak. Oraintxe merkaturatu berri dute; hirian ibiltzeko ezin aproposagoa da Agila berria.

Rakel Rodriguez > Garaje Norteko komertziala

## "Hirian samur ibiltzeko pentsatuta dago Agila berria"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABAleta "Hirian ibiltzeko aukerako laguna da; erakargarria, dibertigarria eta erabilera askotariko autoa", azaldu du Rakel Rodriguezek, Garaje Norteko komertzialak.

Merkaturatu berria da Agila autoa; aurreko modeloaren aldaera bat da. "Bai diseinua eta baita motorra ere aldatu dizkiote Agila berriari", dio Rodriguezek. Monobolumen bezala aurkeztu dute; eta, ezin hobea da aparkatu edota hirian ibiltzeko. "Ondo aprobetxatutako espazioa dauka autoak", gaineratu du Rodriguezek.

## KANPOTIK, TXIKIA

Kanpotik, auto txikia da, baina barnealdean espazio handia du. Bost pertsonarendako tokia du. Gainera, atzealdeko hiru jarlekuak eraisgarriak dira; modu horretan, maletategiak 1.050 litroko edukiera hartzen du. "Erosketak egitera joateko, adibidez, ezin hobea da autoak eskaintzen duen edukiera", dio.

## EKONOMIKOA

Prezioari dagokionez, oso auto ekonomikoa da: 10.000 eurotik aurrera eros daiteke. Gainera, kontsumo txikia duen autoa da: 4,5 litro 100 kilometroko. "Kontsumo txikia Agila berriak duen



Rakel Rodriguez, Aretxabaletako Garaje Norte aurrean.

ARANTZAZU EZKIBEL

### Opel Agila 1.3 CDTI 75 ZP

Prezioa	13.400 euro
Luzera	3,74 metro
Zabalera	1,68 metro
Maletategia	225 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	4,5 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	165 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	13,9 seg.
CO2 isurketa	120 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

berezitasun bat da", argitu du Rodriguezek.

## INGURUMENA

Gidatzeko auto erosoa da, "eta erantzun ona ematen du errepidean", gaineratu du Rodriguezek. Diseinu aldetik, modernoa da, eta kolore aukera zabala eskaintzen du.

Injurumena errespetatzen duen autoa da Agila berria. "Autoa ekoizteko fase guztietan errespetatzen dugu injurumena; autoaren isurketak jaitsi ditugu, eta baita ekoizpen faseko isurketak ere", dio Rodriguezek.

## begi-bistan



**Termometroa zoratuta  
(Oñati)  
2008/06/24**

Argazkia: Mireia Bikuña.  
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Onati San Lorentzo auzoan hartutako irudia da, San Juan egunean. Termometroak 0 gradu adierazten du; datu okerra, duda barik. Egunotan egin duen beroak nahastuko zuen aparailua.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



Iban Arantzabal > iarantzabal@goiiena.com

## EspaÑaka eta EspaÑaka San Juanetan be, kieto!

Ez dago ez lasai egoteko taberna larregirik inguruotan. Ez dago kafia trankil hartu, musika aukeratua ekipo on batetik emoten daben kalidadiakin entzun... San Juanetan konturatu naiz jaixetan jai egittek tabernak be ez dirala pentsau beste. Ez dago ezta musika ez-aikeratua ekipo txar batetik entzuteko modurik be sikeria!

Domekan bertan San Juanetan egon nintzan Eibarren (kasua Arrasaten balitz gertukuegi litzake eta neurtuago jardun bihar...). Eibarren Debagoieneko herrixetan ez dagon

kale girua dago egunero-egunero, jaixetan ez da herritarrik iñora faten furgonetia hartuta. Eta tabernak be dezena, beteta. Konturatu naiz musikadun baiño telebistadun taberna gehixago darela, hala eta be. Telebistari musikiari baiño importanzia haundixagua emoten dotsen edan-lekuak.

Tragua hartzera fan giñan illuntzian, musikia aukeratzen daben plaza bueltako taberna. Popero ezezagunak entzuten genden bolumen egoki-xan ardautxo onakin, eta... eta... 20:45ian to zure estres pasitilia: España España telebista bolumen altu-altuan. Jaietan zeguazen herritarrek, barriz, pantaillia pegauta, kieto!

> **Penaltixen** txandan 15 milloi ikusletik gora Estatu EspaÑarian. Shariaren 77,5eko batez bestekua. Prorrugia ikusten 14 milloi lagunetik gora, hortik 652.000 autonomian, hori-gorrixei begira.

> **EspaÑako gure Rosa** zan audientzien erregiña 2002tik, 12 milloi Eurovisiōn ikusten eta tartian EAEko asko. Kontrara, futbola jarraitu dabentan azkenengua da gure autonomia. Suai eta sorgiñeい eskerrak-edo?

## izen propioak



**Iban  
del Campo**

ZINEMAGILEA



**Aitor  
Mendizabal**

PILOTARIA



**Imanol  
Etxeberria**

FUTBOLARIA

Iban del Campo  
Arrasateko zinemagilearen lau film labur eskaini zituzten atzo Donostia-Zoko Antzoki Zaharrean. Lanak hauetan izan ziren: *Un tal Eusebi* (2003), *El Viaje de Elsa* (2007), *Lo bakarrik* (2008) eta *¿Manaña, la vida sera mejor que hoy?* (2008).

Antzuolako pilotariak Urretxuko San Juan torneoko txapela irabazi zuen domekan. Iñaki Jauregi soraluzetarra lagun zuela, 22-15 irabazi zieten Amantegi eta Lopez bizkaitarrei. Eroso Joan zen domekako partidua Mendizabal antzuolarraren tzat.

Athleticeko atezain gazteen entrenatzai-lea izan da azken urteetan Imanol Etxeberria bergarakarra. Baino, hemen-dik aurrera, ez du Bilboko taldean jarraituko bergarakarra. Ekainaren 30ean amaituko zaio kontrata Etxeberriari Athletic taldearekin.

Egitzen diharduten lana gizarte-  
ra zabaltzeko eta herritarrei hur-  
biltzeko asmoz, hainbat ekital-

diantolatu ditu Aralarrek. Horren  
harira, hitzaldia egiteko zuen  
Bergaran Aralarko koordinatzai-

leorde Jon Abrilek eta horrega-  
tikegin genion elkarritzeta mar-  
titzenean, baina azken orduan

berbaldia oraingoz bertan behe-  
rageratu dela aditzera eman dute  
Aralarrekoek.

**Jon Abril > Aralarko koordinatzaileordea**

# "Bozketan ezezkoa irteten bada, indar españolistak indarberritu egindo dira"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA  
Jon Abril (Bera, 1975) Aralarko koor-  
dinatzaileordea da. Ezkerretik inde-  
pendentziara kanpainaren barruan,  
politika orokorraz eta ezkerreko  
politiken premiaz berbaldiak egiten  
dihardu. Gaur Bergaran egiteko zuen  
atzeratu egin dute. Oraingoz ez  
dakite noiz egingo duen berbaldioi.

**Ezkerretik independentziara  
joatea proposatzen du Arala-  
rrek. Nola?**

Jakin badakigu independen-  
tziaraz ez dugula egun batetik bes-  
tera lortuko. Hortaz, guk aldarri-  
katzen duguna da Euskal Herriak  
bere etorkizuna erabakitzeko  
eskubidea duela, eta hura aitor-  
tu egin behar zaiola. Horren hari-  
ra, prozesu luzea izan arren, poli-  
ki-poliki urratsak ematen hasi  
behar dugu.

Bestalde, autodeterminazio  
eskubidea lortu ahal izateko urra-  
tsak eman behar ditug; dena den,  
astiro joango gara.

**Ze helburu du Ezkerretik inde-  
pendentziara kanpainak?**

Ezagutzen eman nahi dugu  
independen-tzia zertarako gura  
dugun. Hain zuzen ere, ezkerre-  
tik eragiteko gura dugu. Beste-  
ak beste, gizarte justuagoa gura  
dugu, guztiak aukera berberak  
izan dezaten. Dena den, etorki-  
zunerako gura dugun indepen-  
dencia lortzeko, aurretek eman  
behar diren pausoak ematen has-  
gaitezke. Hortaz, kanpainaren  
helburu nagusia da Aralarren  
egiten dihardugun lana gizarte-  
ra zabaltzea eta egiten gabiltzan  
politika herritarrei hurbiltzea.  
Ezkerretik Euskal Herri inde-  
pendente ezkerragoa lortu gura  
dugu, eta horretarako gabiltza  
lanean.

Bestalde, oso kezkatuta gau-  
de Europatik datozkigun legeen-  
kin: besteak beste, etorkinen aur-  
kako politika bortitzekin eta lan-  
gileen eskubideen kontrako  
neurri zorrotzkin. Horiek guz-  
tiak egunero landu behar ditugu  
herri hau ezkerrera eroateko,  
eta independentziarako bidean  
jartzeko.

Horretarako, besteak beste,  
hitzaldiak, eztabaidea foroak,  
gogoeta saioak eta beste hainbat  
ekintza egingo ditugu. Orokorre-  
an, gure proiektuaren gaineko  
gogoeta eta ezagutza sakonagoa  
egin gura dugu.

**Herri galdeketaren inguruko  
eztabaida eta bozketa egingo  
dute gaur Legebiltzarrean.**



Aralarko koordinatzaileordea Jon Abril.

atzerapausoa izango litzateke.  
Horregatik guztiagatik, aldeko  
botoa emango diogu lehendakariaren  
galdeketari.

**Nolako egoera izango dugu  
bozketan ezekoa irteten bada?**

Egoera zaila izango da, duda  
barik, batez ere indar españolistak  
indarberrituta irtengo dire-  
lako eta, besteak beste, Alderdi  
Popularraren eta Alderdi Sozialistaren  
mezuak gailenduko dire-  
lako. Baina garrantzitsuena izan-  
go da herritarrei hitza kenduko  
digutela. Hortaz, hori gertatzen  
bada, zerotik hasi beharko dugu  
lanean berriro ere. Gainera, zai-  
la izango da beste galdeketeta bat  
egin ahal izateko aukera berriak  
sortzea.

Aldiz, emaitza baiezkoa bida,  
beste egoera batean aurkituko  
ginateke. Herritarrok hautua eta  
iritzia emateko eta nolako etor-  
kizuna gura dugun adierazteko  
aukera izango genuke. Orain arte  
alderdi politikoak ibili gara ezta-  
baidan, baina herritarren ikus-  
puntu kontuan hartzea ezinbes-  
teko dela uste dut.

**Onartu berri den Terrorismo-  
aren Biktimen Legeaz zer dio  
Aralarrek?**

Legea beharrezko dela uste  
dugu, baina, aldi berean, ditue-  
nak baino eduki gehiago izan  
beharko lituzkeela uste dugu.  
Hain justu ere, biktima guztiak  
modu berean tratatu beharko  
lituzkete, berdin da-eta biktimak  
nork eragindakoak diren. Horren  
harira, hainbat zuzenketa aurkez-  
tu genituen, baina guztiak ez  
dituzte onartu; besteak beste,  
poliziak eta talde ultra eskuindar-  
rek eragindako biktimak kan-  
poan geratu dira.

Dena den, Gasteizko hiruko-  
ak hitza eman du, esanez, kanpo-  
an geratu diren biktimak beste  
lege baten bilduko dituela. Horre-  
gatik guztiagatik, Terrorismo-  
aren Biktimen Legea aurrerapau-  
soa da, baina ez da nahikoa.

**Mozio etikoek eta zentsura  
mozioek porrot egin dute Deba-  
goienean. Zergatik?**

Argi eta garbi daukagu Alder-  
di Sozialistak Isaías Carrascoen  
heriotza erabili nahi izan duela  
interes alderdikoak lortzeko, eta  
horregatik egin dute porrot. Ez  
da normala adostasunik gabe  
zentsura mozioa aurkeztea. Ara-  
larren hasieratik esan genuen ez  
genituela zentsura mozioak  
babestuko.

## HELBURUA

**"Aralarren egiten  
dihardugun lana  
jendearteari eta  
herritarrei zabaldu gura  
diegu kanpainarekin"**

**Aintzane Ezenarrok esan du  
Euskal Herriaren etorkizune-  
rako "urrats garrantzitsua"  
dela. Hala da?**

Bai, hala da. Badakigu bat-  
batean ez dugula normalizazio  
politikoa lortuko: berriz diot,  
urratsez urrats joan behar dugu.  
Baina lehendakariak proposa-

## BOZKETA

**"Arazoa konpontzeko  
bidean urrats  
garrantzitsua delako  
emango diogu baiezko  
botoa herri galdeketari"**

tzen duen galdeketarekin euskal  
herritarrok gure etorkizuna era-  
bakitzeko dugun eskubidea aitor-  
tzen zaigu; hain justu ere, baldin-  
tza aproposak daudenean nolako  
gizartea nahi dugun esateko  
aukera izango dugu. Gainera,  
proposamen praktikoa egiten den  
lehen aldia da.

## MOZIOAK

**"Interes alderdikoak  
erabili ditu Alderdi  
Sozialistak 'mozio  
etikoak' eta zentsura  
mozioak aurkezteko"**

**Zergatik emango du Aralarrek  
aldeko botoa?**

Batez ere, arazoa konpontze-  
ko bidean urrats garrantzitsua  
delako. Gainera, Aralarren beti  
defendatu dugu herritarrei hitza  
ematea ezinbestekoa zela. Horren  
harira, herri galdeketak aukera  
hori ematen digu eta ateak ixtea



zabalik

Urko Lopez

## Gizarte-berrikuntza

**E**konomian gero eta modakoagoa bihurtu den hitzetako bat "berrikuntza" da. Bai tokiko mailan zein nazioarteko mai- lan azaleratzen diren ikerketa estatistiko askok berrikuntzan sendo aritzen diren herrialdeak ekonomikoki aurreratuenak direla adierazten dute. Bainha hori bakarrik da? Beste zer- bait ere badago?

Normalean, berrikuntza teknologiarekin edo erakundeen kudeaketa, merkata eta antolakuntzarekin erlazionatu ohi da. Honek guztia enpresa eta ekonomiaren lehiakortasunarekin du zerikusi zuzena, eta beharrezko da halakoetan aritzea. Hala ere, gero eta gehiago dira oraindik ere zerbaile falta dela dioten korronteak. Zentzu honetan, azken aldian adiera berriak ari dira ateratzen berrikuntzaren inguruan, alor ekonomikoa alde batera utzi gabe beste alor batzuk ere lantzen dituena. Gizarte-berrikuntza da adiera horietatik indar handiena hartu duena azken aldian.

Honela, aditueng arabera, azken hamarkadetan berrikuntza teknologiko eta ekonomiko garrantzitsuak lortu arren, hauet ez dute beti gizartean hain modu zuen eta positiboan eragin. Hau da, ze puntura arte lortu da gizartean kriminaltasuna murritzeara. Edo bizi-kalitatea gizarte-geruza guzietan hobetzea? Gizartek hainbat kolektiboren bazterketa ekidin da? Ekonomikoki gauzak ondo egiten ditugunean, baina gizarteari behar duen arreta hori jartzen ez diogunean, baliteke zerbaile guztiz ondo egiten ez aritzea.

Gizarte-berrikuntzaren harian, Donostiako Miramar Jaurien uztailaren 28-30 artean gai honen inguruko ikastaro bat egongo da. Berandu, agian, oporre begira, baina, nire uste apalaten, merezi du.

### "Berrikuntza teknologikoek ez dute gizartean zuzenean eragin"

### "Gizarteari arreta jartzen ez diogunean, baliteke zerbaile guztiz ondo egiten ez aritzea"

## Goienkaria

**Argiratzalea** Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Saietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larrazte Zuberoi, Arribitx Barruso, Jasone Zábal, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazalegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larriaga, Amaia Mundifano, Zortzka Martin, Itxaso Bereziar, Aintzane Muruamendi **Testuen zuzenak** Sergio Azkarate **Harpidezta eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarin, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana II • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidezta** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



Konpainia Sotibak

OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarra galdezka

LANDAN ETA GARAION BIZIKLETA ALOKA DAITEKE?  
**Uribarri Ganboako urtegietarao joateko asmoa duen arrasatear batek galdera hauxe egin digu: "Iaz, bizikleta alokatzeo aukera zegoen urtegiotan. Aurten ere badago eskaintza hori?"**

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen saileko ordezkarien baiez-tatu digute bizikleta errrentan hartzeko zerbitzua martxan dagoela joan den asteko astelehenaz geroztik, eta uda osoan egongo dela horretarako aukera, abuztu amaiera arte. Egunero-egunero dago zabalik zerbitzu hori, zapatu eta jaiegunetan ere bai, 12:00etatik 20:00etara bitartean.

Bizikleta errrentan hartzeko, Garaion horretarako dagoen gunera joan behar da, baina bizikleta Garaio eta Landa inguru osoan erabil daiteke; ezin daiteke hortik atera. Tarifik hauek dira: helduendako, 2 euro; adin-gabeendako, euro bat; eta hiru kide edo gehiagoko familienda-ko, 5 euro. Horrez gain, 5 euroko fidantza ipini behar da, eta bizikleta itzultzeraoan, diru hori itzuli egiten dute.

UMEEKZE DOKUMENTAZIO BEHAR DUTE BIDAIATZEKO?

**Oñatiiko irakurle batek hau diosku: "Hilabeteetako umea daukagu, eta udako oporretan bidaiatu egin gura dugu. Hegazkina hartzeko, umeekze dokumentazio aurkeztu behar dute? Entzun dut familia liburuarekin nahikoa dela..."**

Bergarako Eroski bidaia agentziak eman digu erantzuna: "Kontraesana dago: legez, 14 urte arte

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratura bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu- zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxe: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ez da derrigorrezkoa Nortasun Agiria izatea; baina hegazkin konpainia batzuek, Air Europak, esaterako, NA edo pasaportea eskatzen dute eurekin bidaiatzeko, baita umeei ere. Horietako bat ez duena lurrean utz dezakete. Horregatik, gure gomendioa da 14 urtetik beherako pasaportea egitea; erraza da eta, gainera, atzerrira joateko beharra suertatzen bada ere, horretarako aukera izango dute". Pasaporteak berdin-berdin balio du Espainian hegazkinez bidaiatzeko.

Bestalde, tarifik desberdinak dira konpainiaren arabera: "Ume kontsideratzen dituzte 2 urte bete arte; horiek ez dute jesarlekurik hartzen, altzoan doazelako. Hortik gora, enpresa bakoitzak era-bakitzeko du, eta baliteke deskontuak jartzea, doan joatea... baina kasu bakoitzaz aztertzen behar da".


Hori, hegaldiee dagokienez; baina bidaia agentziako honako gaineratzen dute: "Autoz bidaiatu behar duten familieta-ko kide guztiak dokumentatuta joan behar dute. Guk gomenda-tzen diegu helduak NArekin joatea eta, umeak badituzte, familia liburuarekin ere".

## marrakiz

Alex Ugalde

Egoera honekin zerbaile egin behar dugu: lanean gau-denok hobekuntzak behar ditugu, eta lanean ez gau-denok lana behar dugu.

Badaukat konponbidea: lanik ez dutenak alde honetara pasa daite- zela, borra batzuk hartu eta egurra eman diezaietela besteei.



## Motibatzeko teknikak (I)

Iban Perez  
goiena.net/blogak/leihoa

Pertsona asko moralez baxu dabilzanean bizi gogoa eta motibatzeko teknika batzuez lagundu behar izaten dira morala igotzeko. Pertsonaren arabera teknika aldatu egin daiteke.

Adibidez, Juan Carlos Higuero atleta espainiarak proba bat gauzatu aurretik El Guerrouj atleta ohiaren bideoak ikusten ditu. Edo

Jorge Lorenzoren kasua moto lasterketa bati aurre egin baino lehen Rocky-ren pelikulak ikusten dituela.

Nik inspirazioa eta motibazioa bilatzeko azken bi urte hauetan Gasteizen izan dudan armairuari begirada bat jotzen nion. Bertan oroigarri batzuk itsatsita nituen oroitzapen onak ekartzen zizkidatenak: dortsalak, irudiak, argazkiak...

Iralera arte armairu gabe geratu naiz, datorren ikasturtean pisuz aldatzen naizelako. Espero dut datorren irailek aurrera armairu berri bat izatea non nire oroitzapen onak itsatsi eta denborak

aurrera egin ahala leku hori inspiraziorako beste toki bat bilakatzen den.

## Euskalmet eta euria

Txuma Murugarren  
berria.info/blogak/txuma

Euskalmet-ek ez zuen esan gaue arratsaldean euri-jasa ederra egongo zela nire etxe inguruan. Orotzen naiz, euriaren ekologista batek behin errieta egin zidala esanez oso gauza ona dela euria, eta jende asko pozten

## plazara

Europa osoak bizi duen krisi ekonomiko egoerari erreparatzen dio azpiko artikuluan Celina Menazak, Euskal Herriko Kontsumitzaileen

Batasuneko presidenteak. Azkernaldian izan diren gertakizunen -garraioaren greba, elektrizitatearen tarifak aldatzea...- harira

begiratzen dio krisiari, eta kontsumitzaileen elkartek jasotzen dituzten kezken berri ematen du: erosketak, etxebizitzaz...

Celina Menaza \*


# Garai txarrak iritsi dira

**B**agi bistako prezioen igorren aurrean kontsumitzaileon egoera zein den benetan jakiteko, lehenengo non kokatuta gauden jakin behar dugu. Europako Komunitatearen barruan gaude; erregaiak gelditu gabe igotzen dabilta; Asian indar ekonomiko berriak daude; Ameriketako Estatu Batuen egoera ekonomikoa eta hipoteka kreditu zabor-ekin duten arazoa ere hor dago.

Gure artean euroa ezarri baino lehen dagoeneko ikusi genituen prezioak igotzen eta horrek batera gertatu ziren biribil-keta ezagunak. Ekonomia oparoaldi urte batzuen eta familiak kontsumo maila handiari eraginez, askok etxebizitzak interes tipo onekin erosi genituen, baina orain, interesak igo egin direnez, horiei erantzuteko zailtasunak dituzte etxebizitzaz erosi duten askok; horregatik, Espanian, jendearen %95 zorretan dago. Higienizinen burbuila apurtzen hasi da; oraindik, prezioak ez dira behar adina jaitsi, baina bide horretatik doaz. Edozelan ere, bigarren eskuko etxebizitzak saltzeko oso zailak dira oraindik.

Erregaien igoera dela eta, garraiolariek, arrantzaleek eta nekazariek zailtasunak dituzte; eta horrek ere garraioaren, arrantzaren eta nekazaritzaren prezioak igotzea eragingo du.

Oinarritzko produktuen prezioak igo egin dira. Horri dago-kionez, eztabaida handia dago jatorrizko prezioen eta kontsumitzaileek ordaintzen ditugunen arteko aldearen gainean. Alde hori zehazki zenbatekoa den jakiteko kanpaina bat martxan jarri-



MIKEL ARROIABE

ko dugu. Erosketa egitea gero eta zailagoa da, eta hori nabarmen ikusi da oraintsu izan den garraio grebaren ondotik; produktu batzuen prezioa izugarri igo da, garraioriendako ere erregai garestitu egin delako.

Bestalde, Txinak eta Indiak eskaera maila handia dute orain, herrialde indartsuak direlako eta bio-erregaiak egiteko ereinta asko erabiltzen dituztelako; horregatik, laboratutako produktu horiek garestitu egiten dira.

Honakoa esan behar dut: merkatari libreko sistema baten gaudenez, kontsumitzaileen elkarreko baliabide gutxi ditugula sistema aldatzeko; bakarrik protesta geratzengoa zaigu.

**"Kontsumitzaileen elkarreko baliabide gutxi ditugula sistema aldatzeko; protesta geratzengoa zaigu"**

**"Klase ertain bat oraindik badago, baina gero eta jende gehiago pobrezian geratzengoa dabil"**

Erosteko ahalmena galtzen joaten den neurrian, familien kontsumoa jausi egiten da, eta langabeziak okerragotu egiten du hori.

Kontsumitzaile batzuek zailtasun handiak dituzte hilabete bukaerara ailegatzeko. Baina harrigarria da oporraldi edo zubi garaietan hona eta hara doazen auto piloa ikustea, hegaldiak topatzea zail duten bidaia agentziak eta atzerrira irteera asko... eta norbere buruari galdetzen diogu non dagoen krisia. Egia da asko gure ahalmen mailatik gora bizi garela, baina ezin ditugu ahaztu diruz larri dabiltsan familia, pentsiodun eta erretiratua asko. Klase ertain bat oraindik badago, baina gero eta jende gehiagoren bizi-kalitate maila jaisten dabil, eta pobrezian geratzengoa dabiltsa familia horiek.

Kontsumitzaileen elkarretonan, azkenaldian, kexa asko jasotzen gabiltza Europako Batasunak gaueko elektrizitate tarifa kentzea erabaki duelako, eta eskatzen digute idatz diezaiogula Industria eta Merkataritza Ministerioari horren gainean. Elkarreko protestatu dugu era-kundeetan, baina ekonomia ildoko asko Europako Batasunak ezartzen ditu, eta gaur egungo egoera ekonomikoa ulertzeko, horri begiratu behar diogu.

Zaila da aholkuak ematea. Espero dezagun gobernatzen gaituztenek behar diren neurriak har ditzatela eta garai hobeetara bueltatu gaitezela.

\*Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuneko presidente da.

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Biharamuneko pilula, doan: ados zaude?

BAI	%50
EZ	%50

### > ERABAKI LARRIA

Haurdunaldiak prebenitezko erabiliko dute askok, eta horretarako beste metodo batzuk daudela uste dut. Ama naizen aldetak, erabaki larria dela uste dut. Maialen

### > GUZTIOK ORDAINDUTA

Beharrezko ez den botika bat denok ordaindu behar dugu sexu harremanak modu arduratsuuan izan ez dituztenetaz, eta gaixotsun larri askorentzako behar diren botikak norberak ordaindu behar ditu. Manu

### > DENAK, DOHAINEKOAK

Botika guztiak dohainekoak izan beharko lirateke. Orain arte ordaindu izan da eta jende askok ez ditu sexu harremanak modu ardura-tsuan izan.

Patxi

### > ONDORIOAK AZALDU

Egokia iruditzen zait, hala ere, pilulak eragiten dituen ondorioak azaldu beharko lituzkete.

Enara

### DATORREN ASTEKOAK: Ibarreko udako jaietan bazabiltza?

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

## koplak

Manex Agirre

# Arriskuaren aurrean

Nola Gary Cooper behin egon zen arriskuaren aurrean azkenaldian modu berean gabilta gure lurrean.

Laguntza eske, babes gurean gabilta alderik alde... denek bizkarra eman ohi dute batere interesik gabe.

"Inoiz ez bakarrik, betidanik talde anitz bat bezela" baina orain nork gogoratzen du kolektibo bat garela?

Gidariren bat behar genuke bai, behar dugu, dedio! baina sheriff-aren izarrari lizun usaina dario.

Hainbeste so egon beharrean besteek diotenari izan gaitezen geure buruen zaintzaile eta gidari.

Kopla hauen jabea burutik guztiz endredatu ote... Cooper jaunak leituko balitu barre egingo lioke.

## Erantzukizunaz

Anjel Lertxundi  
[berria.info/blogak/lertxundi](http://berria.info/blogak/lertxundi)

**B**ageneñien iritsiko zitzagula —kutsadura linguistikoek ez dute mugari—, baina atezuan geunden. Bi beldur genituen: noiz iritsiko zitzagun gaitza eta zein indarrarekin (...). Baina iritsi, iritsi da: orain bi egun, euskal irratibateko esatari batek (...) *errespondable politikoak* deitu zien Eusko Jaurlaritzako agintariei.

Gaztelaniazko *responsables políticos* espresio tonto kaikuaren itzulpen (?) guztiz kalkozkoa ez da, ordea, inozoa: *errespondentes* *politikoak* espresioak ez du biribilketa handirik egin behar gure kaskezurretan *politiko errespondentes* bikotetxo sintagmatikoa txirikordatzeko.

Baina, eta hauxe da gaztelaniazko espresioaren bidetik datorkigun zornea, politikan dauden agintariekin, *errespondentes* handia izanagatik ere, horrek ez ditu, per se, *errespondentes* egiten.

dela euria dagoenean, eta abar, eta abar. Egia du. Ez diot ukatuko. Baino egun hartan, segadan harrapatuta topatu nuen sagu gizajoa, euri triste horren azpian geratu zen, isilik eta harrituta, amets deseroso batetik atera ezinda bezala, eta tristeia iruditu zitzaidan, euriarena errekurto erraza den arren. Horrelaxe nago gaur ere, euria errekurto erraza den arren, eskuztatua eta higatua. Baino euriak badu zerbait, bere onura hidrozorgarriaz aparte, badu zerbait abaitzen nauena, izango da, agian, hemen beti dagoelako euria. Euria alu etengabea.

## Kondena / ez kondena

**Jose Antonio Villar Oiartzabal**  
Eskoriatza

Bergarako Iñaki Arriola Irizar jaunak idatzitako txostenari jarri nahi nioke nire ikuspuntutik erantzuna:

*Defentsa legitimoa eta biolentzia legitimoa izenburua-rekin berak biolentziaren legitimitateari dagozkion mugak bereiztea zaila dela dio. Euskararen aberastasunak ematen dio horri erantzuna: gogorkeria ez da inoiz zilegi, erantzuneko gogortasuna bai, ordea. Bainan hortxe dago gakoa! Bakotzak bereari deitzen dio gogortasun eta besteanari gogorkeria, eta norbere eta beste hori bereiztean dago argibide bakarra. Euskal Herriko gatazkari dagokionean bereizte hori garbi dagoelakoan nago, eta ez balego, nahi duenari argituko niokeelakoan hain zuzen ere.*

Iñakik bata bestearen atzetik *Eman dezagun aurrekariaz jartzen dituen adibideak kondena / ez kondena* dikotomiaren nondik norakoa baloratzeko jartzen ditu, eta ezagutzen ditugun udaletan izandako eztabaidaren metafora direla esan daiteke.

Baina *eman dezagun* horietan jartzen dituen baldintzetan ez kondenatzearaz gainetik aipatzen diren besteak eman diren ala ez jakiterik ez dudan arren, justifikazioa, besteak beste, badakit ezer justifikatu gabe gainditu daitekeela:

Eman dezagun bortxaketa bat bere aurrean eta publikoaren kondenatzeko eskatzen dizuna zure familiako baten bortxatzailea bera dela, eta bortxatzen jarraitzeko bere eskubidea inolako lotsarik gabe eta lege bidez aldarrikatzen duena...

Eman dezagun istripu bat salatzea exijitzen dizuna mila istripuren erantzule ezaguna dela eta istripu horiek legearen irmortasunaren ondorio direla dioena...

Eman dezagun, eman dezagun...

Eman dezagun Jesukristok, berak ere, inor salatu gabe eman zuela ikasbide zentzuduna: "Errurik gabe dagoenak bota diezaiola lehen harria".

Esko dezagun guk ere: "Kondenatzekorik ez duenak eska beza besteen kondena".

## Arrasateko zinegotzi sozialisten gutun irekia

**Paco Garcia Raya, Aritz Arrieta, Miren Lana eta Carmen Atxutegi**  
(PSE-EKO zinegotziak  
Arrasateko Udalean)  
Arrasate

Gaur ikusi dugu hainbat hedabidetan Arrasateko Udala jai zoriontsuak opatzen, non Inocencia Galparsoro alkatearen izenarekin berba jokoak egiten diren. Udal horretako zinegotzi eta Isaias Carrascoren udal kide eta lagun garen heinean, minduta sentitzen gara udal honek eta Udaleko gobernuak kale egin digulako.

ETAK gure familia jipoitu zuenetik ez gara gauza izan gure bizitzak berregiteko. Ez bakarrik Isaias Carrascoren gabeziagatik errekuoperatzeko gauza ez garelako sekula izango; bere seme-alaben aurrean modu bortitz eta koldarrean erail izanagatik errekuoperatzeko gauza ez gara. Bainan ez gara errekuoperatzeko gauza izango ordutik sentitu dugun elkartasun faltagatik, jaso ditugun berba hutsal eta besarkada hotz eta bihotz-gabeengatik. Benetako sentimendu zintzoak baino gehiago, galeriarako egindako besarkada eta babes erakustaldiengatik.

Eta Arrasateko Udalak, zeina lehena izan beharko litzatekeen gaitzesten herriko biziagun eta zinegotzi ohi baten erailketa bortitz eta koldarra, erakutsi digu keinu-

rik zatarrena gertakari hartzik. Gaitzespen baten aldarrikapenaren aurrean, Udal gobernuia saiatu da testuinguruaren sartzen erailketa hura, argudiatuz gaitzespenak alferrikakoak direla, euskal gatazka deituaren kalte kolateralala bat izan dela, eta nabarmenduz arazo historiko bat sakoneko irtenbideak topatu beharra.

Baina, hori bai, Arrasateko Udal mobilizatu da ia osorik alkatearen askatasuna eskatzen sinadurak batzeko; jarri dituzte pankartak udaletxeko fatxadan, manifestazioak eta sinadura batzeak antolatu dituzte, eta Arrasateko Udalak zoriontszeko sartu digute, txarteltzarrarekin, Inocenciarri Elkartasuna!, tragala lotsagabe bat. Eta, hori gutxi balitz, jaiak antolatzen diren eszenatokian, udaletxearen aurrean, pankarta handi bat jarri dute zinegotzi sozialisten izenekin. Bananban eta letra handiz: Paco Garcia Raya, Aritz Arrieta, Miren Lana, Carmen Atxutegi, alkatea kartzelan egotearen errua geuri leporatuz. Bitartean, udaletxeko balkoan, ezer egin barik, ANVko zinegotziak, gure zinegotzien eta Sandra Carrascoren ondoan.

Inocencia Galparsoro espetxeen dago talde terrorista-rekin kolaboratzea eta ANVren jarduera etetea ez errespetatza leporatuta. Ez gehiago eta ez gutxiago. Eta hori da epaile batek Soto del Realeko kartzeala eroan imanaren arrazoia.

Isaiasen erailketaren ondoren sentitzen dugun mina ez du ezerik arinduko. Ez bere familiari eta ez guri. Egunero gogoratuko dugu egun ikaragarri hori. Gogoan dauka bere familiak, eta gogoan daukagu guk ere, haiak bisitatzen goazenean eta erori zen tokitik igarotzen garenean.

Euskadi da Europako toki bakarra ideiengatik erailtzen dena. Sufritzen duen herriko familia bati, alkate eta zinegotziek elkartasuna adierazten ez dioten leku bakarra eta ETAren aldeko eta haiak bezala pentsatzen ez dutenen aurkako

dianak modu erasokor eta jasanezinean kalean pintatuta egotea utzen duten leku bakarra. Isiltasun konplize eta koldar politikoa permititzen den alkate eta zinegotziak dauden toki bakarra, zeinak guri, sozialistoi, exijitzen diguten demokrazia labela, baina benetako orduan ETAren violentzia deslegitimatzenten dutenak bakarrik, beste konpromisorik hartu barik.

Gaur, zure herriko jaietan, Isaias, gogoan zaitugu!

## Maite ezazu nahi duzun bezala

**Karmelo Perez**  
(Oñati Ezkerretik)  
Oñati

Badira 39 urte ekainaren 28an Lesbiiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Duintasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela. Oso egun garrantzitsua da, talde horiek hainbatetan eskatu dituzten berdintasun-eskubideak aldarrikatzeko. Oñati Ezkerretik-en ustez, egun hori ospatzean, merezitako omenaldia eskaintzen diegu talde hori osatzen duten guztie.

Urte askotan borrokatu ondoren, legegintzako eraldaketei esker lortu dugu lege-berdintasunean aurrera egitea, sexu bereko bikoteak baztertu eta egon ez daitezten eta transexual euren izena eta sexua egokitzea aukera izan dezaten.

Hori lortzeko, gay, lesbiana eta transexualen taldeak luzaroan borrokatu behar izan dira, eta gizartea ere bilakatu egin behar izan da, nahiz eta betiko pentsaera kontserbado-rek eraldaketa horiek onartzea eta betearazteko eragozen eta oztopo asko jarri dituzten.

Nolanahi ere, Europar Batasuneko mugen barruan, oraindik ez da homofobia, lesbofobia eta transfobia irekia bezain zakarra desagertu, eta

Europako agintariek ez dute ezer egiten edo oso gutxi egiten dute, jarrera hori eragotzeko eta zigortzeko.

Hirugarren mundura edo beste orbita kultural batzueta herrialdeetara joanez gero, bertako errealitateak benetan latzak direla ikusi ahal izango dugu. Izan ere, harreman homosexualak kriminalizatuta, jazarrita eta erabat ezkutatuta daude, ahalik eta homofobia aurkarienean bizi ahal izateko. Bederatzi herrialdetan, gainera, oraindik homosexualeneko heriotza-zigorra dago indarrean.

Gure ingurune hurbilenean, gaur egungo homofobia nagusia "derrigorrezko ezkuketarena" da, hau da, lesbianak eta gayak ezkutatu egiten dira, oraindik inguruko errealitateak gutxietsi egiten dituela uste dutelako. Beraz, egoera aldatu egin da, baina ez behar beste.

2008ko leloa "nabaritasun lesbikoaren alde" izango da. Lesbianek ekarpenak egin dituzte beste gizarte-mugimendu askotan, arlo politikoan, sindikalean eta juridikoan, hezkuntzan, enpresetan... Dena dela, oso jende gutxik du horren berri. Lesbianak eurak ere ez dira horretaz konturatuz.

Lesbianak borrokatu egiten dira, matxismoa, euren nabari-tasunik eza eta isiltasuna baztertzeko, beste neska gazte batzuek eurek bizitakoa ez pairatzeko eta agerian bizitze-ko. Tamalez, egon ez dagoena, ikusten ez dena ez da inoiz kontuan hartzten.

Oñati Ezkerretik-en, lanean jarraituko dugu, lortutakoa sendotzeko eta gizarte-bereizkeriari aurre egiteko. Horren ondorioz, zentzuzkoa da ekainaren 28a, Lesbiiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzen eta aldarrikatzen jarraitzea, harik eta pertsonak askeak eta berdinak izan arte. Hori dela-eta, herritar guztiei esku nahi diegu inor ez baztertzeko beste era batera maitatzen duelako.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karak-tere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeo. Gutunarekin bate-rala beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33  
20570 BERGARA

Telefona:  
943 25 05 05

Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goinkaria@goina.com

<b>SOINUAK:</b> Bidali, SOINUE hutsunea <b>KODEA</b> <b>ABESTIAK:</b> Bidali, SOINUP hutsunea <b>KODEA</b> <b>LOGOAK:</b> Bidali, SOINUL hutsunea <b>KODEA</b> <b>JOKOAK:</b> Bidali, SOINUJ hutsunea <b>KODEA</b>	<b>5767</b> zenbakira SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA	<b>SOINUAK</b> ERREALAK (2 SMS) Abestiaren izena   <b>KODEA</b>  <b>LOGOAK</b> (SMS 1) <b>KODEA</b>

**OHARRAK**

- 1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratzen zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaizten ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari). Bertan jasoko duzu beharrezko duzen informazio gutria.
- 2. BALDINTZAK:** Edukiaz esker, beharrezko da GPS sistema aktibatuta izatea, GPS sistema aktibatzeko, jarraitze zuen horizontzalekin harremanetan. Alfa ematea doan da eta Kb jasotzen bakarrik ordutu beharko duzu. Kasu guztietai deia eta GPS sistemak alfa ematea doan dira.
- 3. ZALANTZAK:** Edozien lanlantha duzula, jari gurekin kontaktuan [smsoinu.smsoinu.com](http://smsoinu.smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.
- 4. PERSONALIZAZIOAK:** Zure neurriara egin ditzakegu abesti eta logoa. Webgunean kalerautu eta erabilizaleek eskuera dezetza nahi baduzu, jari gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Himnoak**  
Elbar I EBAR  
Athletic Club I BILBAO  
Osasuna I OSASUNA  
Real I REAL  
Real Union I UNION  
Foik  
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN  
Bai euskarri (Pantxoak) I BAI  
Bakazealak (Anje Duhalde) I BAKE  
Bikzai Maite (Bento Lerkundi) I BIZKIA  
Eperak (Anje Duhalde) I EPERAK  
Euskal Herriko Euskaraz (Osorki) I EUSKAL  
Euskaldun berriaren balada (Osorki) I EUSKALDUN  
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE  
Fura Fura (Osorki) I FURA  
Galizara nos (Osorki) I GALIZARA  
Gernikako Arrola (Gontzal Mendibil) I GERNIKAI  
Haika Mutu (Mikel Laboa) I HAIIKA

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**IZARREN**  
Lepoan hartua (Kabier Lete) I IZARREN  
Marinearen zai (Sorotan Bele) I LEOPOAN  
Nere herriko neskata maite (B.Lerkundi) I INERE  
Non geratzen den denbara (Mikel Urangarin) I NON  
Oñi Ama Euskal Herria (B.Lerkundi) I OÑAMA  
Tirauki (Osorki) I TIRA  
Txabamatabanatu (Mikel Urangarin) I TXATXA  
Txoria xori (Mikel Laboa) I TXORIA  
Zaindu matte duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU

**Herrikoia**  
Bagare I BAGARE  
Desde Santurce a Bilbao I DESDE  
Iku Mendileak I MENDI  
Pintxo-pintxo I PINTXO  
San Simon eta San Judas I SAN

**IREAL**  
Alboaka I ALBOKA  
Athletic IIEUP!  
Buztan bertsoa I BERTSO  
Hartut... Ansar I ANSARE  
Hartut... Argentinara I ARGEN  
Hartut... Mexikarra I MEXIKO  
Hartut... Miamiol I MIAMOL  
Independentzi I INDEPENDEN  
Irrintza I IRINTZA  
Jotake irabazi arte! I JOTAKE  
Milazul! (pilota) I MILAZU  
Suprinua I SUPRINU  
Tobera I TOBERA  
Txalaparta I TXALA  
Txanbelita I TXANBERA  
Txooootx I TXOTX

# Zure bizimodurako txartel egokia



Orain, **VISA Gazte** berriari esker, zure poltsikoa erosago ibiliko da. Begira:

- ▶ **Zure ordainketak atzeratu egin ditzakezu.** Eta, berehalako ordaindu nahi izanda ere, hurrengo hilabeteko lehen egunera arte ez duzu ezer ordainduko.
- ▶ **Erosketa bakotzeko, puntuak metatuko dituzu** (5 euroko puntu 1), eta gero puntuok hainbat opari ederrenagatik trukatu.
- ▶ **3 hilabete interesik gabe** lehenengo atzerapen edo geroratzearrekin, 2009ko urtarrilaren 31 baino lehen egiten baduzu.
- ▶ **Beherapen eta baldintza bereziak** izango dituzu.
- ▶ **Segurtasuneko alerta, aseguruak barne...** eta askoz gehiago!!



Informa zaitez hemen: [www.gaztekutxa.net](http://www.gaztekutxa.net)

zer nahi duzu bihar?

# Pasaialdea, orain bai.

Gure etorkizuna abiarazi. Badia biziberritu.  
Guztointzako ibilbide berri bat ekin.

Hori da efekto*gipuzkoa*.

**2007/2011 Kudeaketa Plana**

6

efekto*gipuzkoa*



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera ➤

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Asteon hasi dituzte  
mendebaleko  
saihesbidea  
egiteko lanak > **18**

> **BERGARA**  
Udako loren  
apaindu dituzte  
herriko hainbat  
lorategi > **24**

> **OÑATI**  
Kurtso bukaerako  
gimnasia erritmiko  
erakustaldia  
Zubikoan > **33**

> **ANTZUOLA**  
Etxezuri eta Arizti  
arteko bidegorria,  
gertu urte  
amaierarako > **36**

BERGARA > 'BERGARAKO AHOTSAK' PROIEKTUA

## Ahozko ondarea eta herri hizkerak Internet bidez ikusteko aukera

**ELKARLANA** Bergarako Udalak Badihardugu  
elkartarekin lankidetzen egindako bilduma da

**FONDOA** 65 herritako 1.005 hizlariren grabazioak  
daude; Bergara da fondo handiena duen herria

**AURKEZPENA** Gaur, 19:00etan, izango da  
aurkezpena, udaletxe osoko bilkura aretoan

**JASONE ZABALA** > BERGARA  
Asko dira azken urteetan Bergarako euskara –eta, euskararekin batera, leku-izenak, langintza zaharrak, historia hurbila, etnografia eta bestelako jakin-tza eta bizipenak– jaso eta lantzeko egin diren lanak. Lan horiek egiteko 140 herritar inguru egin zitzazkien grabazioak denbora luzean zehar.

Orain, Bergarako Udalak, Badihardugu elkartarekin lankidetzen, azken 25 urteetako herriko euskara jasotzeko eindako grabazio horien zatiak Internet bidez konsultatzeko moduan jarri ditu –*Bergarako Ahotsak*–, interesa duten guztiek erabil ditzaten. Mende eta laurdeneko historia, protagonisten berbetan jasota.

**BILDUMAKO PROIEKTU NAGUSIAK**  
Ondorengoa dira bilduma horretan batzen direnak: *Bergarako Euskara* liburia egiteko grabazioak; *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*-erako (EHHA) eta *Bergara aldeko hiztegia*-rako eindako grabazioak; Bergarako toponimia jasotzeko grabazioak; *Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak* liburu bilduma egitekoak; *Debarroko Ahotsak* grabazio-bilduma; Udalaren enkarguz Badiharduguk eindako grabazioak eta beste grabazio solte batzuk. Bergarako bilduma horrek ondorengo ezaugarriak ditu: elkarritzketatutako herritarrak 140 inguru izan dira; grabatutako 125 ordu inguru; 25 elkarritzketazaleak; kodifikatutako 1.783 pasarte; transkribatuak 525 izan dira; audiodun pasarteak, 539; eta bideoak

pasarteak, 203. Grabazio zaharra 1983koa da, eta hiztunik zaharrenak, 1888an jaoak.

### 'EUSKAL HERRIKO AHOTSAK'

*Bergarako Ahotsak* proiektua *Euskal Herriko Ahotsak* proiektuaren parte da. Proiektu horren helburu nagusia da Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzeari; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarritzetatu, eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea. Une honetan, 65 herritako 1.005 hizlariren grabazioak daude fondoan, eta Bergara da fondo handiena duten herrietako bat. Hauek dira proiektu honen ezaugarri azpimarragarrirenak: Euskal Herri osoko datuak biltzen ditu; publikoa eta doakoa da; proiektu irekia da eta interesa duen orok har dezake parte; hainbat ikerlari eta proiektu biltzen ditu; metodologia sistematiko eta zehatzera jarraitzen da; eta informazioa herrika eta gaika antolatuta dago. Era guztiak hartzialek izan ditzake: ikerlariak, ikasleak, zaleak, senideak, historialariak, filosofoak, antropologoak... Ibarrean, orain arte, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Antzuolan egin da proiektu horren aurkezpena.

### METODOLOGIA ETA URRATSAK

Proiektuaren lehenengo urratsa da Euskal Herriko herri ezberdinak dauden zintak berreskutzeara. Horretarako, ahozko ondarea biltzeko lanetan jardun duten bitartekoekin harremanetan jarri dira: Udalak, eus-

The screenshot shows the homepage of ahotsak.com. At the top, there's a navigation bar with links like 'Sarrera', 'Herrak', 'Proiektuak', 'Galak', 'Hizlariak', 'Albisteak', 'Info', and 'Parte hartz'. Below the header, a banner for 'Baserriko lanak; basoa' is displayed. It features a video thumbnail of an elderly man (Felipe Altuna Egizazu) and some descriptive text about him. To the right, there's a sidebar with a portrait of the same man and more details about him. Further down, another section for 'Maria Argialde Azalza' is shown, also with a video thumbnail and profile information. The bottom of the page has a 'Pasarteak' section and a note about the project's reach.

GRABAZIOAK Bergarako Ahotsak webgunean, 140 herritarren grabazioak daude ikusgai.

GOIENKARIA

kara elkartea, ikastetxeak, ikerlariak... Kasu askotan, grabazioak zinta analogikoetan egon ohi dira, eta premia-premiazkoak da lehenbaileen kopiatzea eta euskarri digitalera pasatzea. Audioa bakarrik duten grabazioak CDetan gordetzen dira; bideoen kasuan, DVDetan. Kopiak egindoren, originalak jabeari itzultzen zaizkio; kasurik gehienetan, gainera, soinua garbitu egiten da egoki entzun dadin esandakoa. Grabazio zaharrez gain, une honetan ere gra-

bazioak egiten ari dira han eta hemen pertsona ezberdinei. Ondoren, elkarritzeta bakoitzaren inguruko informazio guztia datu-basean sartzen da. Horretarako, zinta guztiak katalogatu eta etiketatu egiten dira; leku koen datuak jaso dira (jaioteguna, biografia laburra, argazkia...) ; elkarritzetailearen datuak; elkarritzeta datuak ere gorde dira (elkarritzeta noiz, non, nola, zergatik... egin den); eta proiektuaren informazioa ere datu-basean sartzen da. Graba-

zioak luzeak dira –gehienak, ordubete ingurukoak– eta bakoitza minutuz minutu laburten da, horrela, 2-4 minutuko pasarteak sortuz. Proiektu horretan orain arte bildu duten materia- la lau multzo nagusitan bana daiteke: Badihardugu elkartea denbora luzean sortutako materiala, Euskal Herriko Udal ezberdinekin eindako hitzarmenak, hainbat elkarterein eindako lankidetza hitzarmenak eta hainbat ikerlariekin eindako harremanak.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatura, 28	Azkoaga	Iturriortz, 17	943 79 79 99
Domeka, 29	Fdz. Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Astelehenetako 30	Irizar	Erguín, 11	943 79 12 39
Martitzena, 1	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguaztena, 2	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Eguena, 3	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09
Egubakoitz, 4	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30

**BERGARA**

Zapatura, 28	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Domeka, 29	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Astelehenetako 30	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 1	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 2	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 3	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Egubakoitz, 4	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74

**ÖÑATI**

Zapatura, 28	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 29	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehenetako 30	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 1	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 2	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 3	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitz, 4	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

**ARETXABAleta**

Zapatura, 28	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 29	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehenetako 30	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 1	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 2	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 3	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 4	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 76 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak .....	943 78 20 00
Ertaizantza .....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasteko ospitala .....	943 03 53 00
Antzuola .....	943 76 62 23
Aramai .....	945 44 53 40
Aretxabaleta .....	943 71 19 59
Bergara .....	943 03 54 00
Elgeta .....	943 03 54 00
Eskoriatza .....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Öñati .....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola .....	943 76 62 46
Arrasate .....	943 79 14 39
Aretxabaleta .....	943 71 18 63
Bergara .....	943 77 91 06
Eskoriatza .....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Öñati .....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate .....	943 79 12 22
Aramai .....	945 44 50 33
Aretxabaleta .....	943 77 12 64
Bergara .....	943 79 12 22
Eskoriatza .....	943 71 40 59
Öñati .....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera .....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa .....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate .....	943 77 11 43
Bergara .....	943 76 44 42
Öñati .....	943 78 36 67

**ARRASATE**

Aramai .....	945 44 53 74
Arrasate .....	943 77 01 05
Aretxabaleta .....	943 71 10 27
Bergara .....	943 77 91 58
Eskoriatza .....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Öñati .....	943 78 03 53

**Uralak**

Antzuola .....	943 76 62 46
Aramai .....	945 44 50 16
Arrasate .....	943 79 09 00
Aretxabaleta .....	943 71 18 62
Bergara .....	943 77 91 00
Elgeta .....	943 76 80 22
Eskoriatza .....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Öñati .....	943 78 04 11

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arizmubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legaria, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrego, Onerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Gorostizara (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 1	

## kale inuesta

### Joango zara udalekuetara aurtengo udan?



Irati Bikuña  
Ikaslea  
Oñati



Imanol Gutierrez  
Ikaslea  
Oñati



Nerea Karmona  
Ikaslea  
Oñati



Eneko Lezeta  
Ikaslea  
Oñati



Maialen Santos  
Ikaslea  
Oñati

Allora (Nafarroa) joango naiz, uztailaren 1etik 13ra arte. Aurten udalekuetara joaten naizen lehen aldia da, eta gogo handia daukat Euskal Herriko beste gazte batzuekin elkartu eta jolasteko.

Ez naiz udalekuetara joango uda honetan. Beste urte batzuetan, Oñatin bertan egon diren udalekuetan parte hartu izandut; aurten herrian geldituko naiz eta lagunekin jolastuko naiz.

Inoiz ez naiz udalekuetara joan. Uztailean zehar herrian geldituko naiz eta tenis eta eskalada egingo dut bertako lagunekin. Igerilekura joateko ere aprobetxatuko dut uztaila.

Oñatiko udalekuetan ibilitakoa naiz. Aurten herriko beste lagun batzuekin batera squash eta patinaje ikastaroetan parte hartuko dut uztailean, gustuko ditudalako bi kirol horiek.

Ni neu Allora joango naiz uztaileko lehen hamabostaldian. Joan zen urtean ere egon nintzen udalekuetan. Bigarren hamabostaldian, berriz, kiroldigira joango naiz badminton ikastaroa egitera.

## txistuak



GOIENKARIA

### Espaloia falta da Zubiaurre kalean



Bergarako Zubiaurre auzoan bizi den irakurle batek bidali digu aste honetan kexa. Irakurle horrek dio herri erdialdetik urrunten diren auzoak pixka bat abandonatuta daudela, kasu handirik ez zaiela egiten. Irakurle horrek Zubiaurre auzoan dagoen espaloia falta salatu nahi du: autoak bi norabidetan doaz bertan, eta oinezkoendako ez da tokirik gelditzent.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

9

Haurdun dauden emakumeendako, gaitz kromosomikoenak antzemateko bi teknika berri jarriko dituzte martxan irailean Euskal Herriko bederatzi ospitaletan. Arrasaten dagoen Debagoieneko Eskualdeko Ospitalea izango da teknika berri horiek eskainiko dituen ospitale horien arteko bat.

Ni ez naiz egon bileretan, baina itxura baten adostasunera iristeko moduko puntuak iruditu zaizkit. Eta inaugurazio ekitaldian esandako moduan herritarren partehartzea bultzatu gura bada, aukera paregabeari ikusten dut.

## 5 galdera...

### Estitxu Lobato

Agorrosin guneko sorolea Bergara

#### 1. Zein da sorolearen oinarritzko lana igerilekuetan, udan?

Igerilekuan sortzen diren arazoei aurre egitea, jendea arriskuetatik babestea, laguntza ematea beharrezko baldin bada, edo, norbaitek laguntza behar duela ikusten badu, hari laguntzea. Igeri egitera ere joaten da jendea; beraz, haurrendako eta igerilariendako eremua bereiztu behar da, haurrak jolasten ibiltzeko eta besteek lasai igeri egiteko.

#### 2. Zein da jendeak gutxien errespetatzen duen araua?

Askori kostatik egiten zaie uretan sartu baino lehen dutxara joatea, beste batzuk arropa eta guzti pasatzen dira igerilekutik... Bestalde, igerilekuan ezin da korrikarik ezta saltorik egin, eta askok egiten dute. Berdeguneak, nahiz eta zakarrontzi ugari egen, plastikoz beteta bukatzen du.

#### 3. Udan zehar, igerilekuak zabalik dauden garaian, zerik ematen dizue lan handien?

Umeen gainean egon beharrak; batzuetan, zaintzaile lanak egiten ari garela ematen du.

#### 4. Igeri egiteko zein da eguneko ordurik txarra, jende gehien egoten den ordua?

Goizean nahiko lasai egoten da igerilekua; Arratsaldez, aldiz, 16:00etatik 19:30era arte, jende asko egoten da, zarata handia dago, uretan olatuak sortzen dira... Dena dela, igeri egiteko kaleak bereiztuta daude, eta igeri egin nahi duenak lasai asko egin dezake.

#### 5. Bainua hartzeko orduan oinarritzkoak diren gomendio batzuk emanitzazu.

Lehenik eta behin, dutxatu. Aurretik zerbait jan badugu, eskumuturrak, lepoa eta tria busti eta, ondoren, poliki-poliki uretan sartu; temperatura aldatetako ere ez dira onak. Kontuz ibili behar da ume txikiekin, jende nagusiarekin eta igeri egiten ez dakien jendearekin.



**OBRAK** > OLANDIXOKO TUNELA

# Asteon hasi dituzte mendebaleko saihestidea eraikitzeko lanak

Astelehenean ipini zuten Olandixoko tunelaren obrak iragartzen dituen kartela eta eguztenean hasi zituzten lanak

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
Abian dira Olandixoko tunela edo Arrasateko mendebaleko saihestidea egiteko obrak. Dagoeneko ipini dute obra horiek iragartzen dituen kartela –astelehenean ipini zuten– eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eguzteneko gobernu batzarrean jakinarazi zuten ofizialki herenugun hasi zituztela obrak. Hori bai, momentuz ez dugu mugimendu handirik igarriko inguru hartan. Oskar Rekalde Diputazioko prentsa arduradunak esandakoaren arabera, "gauza asko egin behar dira makina hondeatzialeak han lanean hasi baino lehen: garbiketa lanak, inguru markatu eta beste".

**BI URTE LEHENAGO**  
Kontuak kontu, obren hasiera ofiziala iragarri dute bi kilometroko luzera izango duen saihesti-



Mendebaleko saihestidearen obrak iragartzen dituen kartela Garagartzara bidean ipini dute, Garaia pasata.

UBANE MADERA

dea eraikitzen hasteko. Tecsa, Obras Subterráneas eta Campezo enpresek osatutako enpreza elkarretek (UTEak) egingo du obra zibila; obren zuzendaritza, berriz,

Geoconsult enpresaren esku gera- tu da. 24 hilabeteko epea zehaztu dute saihestide osoa eraikitze- ko. Aurrekontua 41 milioi euro pasatxo da.

**BI BAILARAK LOTZEA, HELBURU**  
Arrasateko mendebaleko saihestideak izango dituen elementuen artean, nagusiak hiru izango dira: Olandixoko tunela bera (860

metro luze), bi biribilgune berri eta Aramaio ibaia zeharkatzeko zubia.

Saihestidea eraiki ostean, Aretxabaletara doan errepidea zaharraren hasieratik (GI-2620) Aramaioko bailarara sartu ahal izango da, Arrasate zeharkatu barik. Hain justu, horixe da helburua: Debagoiena eta Aramaio-ko ibarrak lotzea.

## TUNELA ETA BIRIBILGUNE BI

Saihestidea Mugarriko zubiaren ondoan egingo duten biribilgune- an hasiko da, GI-627 errepidea sartzeko lotunearen parean, Are- txabaleta eta Arrasate arteko mugan. Hasierako zatia mendi- mazelaren erdialdean barrena joango da industria eraikinak gainditu ondoren; punturik garaiena ibar batzuen ondoan egongo da, eta, jarraian, behe- rantz egingo du tunelean sartuta.

Olandixoko tunelari berari dagokionez, bestelakoen artean, 860 metro luze izango da eta %2,50eko malda izango du. Horrez gainera, pertsonak sartu-irteteko galeria bat ere izango du, larrialdi kasuetarako. Bestalde, tunela- ren irteeran eraikiko dute Ara- maio ibaia zeharkatuko duen zubi berria, eta modu horretan errepidearekin bat egingo du saihesti- de berriak, Aramaiorako bidean.

**ENPLEGUA** > LAN-POLTSAK

## Argiketari, arkitekto eta obra teknikariak beharrean

Aldi baterako lanpostuak dira, Udalak lan-poltsak osatu gura ditu-eta

**U.M. > ARRASATE**

Hiru lan-poltsa osatzeko deialdia egin du Arrasateko Udalak: alde batetik, arkitekto teknikokoak behar ditu; bestetik, saneamendu eta obretako teknikariak behar ditu (arkitekto teknikoak eta ingeniarri teknikoak); eta azkenik, argiketariak (elektrizistak) behar ditu.

**HEGAZTIRIK EZ**

Dagoeneko zabaldu du lan poltsa horietan izena emateko epea. Hain justu, uztailaren 4a baino lehen (egun hori barne) egin behar da hori. Izenematea Biztanleen Arreta Zerbitzuan egin behar da.

### BALDINTZAK, ARGIKETARIAK

Argiketarien kasuan, lehen mailako lanbide heziketa edo baliokideren bat izan behar da lan-poltsara aurkezteko.

Probei dagokienez, euskara azterketa, azterketa praktikoa eta elkarrizketa egingo dizkie- te izena eman dutenei.

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

Arkitekto teknikoen kasuan,

berriz, arkitekto tekniko titu-

lula eta hirugarren hizkuntza

eskakizuna eskatuko dituzte.

Eta saneamendu eta obretako

teknikarien kasuan, arkitekto

tekniko edo ingeniarri tekniko

titulua eta hirugarren hizkun-

tzuna eskakizuna.

Azken bi lan-poltsa horiek osatzeko Udalak ez du azterketarik egingo, baizik eta oinarrizko espezifiko batzuk zehaztu ditu eta izena eman dutenen merezimenduak baloratuko dituzte.

**ZERBITZUAK** > SEXOLOGIA ETA GAZTE BULEGOA

## Uztailean kalera aterako dituzte Udal Gazte Bulegoa eta Udal Sexologia Zerbitzua

**U.M. > ARRASATE**

*Udan be bai!* izenarekin, Udal Gazte Bulegoak eta Udal Sexologia Zerbitzuak egitarau berezia prestatu dute uztailerako. Bate- lik, zerbitzuak kalera atera gura dituzte, zerbitzuak herritarrei gerturatzeko: "Uda garaian kalean egoteko joera areagotzen denez, kalea erabili gura dugu gure zerbitzuen berri emateko, eta berauetan zer aurki daitekeen aditzera emateko".

### BI ASTE BARRU, KALEAN

Uztailaren 7an, 8an eta 9an, arra- tsaldez, Garibai etxetik irten (bi

zerbitzuon egoitzatik) eta Biteri

plazan jardungo dute: batetik,

herritarrei arreta zerbitzua

eskaintzen eta, bestetik, zenbait

zerbitzu herritarren eskura ipin-

tzen: "Auto-kontsultarako orde- nagailuak, irakurgaiak, antisor- gailuen gaineko erakusketa, informazio turistikoa... Hori guz- tia, musikaz girotuta".



Grafitietarako zaletasun handia dago herrian, sanjuanetan ikusi den moduan.

I.B.

### UZTAILEKO EGUNETAN, DENETIK

Horrez gainera, egunero ekitaldi bereziak egingo dituzte: uztai- laren 3an, grafitiak, Esan eta DJ Kirrinek lagunduta; uztailaren 8an, Ain\_1 taldearen emanaldia; 10ean, bidaiatzeko aholkuak

emango ditu Mertxe Bilbao bidaia; 17an, dantza erakus- taldia egingo du Maite Albeseak eta uztailaren 24an ipuin kontaketa izango da, ipuinen balio transmisioaren gainean, Arra- sateko hainbat neskaren eskutik.

ARRASATEKO UDALA > 2008KO DIRULAGUNTZAK

# Ia 900.000 euro banatuko ditu Udalak 2008ko dirulaguntzetan

Eskerak egiteko epea zabalik dago eta, besteak beste, BAZen eska daitezke eskabide ereduak; 23 programa sartzen dira deialdi horretan

#### UBANE MADERA > ARRASATE

Aurtengo ekitaldirako dirulaguntza deialdia zabaldu du Arrasateko Udalak. Hau da, Udalak urtean ematen dituen dirulaguntza mota guztiak eskatzeko epea da zabaldu dutena. Uztaila bukatu arte aurkez daitezke eskerak. Kopuruari dagokionez, 879.320 euro dituzte aurreikusita.

#### KIROLA ETA KULTURA BULTZATZEN

Udalaren bederatzi sailek parte hartzen dute deialdi horretan, guztira 23 programak. Emandako

ko informazioaren arabera, laguntzak dira, besteak beste, "kirola eta kultura sustatzen, irakaskuntzaren kalitatea hobetzen, euskararen erabilera bultzatzen, herriaren parte-hartzea udal kudeaketan, boluntarioak sustatzen, garatu gabeko herrialdeen lankidetza proiektu solidarioak egiten, hirugarren adinekoak beren interesen kudeaketan dinamizatu eta implikatzen eta kohesio soziala sustatzen eta hobetzen" laguntzen duten elkartea, talde edo entitateendako.

#### LAGUNTZAK, SAILEZ SAIL

Zehatzagoak izanda, Euskara Sailak laguntza emango die, besteak beste, euskaltegietan euskara ikasten dabilzanei, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen dutenei eta errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz egiten duten enpresa eta komertzioei.

Gizarte Ongizate Sailak laguntzak emango ditu, adibidez, erretiratuen elkarrengabe, udal tasak ordaintzeko diru balabide urriak dituzten zergadunen-

dako, espetxeen preso dauden pertsonen senideen garraio gas-tuetarako eta gobernu kanpoko erakundeendako; eta, horren ohi-koia ez den arren, droga mende-kotasunen eta beste mendekota-sun psikologikoentzako tratamendurako dirulaguntzak emateko programa ere sartzen da orain-go deialdi honetan.

Bestalde, Gazteria Sailaren aldetik, laguntza horiek izaten dira herriko musika taldeek grabazioak egin ditzaten, aisialdiko begirale ikastaroak egiteko edo gazteen elkarrengabe.

Kirol Sailean edo Aukean, berriz, Arrasateko kirol taldeen ohiko jardueretarako eta kirol talde eta entitateek antolatzen dituzten ekintza bereziak finantzatzeko izaten dira.

Hezkuntzari dagokionez, irakaskuntza arautuan irabazi asmorik gabe dihardutenei ikastetxeen ekintza edo proiektuak eta baita ere ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarrengabe laguntzen ditu Udalak.

Eta Berdintasun edo Emakumeen Sailean, gizon eta emakumeen artean aukera berdintasunaren eremuan jardutenei ematen zaizkie laguntzok.

## Sartzen diren sailak

- > Kultura Saila
- > Euskara Saila
- > Hezkuntza Saila
- > Gizarte Ongizate Saila
- > Berdintasuneko Saila
- > Gazteria Saila
- > Ingurumen Saila
- > Enplegu Saila
- > Aukea erakunde autonomoa

## ZENBAIT BALDINTZA

Hori bai, laguntzok eskuratzeko baldintza batzuk bete beharko dituzte eskatzaileek: bat da Arrasaten egoitza eta jardun eremua izatea, nahiz eta salbuespenik ere baden: "Nahiz eta ez izan egoitza eta jardun eremua Arrasaten, Udalak interesgarritzat jotzen dituen ekintzak edo proiektuak garatzen dituzten beste entitate" batzuek ere eska ditzakete laguntzok.

Laguntzak eskatzen, eskabide eredua bete behar da. Hainbat lekutan eskura daiteke: Biztanleen Arreta Zerbitzuan, Gazteen Informazio Bulegoan, Emakume Txokoan, Musakolako Kirolegian edo Udalaren webgunean: [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org).

OBRAK > GAZTELUONDOKO PROIEKTUA

# Etxea botata, bidea libre obra egiteko

Pasabidea sortu gura dute, Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotuko dituena

#### U.M. > ARRASATE

Abade etxearen ondoko eraikina bota egin dute oraingo astean. Astehenean hasi ziren botatzen, eta martzenerako, guztiz eraitsita zegoen etxea. Argazkiko etxeaz gainera, abade etxearen ondoan zegoen beste eraikin txikitxo bat ere bota dute. Hori egiteko, egunotan itxita izan da Iturriozt kaleko goiko partea, eta Gazteluondo kalean, tarteka, itxi egin dute zirkulazioaren joan-erorria.

Hain zuzen ere, horixe da inguru horretan egin gura duten obraren aurreneko pausoak: Gazteluondo kalea eta Arrasate pasealekua lotuko dituenei espazio berria sortzea edo urbanizatzea.

Egin gura dutena da ibilgailuentako zein oinezkoendako pasabidea eraiki eta haren inguruan berdegune batzuk sortu; tartean, platzox bat. Horrez gainera, etxe bat ere eraikiko dute, Gazteluondo kalearen 3. zenbakian. Proiektu hori onartuta dago Hirigintza Sailean eta joan den asteaz geroztik jendaurrean dago, gura duenak kontsulta dezaketa eta alegazioak egin ahal izateko.

Bota duten etxeari dagokionez, berriz, oso antzinakoa zen; ugazabetako batek esandako moduan, "bazituen 300 urte-edo". Bestalde, etxe bota arren, gorde egin dute etxeak zeukan arkua eta "Leintz Gatzagara eraman dute".



BOTATZEN Astehenean hasi ziren Gazteluondoko etxea botatzen.

UBANE MADERA

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*



ILE APAINDEGIA  
Otalora Lizentziaduna 5  
Tel.: 943 79 12 74

LEHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

**AGR**

Garcia Ripa

ZAHARBERTZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:

Kale txiki 3 behea (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

## MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
  - Aglomeratuak
  - Kontratxapatuak
  - Tablexa
  - Ateak
  - Egurrezko lehoak
  - Oin-inguruak
  - Zangoak
  - Aroztegi osagarriak
- Uribarri auzoa B-2 B-3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

Andoni Azkargorta > Mondrako entrenatzailea

# "Denboraldiko helburuak jokalariekin batera erabakitzeko ohitura daukat"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Andoni Azkargorta (Antzuola, 1978)** Mondrak datorren urtean izango duen taldea osatzeko lanetan dabil buru-belerri. Antzuola lehenengo erregionalera igo eta gero urtebeteko atsedena hartzeko asmoa zuen, argi zeukan etxeoko taldean ez zuela jarraituko, eta Mondraren deiajasotakoan ezzuen birritan pentsatu. Igor Gordobilek bete duen lekua hartuko du.

Aurten urte polita egin duzue Antzuolan, kategoriaz igo zarete. Bolada on hori Mondrara ekartzeko asmoarekin?

Asmoarekin eta gogoarekin. Entrenatzaile guztion nahia izaten da lan ona egitea eta taldea lan hori egitera konprometitzea. Antzuolan bi urte hauetan izan dugun gauza positiboetako bat izan da jokalariek lanerako era-kutsi duten konpromisoa, eta gauzak ikasteko gogoa. Eta, Mondran ere gauza bera egin nahiko nuke.

**Argi zeneukan ez zenuela Antzuolan jarraitu behar.**

Bai, argi daukat bai klubaren-dako, bai jokalariendako eta baita niretako ere aldaketa positiboa dela. Bi urte egin ditut hemen, eta gutxi jokatu duten jokalariendako nik beste urtebetetan jarraitzea larregi izango litzateke. Orain beste pertsona bat etorriko da, eta denak hasiko dira zerotik.

Gainera, lasai nago taldeak ia bere osotasunean jarraitu egingo duelako. Hamar jokalarik alde egingo balute, akaso beste erabaki bat hartuko nuke, baina ez da horrela, talde polita geratzen da erregionalean jokatzeko.

Eta zero konbentzitu zaitu Mondrara etortzeko?



Lantokian jai izanda, Andoni Azkargorta Antzuolako gimnasioko lanak begiztatzen ibili da aste barruan, kirol zinegotzi lanak betetzen.

XABIER URTZELAI

Konbentzitu ezer gutxik, esan gura dudana da deia jaso nuen-ean ilusio handia egin zidala eta ez nuela dudarik izan. Antzuola usteko erabakia hartu nuenerako nahiko berandu zen, eta ez

nuen uste ordurako inork deitu-ko zidanik. Baina, Mondratik deitu eta baietz esan nien, izan ere, klubalehenagotik ere ezagu-tzen dut, eta baita jokalariek ere, bai jokaleri moduan eta baita pertsona moduan ere.

**Zeure lagun baten lekua bete-ko duzu.**

Laguna eta maisua. Bi urte egin nituen Gordobilen lagun-tzaile, eta futbolaren gainean asko ikasi nuen harekin. Eta ez bakarrik Gordobilekin, baita Juaninarekin ere. Entrenatzai-le erabat ezberdinak dira; euren ondoan egonda biek dituzten gauza positiboenak niretako hartzitut.

**"Antzuolan taldeak lanerako konpromisoa erakutsi du; hori lortu gura dut Mondran"**

**"Beheko kategoriak gertutik jarraitu gura ditut, hor daude-eta etorkizuneko jokalariak"**

**Zein izango da datorren urte-ko helburua?**

Oraindik ez ditugu helburuak ezarri. Beno, entrenatzaile eta jokaleri guztien helburua da partidu guztiek irabaztea, garbi dago hori. Nire ohitura da denboraldiko helburuak jokalariekin bate-ra ezartzea, eurekin berba egitea horren gainean. Horrekin lor-tzen dudana da jokalariok eta entrenatzaileok helburu bera iza-tea, eta denok horren alde borroka egitea.

**Zenbateraino aldatuko da preferenteko taldea?**

Taldea ez da asko aldatuko, Rubenek eta Muxi-k taldea utzi dute, Alzola Bergarara itzuli da

eta Gotzon dudan dago oraindik. Baina, orain arteko blokea ber-dina izango da, pare bat fitxake-ta egingo ditugu postu jakin batuetarako eta beheko katego-rietatik ere hainbat jokaleri igo-ko ditugu.

**Beheko taldeak gertutik jarrai-tzeko asmoa erakutsi duzu.**

Izan ere, hor daude Mondrako etorkizuneko jokalariak. Momentu konkretu baterako kanpotik norbait ekartzea ondo dago, baina jokaleri horiek joan egiten dira gero. Gainontzeko entrenatzaileekin egon gura dut, tarteka jokaleri batzuek goian joka dezaten; motibatu ere egiten dira horrela.

XAKEA > SAN JUANETAKO TXAPELKETA

## Debagoieneko selekzioak ezin izan zuen Gipuzkoako selekzio indartsuarekin

Gipuzkoako Selekzioa nazioarteko lau maisurekin azaldu zen dagoeneko ohitura bilakatu den lehiara

**x.u. > ARRASATE**  
Azken urteotako ohiturari jarrai-tuz, joan den zapatuau Debagoieneko selekzioko xakelariak eta Gipuzkoako selekziokoak izan ziren aurrez aurre, San Juanetan egiten duten txapelketan. Eta

ibarreko ordezkariek onartu moduan, aurtengo zeingehiago-kan ezer gutxi egin ahal izan dute. Gipuzkoako selekzioa Irunetik, Hondarribiatik, Pasaia-tik, Donostiatik eta Azkoitiatik etorritako puntako xakelariekin osatu zuten, eta tartean ziren nazioarteko lau maisu: Iñigo Argandoña nazioarteko maisua, Juan Ignacio Alonso eta Carlos Cruz-López FIDE maisuak eta Miriam Muñoz FIDE emakumezko maisua.

Debagoiena, berriz, honako xakelariekin ordezkatu zuten: Santi Gonzalez, Luis Ortega, Josu

Tornay, Txema Hernando, Isidro Ruiz, Roberto Villar, Eugenio de Andres, Asier Etxagibel, Javi Axpe eta Ander Ginart.

**ERRAZTASUN HANDIAREKIN**

Esan barik doa, maila horretako jokalariekin Gipuzkoako selekzioak erraz irabazi zuela lehia. Hala ere, gurekoak ahalegindu ziren kontrarioei taula bakoitzean ahalik eta zailtasun gehien jar-tzen. Hala, 12 norgehiagoketatik batean bailarakoek 5-5 egitea lortu zuten eta beste hiru partida-tan tarte oso txikiagatik galdu zuten (4-6).

ATLETISMOA > ORDIZIAKO TXAPELKETA

## Atleta gehienek ondu zituzten gutxieneko markak

**Jonathan Perez, 5,01 metroko saltoa eginda, Spainiako Txapelketan izango da**

**x.u. > ARRASATE**

Ordizian lehiatu ziren Arrasateko atleta gehienek euren mar-ka pertsonalak ondu zituzten, eta Jonathan Perezek, esaterako, Spainiako Txapelketarako txartela eskuratu zuen, 5,01 metroko jauzia eginda. Lore Marrek, berriz, 3,15 metroko

jauzia egin zuen, eta geroago eta gertuago du Maialen Axperen marka (3,25).

Iñigo Uriarrenek salto hirukoitzean kadete mailako Spainiako Txapelketarako gutxieneko marga gainditu zuen (11.64 metro), eta Oihane Urtzelaik ere bere marka ondu zuen salto hirukoitzean (10.24 metro). Atleta horiek batera, distantzia ezberdinako laster-ketetan Remi Diosdakov, Chen Yanek, Josu Revuelta, Txomin Gallastegik eta Andoni Perezek ere euren markak ondu zituzten.



# LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

MARTITZENETIK AURRERA  
**B E H E R A P E N A K**

A S T E L E H E N G O I Z E A N Z A B A L I K



**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udal Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**FAGOR** 



Danborrada ordubeteko atzerapenaz hasi zen (lehen planoan, Ainhoa Ortiz), eta ikusleen haserrea sortu zuen. IMANOL SORIANO



Errementari-dantza eta San Juan sua dira jaietako une hunkigarrienak. IMANOL SORIANO

**SANJUANAK > BALORAZIOA**

# Aurreko urteetan baino giro hobea eta parte-hartze handiagoa izan da aurten

Giro aparta izan da San Juan egunera arte; ordutik aurrera festa giroak asko egin du behera

Ino Galparsoro alkatearen hutsunea askoren gogoan egon da aurtengo San Juan jaietan

J. ZABALA/J. BEREZIARTUA > ARRASATE

Amaitu dira San Juan jaiak, eta Udalak eta Txosna batzordeak aurtengo festen balorazio oso positiboa egin dute. Parte-hartze handia izan da, oro har, ekitaldi guztietan, eta egitarauan izan diren berritisunek erantzun ona jaso dute; besteak beste, film pornografikoek bikoizketa lehiaketak. Hori bai, urtero gertatu ohi den moduan, San Juan egunera arte giro ona izan da herrian, baina ordutik aurrera festa giroak nabarmen egin du behera. Arrasatearrak oraindik herritik alde egiten dute San Juanetan, baina koadrilek jaiak indartzeko egiten duten ahalegina txalotzekoa da.

## GAUEKO GIROA, ESKASA

Astelehenean giroa bikaina izan zen, San Juan bezpera izanda. Errementari-dantzan, plaza jendez gainezka egon zen, eta amaieran Ino Galparsoro alkatea gogoratuz bideo bat jarri zuten; danborradan ere giro ona egon zen.

Martitzeneko entzierroan eta errekokortadoreen ikuskizunean plaza jendez gainezka egon zen, baita herriko plazan egin zen Dragoi Janean ere. Izadi Mondragon jaietako zinegotziaren ustez: "Nahiz eta gauean giroak pixka bat behera egin duen, aurtengo jaietan egunean zehar egon diren ikuskizun eta ekitaldien jendearen erantzuna ona izan da".



80 urtetik gorakoek merezitako omenaldia jaso zuten. Argazkian, Yolanda Perez de Arenaza zinegotziarekin. IKER BARANDIARAN

## AIPAGARRIENAK

### Ordubeteko atzerapenarekin hasi zen danborrada

Jaietan ohikoak dira ekitaldien atzerapenak, baina aurten danborrada ordubeteko atzerapenarekin hasi da. Hala, batek baino gehiagok haserrea adierazi zuen. Arrazoia musika aparailuak huts egin zuela izan zen; bada, hurrengo urterera begira neurriak hartu beharko lirateke.

### Ikuskizun ugari haur, gazte eta helduendako

San Juan jaiet iraun duten astean denetariko ikuskizunak izan dira eta guztietan parte hartza handia izan da. Haurrendako, Patxin eta Potxin eta Pirritx eta Porrotx pailazoak; gazteendako, txosnaguneko kontzertuak eta bertsoak, eta helduendako, Viva Jalisco mariatxiak eta dantzaldiak.

### Koadrilen eguna, inoiz baino jendetsuagoa

Aurten koadrilen eguna -ekainaren 23a- inoiz baino arrakastatsuagoa izan da. Iaz, esaterako, bazkari horretara 40 lagun besterik ez zen bildu eta aurten, berriz, 140 gazte izan dira gaztetxeen. Nabarmen egin du hobera. Egun osoan Arrasateko kaleetako giroa alaitu zuten.





Eguaztenean egin zen Larraín dantzara ere jende asko hurbildu zen.

IMANOL SORIANO



Makala jaso zuten koadrilek; lehen jasoaldian, jausi egin zitzaien.

IMANOL SORIANO



Txosnagunean hainbat kontzertu egon ziren; irudian, The Motherfuckers. IMANOL SORIANO



Entzierroetan ere gaupaseroek giro aparta jarri zuten.

UBANE MADERA



Meza nagusiaaren ondoren sanjuanetako aurreskua dantzatu zuten.

TXOMIN MADINA



Ramon Uribe Salgo Dragoi janerako txuletek erretzen.

IKER BARANDIARAN

### Jaiak asteburura aurreratzea

Hilaren 21ean giro aparta izan zen herrian, parte-harzte handiarekin: herri kiro-lak, kontzertuak eta ardo eta gazta-dastatzea.

### Film pornografikoen bikoizketa lehiaketa

Aurtengo berritasunetako bat; domeka arratsaldean arrasatear asko hurbildu zen gaztetxera. Hurrengo urtean berriz egingo dute.

### Makala altxatzeko larri

Susto ederra hartu zuten San Juan bezperan herriko plazan bildutakoek makala jausi zenean.

### Kaleko giroak behera azken egunetan

San Juan egunetik aurrera festa giroak behera egin du nabarmen. Hurrengo urte-rako, parrandarako gosea egun ezberdinietan banatzen ikasi behar da.



Pando  
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak  
Ibilgailuak  
Stand-ak  
Itsasgarriak  
Biniloa  
Seinaleak  
Lonak  
Erliebedun hizkiak

UGARAN  
Jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko  
hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Lorezaina Irizarreko lorategian jarritako loreei azken ukituak ematen.

OIHANA ELORTZA

**LORATEGIAK > UDABERRI-UDA SASOIKO LOREAK**

# Udako lerez apaindu dituzte berdeguneak

Lorategiez gain herriko biribilgune batzuk ere apaindu dituzte aurten lehendabiziko aldiz: Tximelakoa, Ondartzakoa eta Amillagakoa

**OIHANA ELORTZA > BERGARA**  
Udaberri-uda sasoiko loreak jarri dituzte lorezainek herriko hainbat berdegunetan. Euri asko egin duelako, bi fasetan egin behar izan dituzte lanak: maiatza bukeran lorategi batzuk apaindu zitzuten eta ekainaren bigarren hamabostaldian beste batzuk. Loreak jartzeaz gain, lorategien diseinua ere lorazainek eurek egin dute.

**LORE BERRIAK ERE BAI**

Boni Laskurainen, Santa Mariann, Usondo kanpoan, Tokiederen, Juan XXIII.ean, Irizarren, Ibargarai kalean dagoen palmondoaren ondoan eta Basalgon apaindu dituzte lorategiak. Aurten lehen aldiz, gainera, baita Tximelako, Ondartzakoa eta Amillagako biribilguneak ere.

**DATUA**  
**10**  
MOTA BAINO GEHIAGO

Hamar mota baino gehiago jarri dituzte aurten. "Egia da hemen egiten duen eguraldia muga bat dela, baina haztegietan gero eta lore mota gehiago dituzte. Lehen mota bakar batzuk baino ez zeuden, baina egun zabala goa da aukera", dio Arkaitz Tolosak.

sa lorezainak. Horrela, urtero mota berriak ekartzen saiatzen dira eta aurten hiru mota berri ekarri dituzte. "Loreetan ere modak egoten dira batzuetan eta mota batzuk pasa eta berriak agertzen dira. Antenis, sanvitalia eta phestemon dira aurten ekarri ditugunak", zehaztu du Tolosak. Jatorriari buruz, lore mota asko Landetatik ekartzen dituzte.

**URTEAN BI ALDIZ**  
Urtean bi aldiz aldatzen dituzte herriko lorategietako loreak. Udaberri-uda sasoikoak maiatza eta ekainean jartzen dituzte eta udazken-negukoak, urria-azaroa bitartean. "Neguko loorekin batera zuhaitzak ere landatzen ditugu, orduantxe da horretarako sasoi egokiena eta", dio Arkaitz Tolosak. Bitartean, lorategiak txukun egoteko mantenu lanak egiten jarraituko dute, "txakurraren eta herriar batzuen errespetu faltak sortzen dituzten kalteak ere konponduz", dio Tolosak.

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak  
Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**JENDARTEA > 'GEUREA IKURRIÑA' EKIMENA**

## Aurkeztu dute ikurriña "babesteko" ekimena

Euskal Herriko ehun bat elkartek babestu dute sarean dagoen adierazpena

J. Z. &gt; BERGARA

Bai Euskal Herriari ekimeneko kideek agerraldia egin zuten eguztenean kultura etxean.

"Espainiako estatua ikurriñaren aurka egiten ari den era-soak" salatu zituzten. Hala, ekimeneko bozeramale Iker Dorronsorok adierazi zuen, "euskal ikurren desitxuratzea

edota ikur arrotzen inposizioa" erabiliz, Euskal Herria "desagerrarazi" nahi dela. Horrez gain, "euskal instituzioak gobernatzen dituztenek banderak ezartzeko" laguntza eman iza na kritikatu du herri ekimenak.

**SAN MARTZIALETAN KAMISETAK**

Hau guztia "salatzeko" eta "geurea ikurriña" dela aldarrikatzea, [www.geureikurriña.org](http://www.geureikurriña.org) webgunea abian da. Horrek batera, datorren uztailaren 6an ospatuko den San Martzialeko erromerian kamisetak ipiniko dituzte salgai, bertako zelaietan.



Bai Euskal Herriari ekimenekoak, eguzteneko aurkezpenean.

NEREA MENOR

## &gt; MERKATARITZA

## Saiatuz taldeak hirugarren munduko produktuak salduko ditu Santa Marina elizako arkuean

Saiatuz taldeak, hirugarren munduko produktuak saltzeko postuak jarriko ditu Santa Marinako arkuean irailetik aurrera. Hileko bigarren zapatuan jarriko dute aurtengo irailetik hurrengo ekaina bitartean. Postu horietan bidezko merkataritzako produktuak salduko dituzte. Saiatuz taldean, Bergara, Arrasate, Legorreta, Donostia eta Irungo parrokietako jendea dago.

## &gt; UDALEKUAK

## Xipizaro ludotekak antolatutako udalekuak astelehenean hasiko dira, uztailaren 24a arte

Aurtengo udan, Xipizarok antolatu dituen udalekuetara 300 ume apuntatu dira, eta asteleheneetik aurrera ekintza piloa egiteko aukera izango dute, Martinez Irala eta Ipintza institutuko guneetan. Umeekin batera, 30 begirale egongo dira. Bi taldetan banatuta daude; hala, bi urteko umeak 10:30etik 12:30era egongo dira, eta Haur Hezkuntzako lehen mailatik DBHko bigarren mailara artekoak, 10:00etatik 13:00etara.

**SANTOS**



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**


Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

ASMAKUNTZA > PATENTATZEKO BIDEAN

# Motozerrak arrankatzeko asmatu du Enrike Brunetek

Asmakuntza horrekin,  
90 cc arteko  
motozerrak  
automatikoki arranka  
daitezke, eskuz egin  
ordez; asmakuntza  
patentatu egin gura du

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Motozerrak eskuz arrankatu  
beharrean, esfortzurik gabe eta  
modu errazean arrankatzeko  
modua asmatu du Enrike Brunetek.  
Asmakuntza patentatu egin gura du



Labegaraietan duen tailerrean egin ditu proba guztiak Enrike Brunetek.

OIHANA ELORTZA

MOTOZERRA HANDIAK ERE BAI  
Enrike Brunetek 29 urte darama-  
tza motozerrak konpontzen, eta  
besoa mindu egin zaio horrenbes-  
te aldiz arrankatzeagatik. Azken  
bi hilabeteetan motozerrak  
arrankatzeko modu errazagoa  
gauzatzen ibili da. "Sistema pneu-  
matikoa da, pistoi azkarrak era-

bili ditut eta metro erdiko distan-  
tzia utzi dut arrankerako", azal-  
du du Enrike Brunetek. "90 cc  
arteko motozerrak arrankaten

ditu. Horiek profesionalak dira;  
baserritarrek, normalean, 36koa  
erabiltzen dute", jarraitu du Bru-  
netek.

Asmakuntza patentatu egin  
gura du berigarar horrek, eta  
dagoeneko hasi da horretarako  
bidea egiten.

EPAIKETA

## Zortzi urteko espetxe zigorra 'Bixkai'-ri

O.E. > BERGARA  
Zortzi urte arteko espetxe  
zigorra ezarri diote Iñaki  
Arietaleanizbeaskoa *Bixkai*  
presa bergararrari. Ekaina-  
ren 19an epaitu zuten *Bixkai*  
Parisko epaitegi batean, ETA-  
koia izatea egotzita, eta zigor  
horixe ezarri zion epaileak.  
Harekin batera beste bi lagun  
ere epaitu zituzten, Maite  
Aranalde eta Haimar Altuna.  
Bi horiei seina urteko zigorra  
ezarri zien epaileak. *Bixkai*-  
ren senide eta lagunak epai-  
ketan izan ziren. Hiru auzi-  
petuak 2005eko martxoan  
atxilotu zituzten Cap d'Ag-  
den, Frantzia hegoaldean.  
Ordutik hona Parisko Osny  
espetxeen dago bergararra.

Askatasunak ohar baten  
adierazi du tentsio giroan iga-  
ro zela epaiketa, auzipetuek  
ez zutelako epaitegia onartu.  
Epaileak bertan egotera  
behartu zituen eta, fiskalak  
hitza hartu zuenean, hiru  
auzipetuek *Eusko Gudariak*  
kantatzen hasi ziren. Epaite-  
gitik bota zituzten orduan.

DANTZA > EUSKAL HERRIKO DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA

## Mikel Igartua: "Oso pozik gaude Segurako bigarren postuarekin"

Bilboko eta Zumarragako txapelketetan lehiatuko  
dira Ibane Baseta eta Mikel Igartua asteburuan

O.E. > BERGARA  
Mikel Igartua eta Ibane Baseta  
bigarren sailkatu dira joan den  
domekan, hilaren 22an, Seguran  
egindako Euskal Herriko dantza  
askatuko txapelketan. "Txapelke-  
ta garrantzitsua da, maila handia  
egoten da eta pozik gaude lortuta-  
koarekin", dio Mikel Igartua.  
Hernanin ere bigarren egin dute.

Segurako txapelketara 10 bikote-  
aurkezta ziren, eta Bergarakoa  
bigarren sailkatu zen. Besteak  
beste, erritmoa, pausoak eta biko-  
tearen koordinazioa izan zituen  
kontuan epaimahaia. Bergarako-  
endako zailena gerritik gorakoa  
lantza da. "Pausoek ere badute  
euren zailtasuna, ze pauso egin eta  
zein ez. Baina zailena gerritik

gorakoa da, gorputza tente man-  
tentzea eta eskuak goian", dio  
Ibane Basetak.

Mikel Igartua eta Ibane Baseta  
Abarka dantza taldeko kideak  
dira eta Juancho Urbietaren gida-  
ritzapean entseatzentz dute. Hala  
ere, gurasoen laguntza benetan  
garrantzitsua izan zaiela onartu  
dute. Biek dantzan eta bikote  
moduan jarraitzen asmoa dute,  
txapelketetan parte hartuz. Zapatu-  
tu Bilbon lehiatuko dira eta  
domekan, Zumarragan.



Baseta eta Igartua, Segurako lortutako sariekin.

GOIENKARIA


**BERGARA**  
*Margoak*

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com



**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA



1929az gerotzik zure zerbitzura

Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

Bihotz Bakartien Klubeko kideak *Katamalo* ikuskizunarekin, berriki egindako emanaldi batean.

GOIENKARIA

**IKUSKIZUNA > BIHOTZ BAKARTIEN KLUBA**

# Poesia eta musika batera, Bihotz Bakartien Klubean

Bihotz Bakartien Klubak 'Katamalo' azken ikuskizuna aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Espoloiko kioskoan, 19:30ean

**ENEKO AZKARATE > BERGARA**  
Poesiak eta musikak bat egingo dute gaur Espoloian. Izan ere, *Katamalo* ikuskizuna eskainiko du Bihotz Bakartien Klubak, 19:30ean hasita, Espoloiko kioskoan. Jardun euskara elkarrean antolatu du Kultur Errota egitasmoaren barruan.

Bihotz Bakartien Kluba talde literarioak prestatu duen ikuskizun berria da *Katamalo*. Berrian, poesia eta musika eskutik doaz. Poemak kantu bihurtu eta hausnarketa bultzatu nahi dute. *Katamaloa* esaten diogu euskaldunok gure aurpegia beste aurpegi bat bihurtzeko erabiltzen dugunari. Hala, zera diote Bihotz Bakartien Klubekoek: "Ez garena azaldu beharraz, itxurakerraz, hipokrisiaz, sakon maitatzeko beldurraz, zoriontsuak izan ezinaz, lotsaz, harrokeriaz, bene-

tan garena onartu nahi ezaz idatzi ditugu poemak eta kantuak. Barre egingo diogu geure buruari eta albokoari, triste ipinikogara ispiatuaren aurrean eta harrobezain pozarren biluztuko gara".

**MUSIKARI EZAGUNAK**

*Katamalo* ikuskizunean parte hartzen dute honakoek: Gorka Urbizu (Berri Txarrak), ahotsa eta gitarra; Nerea Urbizu (Itzalak), ahotsa, teklatuak eta kajoia; Jon Piris (Ruper Ordorika), kontrabaixua; Aintzina Lekue, biolina; Alex Arregi, ahotsa eta gitarra; eta Gorka Mugartza, soinua. Gotzon Barandiaranen poemetan oinarrituta, eta haren gidaritzapean.

MIZPILDI  
OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**MUSIKA ETA ZINEMA > UDAKO EMANALDIAK**

## Uztaileko egubakoitzetan, zuzeneko musika Espoloian

Abuztuan, bestalde, film bat emango dute eguenero, San Martin plazan

**E.A. > BERGARA**  
Aurten ere, azken urteetan ohi-ko den moduan, musika kontzertuak antolatuko dituzte uztaileko egubakoitzetarako Espoloian. Jazza, soula, funkya, flamenko, elektronikoa... entzun ahal izango dira. Uztaileko lau egubakoitzetan egongo da talde bat. Hala, uztailaren 4an Phonk Clubbin Criminals talde gasteiztarra izango da. Nando de la Casaren taldeak doinu elektroniko dantzagariak ekarriko ditzkigu. Uztailaren 11n, berriaz,

J.J. Band etorriko zaigu Madril-dik. Nu-jazz eta flamenko doinuak ekarriko ditzkigu. 18an, Jose Luis Pardo musikari ezaguna eta bere The Mojo Workers izango ditugu, eta amaitzeko, 25ean, Terela Gradiñ eta G.E.M Trio, galiziarrak. Emanaldi guztiek, 22:30ean hasita.

**FILMAK IZARPEAN**

Uda sasoiko beste klasiko bat dira San Martin plazako aire zabaleko zinema emanaldiak. Abuztuko eguznetan, 22:00etan, lau film ikusteko aukera izango da. Hauak botako dituzte aurten: 8an, *Un puente hacia Terebitia* (gaztelaniaz); 16an, *Donkey Xote* (euskaraz); 22an, *La búsqueda* (gaztelaniaz), eta 29an, *The horror bus* (euskaraz).

**> MUSIKA**

## Orkestra Sinfonikoak eta Udal Musika Bandak kontzertu bana eskainiko dute gaur eta domekan

Orkestra Sinfonikoak eta Udal Musika Bandak kontzertu bana emango dute asteburuan. Orkestra Sinfonikoak gaur, egubakoitzat, 20:00etan, San Pedro elizan. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren gidaritzapean, hauxe da emanaldirako prestatu duten egitaraua: *Tanhauser*, martxa handia, R. Wagner-ena; *Iphigenie in aulis*, overture, C. W. Gluck-ena; *Valse triste*, J. Sibeliusena; *Elisabeth*, musikala, Kunze-Levay-ena; eta *The Last of the Mohicans*, soinu banda, Jones-Edelman-ena, Gonzalez Chirlaquek moldatua.

Bestalde, domekan, San Pedro eguna, 12:30ean Espoloian Udal Musika Bandaren emanaldia izango da. Hauxe izango da egitaraua: *Lagartijilla*, pasodoblea, J. Martinena; *Algona overture*, J. V. der Roost-ena; *Raquel*, bals errromantikoa, Miguel Gonzalez Bastida-rena; *San Martzial*, euskal estanpak, hura ere Miguel Gonzalez Basidarena, eta *American beauties*, N. Iwairena. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean. 11:30ean kalejira egingo du bandak.

## EDEL TAPIZ DENDA

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundieta*

**Alfonbrak, kordinak, kordinoiak, koltxak, edredoiaik, etab.**


Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizenzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu motorraren azterketa teorikoa **16 urte bete aurretik!**  
Eta autoarena **18 urte bete aurretik!**

**943 76 16 63 BERGARA**



**ARRAÑAGA**  
AUTODESKOLA

**Zure nahiak eta ahalmenak gertutik landu eta garatu nahi dituzu ?**

**Etorkizunerako prestakuntza egunerautua jaso nahi duzu ?**

**Bi urte barru zure inguruko enpresa batean lan egin nahi duzu ?**

*Bidal ezazu SMSa imaltuna hitzarekin 5533ra eta hori egia bihurtzeko informazio guztia zure mugikorrean izango duzu.*

**MATRIKULA DATA:**  
**Ekainaren 30etik uztailaren 4ra.**

**GLHBI Miguel Altuna**  
**Ibargarai, 1. 20570 Bergara**  
**Tfnoa.: 943 76 38 40/943 76 24 91**  
**www.imaltuna.com**  
**e-mail: imaltuna@sarenet.es**

HEZKUNTZA, UNIVERSITATEA ETA IKERKETA SAREAREN DEPARTAMENTO DE EDUCACION UNIVERSIDADES E INVESTIGACIONES

EXCELENCIA  
CERTIFICADA

AENOR  
CERTIFICADO  
RE-05201990

CERTIFIED  
QUALITY SYSTEM  
INVESTOR IN PEOPLE

**AZPEITXI**  
**Jatetxea**

- Oilaskoa
- Paella
- Gisatua
- Entsalada errusiarrak
- Patata-tortilla
- Erredondoia saltsan

Arenerreka 13 • 943 76 55 00

**ATXEGA ARDOAK S.L.**  
**LOPEZ OJEDA**

- Mahaiko ardoa: Lopez Ojeda
- Errioxakoak: Señorio de Ojeda, Tinto Covila eta Luis Cañas
- Nafarroakoak: Castillo de Ojeda
- Ondua: Marques del Puerto, Luis Cañas eta Labarca
- Rueda Cerrosol eta Pampano
- Txakolina: Santarba
- Sagardoa: Bere-Aran
- Ura: Alzola

Amillaga 25 • 943 76 27 76 / 38 52

**Raizabal**  
**Gozategia**

- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Tarta bereziak

Artekalea 9 • 943 76 11 83  
Bidekutzeta 20 • 943 76 12 19

**ETXAGI**  
**JATETXEA**

- Patata-tortilak
- Oilaskoak
- Bildotsa saltsan
- 14:30ean bazkaria bertara eramango dugu

Masterreka 8 • 943 76 53 12

**Mujika**  
**gozategia**

- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako natazko eta marrubizko izozkiak

Artekalea 3 • 943 76 10 34

**San Martzialetan  
zure zerbitzura**

**SASKIBALOIA > BERGARA KE-KO SAILAREN ESKUTIK SASKIBALOI FESTA**

# Hirunako saskibaloi txapelketa izango da hilaren 12an eta 13an

Debagoinen eta Euskal Herri osoko taldeak batu nahi dituzte antolatzaleek

Partiduak San Martin plazan jokatuko dira; izenematea uztailaren 5era arte zabalik

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Bergara KEko saskibaloi sailak hirunako txapelketa antolatu du uztailaren 12 eta 13rako. Saskibaloien inguruan festa bat egingo da antolatzileen asmoa, eta horrela, adin askotariko jokalariak, mutilak zein neskak, batu nahi dituzte. Alebin, infantil eta kadete mailetako txapelketa Antzuola, Elgeta eta Bergarako jokalariei zuzenduta dago; junior eta senior mailetan Debagoieneko jokalariek parte hartu ahal izango dute eta, azkenik, Elite



Bergara KEko saskibaloi saileko taldeak. Uztaleko bigarren asteburuan saskibaloi festa egin nahi dute.

BERGARAKO SASKIBALOI SAILA

Euskal Herria mailan Euskal Herri osoko taldeak lehiatza da helburua. Sari bikainak egongo dira maila bakoitzeko irabazle-

entzat. Partiduak Bergarako San Martin plazan egokitutako kanptetan jokatuko dira. Zapatuan, hilaren 12an, senior eta junior

mailetakoak eta domekan gainerakoak. Izenematea uztailaren 5era arte dago zabalik: [www.saskibaloia-bergara.spaces.live.com](http://www.saskibaloia-bergara.spaces.live.com).

**TXIRRINDULARITZA > GAZTE MAILA**

## Lokatzako bi lagun Gipuzkoako Itzulian

Xabier Arantzeta eta Unai Martinez gazteak Viveros San Anton taldearekin lehiatu dira

**E.M. > BERGARA**  
Sumofic-Lokatza taldeko Unai Martinezek eta Xabier Arantzeak parte hartu zuten aurreko asteburuan gazte mailako Gipuzkoako Txirrindulari Itzulian. Zumaiako Viveros San Anton taldearekin lehiatu ziren biak. Arantza antzuolarrak lan bikaina egin zuen Gorka Olaizola tal-

dekideari lagunduz: Olaizola bosgarren tokian sailkatu zen azken sailkapenean. Lehen urtea du gazte mailan Arantzetak eta itzulia bukatzea zen haren helburu nagusia. Unai Martinizi, aldi, oso gogorra egin zitzaion Gipuzkoako Itzulia. Lehen egunean kronoigoera izan zuten Anoetan eta jarraian beste hiru etapa.



Xabier Arantzetak gogor borrokatu zuen Gipuzkoako Itzulian. LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

**> ARETO FUTBOLA**  
**San Martzialeko areto futbol txapelketako bilera gaur**

BTLS kirol eolkartea 24 orduko areto futbol txapelketa iragarri du San Martzial jaietarako; uztailaren 4an eta 5ean jokatuko da txapelketa, Udal Pilotalekuaren.

Hasiera baten bihar, zapatua, egin beharreko bilera gaurko aurreratu dute. Horrela, talde bakoitzeko ardura-dunekin bilera egingo dute Agorrosin Ekintza Gunean gaur, 20:00etan. Bertara era man beharko da izenemateko diru-kopurua (80 euro taldeko). Txapelketa 16 urteko gorakoei zuzenduta dago

**> BATZARRA**  
**Bergara KEko urteko batzarra egingo du uztailaren 4an**

Bergara Kirol Elkarteak urteko batzarra egingo du datoren egubakoitzean, uztailaren 4an. Urteko kirol balantzea eta ekonomia kontuak izango dituzte aztergai, bestetako beste. Era berean, datoren urteko kuoten eta helburuen gainean berba egingo du Pedro Rico elkarteko presidenteak.

Batzarrerako lehen deialdia 19:00etan da eta bigarrena 19:30ean, kultura etxearen, Bazkideei bertara joateko deia egiten zaie.

**> TXIRRINDULARITZA**  
**Txirrinduzaleak Hondarribiara uztailaren 19an**

Bergarako txirrinduzaleek Hondarribiara irteera egingo dute datorren uztailaren 19an. Aipatutako egunean 07:00etan aterako dira San Martin plazatik, eta 120 kilometro inguru ibilbidea egingo dute (itzulera autobusean izango da, 18:00 aldera). Bazkaria Hondarribia inguruko sagardotegi batengatik egingo dute.

Izenematea i2 eta Igartua dendetan egin daiteke, uztailaren 12ra arte. Argibideak, bertan.

Mariaje  
1958ko ekainaren 6a - 2007ko ekainaren 30a

*ilargitik ihintza  
gaua edertzeko  
gorputza lasai...  
...eta espiritu bare*

Koadrilakoak



## bergararrak kanpoan

Amaia Arrieta > Dendaria  
Londresen bizi da

# "Ingelesak baino gehiago, italiarrak edo alemanak daude"


NEREA MENOR > BERGARA  
21 urterekin hasi zen Amaia bidaia-tzen. Inglaterra eta Paris artean osatu zituen ikasketak eta lanean ere beti ibili da atzerrian. Orain, bi seme-alaba ditu, senar frantsesa, lagun mordo bat eta bizimodu osatua Inglaterrako hiriburuan. Hala ere, guztiz finkatuta ez dagoela dio: "Beharbada Parisera joango gara egunen batean, baina nork daki!".

Chelsea auzoan bizi da, eta ber- tan egotea gustatzen zaio. "Hiri erdian bizi arren, frantsesak, ale- manak, italiarrak eta amerika- rrak daude inglesak baino gehia-

go. Jende asko ezagutzen dut eta, inork ez duenez familiarik hemen, lagunekin dugun harremana oso estua da".

Banku batean lan egiten hasi zen, baina haurdun gelditu zenean, lan "estresagarrir" hori laga eta denda bat ireki zuen. Inguru- ko herri eta estatu asko bisitatu

**"Londrestik gehien gustatzen zaidan lekua Tate Modern museoaren eta London Eyeren artean dagoen malekoia da"**



Amaia Arrieta.

ditu bergararrak, eta aisialdian umeekin egoten da, parkera joaten da, erakusketetara edo zinemara. "Hiriburutik gehien gustatzen zaidan lekua Tate Modern museoaren eta London Eyeren artean dagoen malekoia da". Betidanik entzun dugu Londres oso hiri euritsua dela, eta Amaia baieztu egiten du: "Udaberrian euri asko egiten du eta hotz han- dia dago".

### ELIKADURA ZAINZEN

Lagunak eta familia sarri joaten dira bisitan; hala ere, hemengo giroa eta, batez ere, familiaren falta sumatzen ditu Amaia: "Janak ez dauka garrantzi handirik Londresen; ez dago mahai inguruaren familiarekin egoteko ohiturak". Hemen erosten ditugun jaki asko han ere badaudela dio Amaia: "Txorizo panplona, Nocilla, Jabugo urdaiazpikoa... nahi dudan guztia aurki dezaketa. Gu japo- niar jatetxeetara, indiarretara, frantzesetara eta beste hainbatetara joaten gara sarritan".

## bere ustez



Aitziber Azkondo

Herri giroa  
pizteko  
saiakerak

Duela aste batzuk ospatu eta gozatu genuen Mundumira festa hizpide hartuta. Herrian denbora joan da horrenbeste jende elkartu- ta ikusten ez genuenetik. "Mendekoste jaietan ere, ez dugu horrelako jende multzoa ger- turatzerik izan", izan zen San Martin plazako kontzertuetan entzundakoak eta gero atera genuen titularra. Kultur aniza- tasunak erakartzen omen gaitu, edo beharbada, behin herrian zerbait erakargarria antolatu dela ikustean, kale gogoa piztu zaigu guztioi eta

## hau be badaukogu



KRISTINA SORIANO

**"Jendea erakarri- zgero, kale giroa sortzen da eta kale giroak herria pizten du zentzu guztieta"**

## Etorkinentzako, hemengo sukaldaritz ikastaroa KutxaZabal Deba-UNEDen eskutik

Aurreko astean Arrasateko Kutxa-Zeharon izena eman zutenek sukaldaritzako ikastaroa jaso zuten Kutxa-Zabal Deba-UNEDen eskutik. Ika- gaiak zati teorikoa eta zati praktikoa izan zuen eta, etorkinentzako izanda, hemengo errezeta tipikoak landu zituzten: porru- patatak eta legatza saltsan, adi- bidez. Argazkian, bildu ziren 11 ika- leak agertzen dira eta, haien- kin batera, Ramona Arribas, ikastaro- ko irakaslea; Kristina Soriano, KutxaZabal Deba-UNEDeko ardu- raduna; eta Enara Agirre, enple- gu teknikaria. "Oso ondo irten zen ikastaroa eta ika- leak gustura gel- ditu ziren", dio Kristina Sorianok.

egitaraua aitzakia izan da? Egia da inguruko herrietatik gerturatutako ugari bildu zela, baina egia da, baita ere, aspal- dian elkar ikusten ez genuen herriar asko kalean zebilela. Bat edo beste, jendea biltzeko gai diren ekitaldiek herri giro- an duten garrantzia azpima- rratu nahi dut. Jendea erakarri- zgero, kale giroa sortzen da eta kale giroak herria pizten du zentzu guztieta, eta gurea giro aldetik eskas dabil. Horre- gatik eskertu, eta ondo disei- natutako ekimenak bultzatze- aren alde agertu nahi nuke. Eraginak ezagututa, eta aspal- ditik datorren bolada aldake- ta beharrean dagoela irudi- tuz, zutabearen asmoa, agin- tarien agendako lehentasunen artean jartzeko proposamena egitea da.

# Kayak Taberna Abuztuan eguneko menua

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitardekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

# Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko ekainaren 27a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA / Arduraduna: Iker Barandiaran / Maketazioa: Oxel Arrieta / Publizitatea: Itsaso Berezibar



ARGAZKIA: GOIENKARIA

fagoredlerlantaldea

Zorionak eskoriatzar guztioi!

EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza, 27

**19:00** Eusko labeldun txahal pintxoentz dastatzea.  
**18:00etik 22:00etara** Hainbat musika talderen kontzertuak herriko zenbait tabernetan.  
**23:00** THE BEATLES taldearen munduko imitatzale onenetariko den Abbey Road taldearen kontzertua herriko plazan.



HERRI BAZKARIA.

## Zapatua, 28

**11:00** Umeendako MARGO LEHIAKETA herriko plazan.  
**13:00** Buruhaundi eta txistulariekin KALEJIRA.  
**13:45** Margo lehiaketaren SARI BANAKETA plazan.  
**17:00** V. Kontzejupe PILOTA txapelketa.  
**18:30** LOS ESTRANBOTICOSEN Kataplum plazan.  
**19:30** Parrokiako abesbatzarekin Salvea elizan.  
**20:00** Lisker taldearekin DANTZALDIA plazan.  
**22:30** Nagusien danborrada.  
**00:00** Dantzaldia plazan Lisker taldearekin.

## Domeka 29

**09:00** Txistulariekin kalejira.  
**11:40** Elizbira.  
**11:55** Udal ordezkariek San Pedro elizara.  
**12:00** MEZA nagusia San Pedro elizan.  
**12:00** Irrati kontrol bidezko AUTO ERAKUSTALDIA Santa Marina plazan.  
**13:15** Musika Eskolako Bandaren kontzertua plazan.  
**18:30** PILOTA partiduak pilotalekuaren: Titin eta Laskurain Xala eta Barriolarek kontra; eta Larrade

eta Arizmendi Ongai eta Arrutiren kontra.

**18:30** Hortzmuga taldearen 12K antzezlanan.  
**20:00** Animaliekin jokoak Santa Marina plazan.  
**20:00** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia plazan.  
**23:00** Piroteknia Zaragozanarekin suzko erruberak.  
**23:15** Greziako Tesaloniki Likio Ellinidion DANTZA taldearen ekitaldia Gorosarri plazan.  
**00:00** JOSELU ANAIKEKIN dantzaldia plazan.



KANTU LEHIAKETA.

## Astelehena 30

**12:00** TXAN MAGOA Gorosarri plazan.  
**12:00** Herriko hildakoen aldeko MEZA.  
**13:00** VOCES NAVARRAS herriko plazan.  
**16:30** XVII. MUS txapelketa Gernika plazan.  
**18:30** Haurren danborrada.  
**20:00** Samu Crew BREAK DANCE taldea eta Aritz Sound System Djaren ikuskizuna Santa Marinan.  
**23:00** GOLDEN APPLE QUARTET Gorosarri plazan.  
**00:00** Herriko ROCK taldeek abesti ezagunen BERTSIOAK egingo dituzte plazan.

## Martitzena 1

**12:30** Talogileak eta SAGARDO kupelak plazan.  
**13:00-21:00** Kart autoak Santa Marinan.  
**14:30** HERRI BAZKARIA Gorosarri plazan.  
**18:30** San Pedrotako II. KANTU TXAPELKETA.  
**19:30** PRESO eta ERREFUXIATUEN aldeko kalejira.  
**20:00** Dantzaldia IMUNTZO ETA BELOKIrekin.  
**00:00** Bandera jaitsiera.

"Xarma handiko Hotela  
Deba Goieneko industriaren bihotzean."

www.hotelazkoagaenea.com

★★★ HOTELA JATETXEA

AZKOAGA  
ENEA


Gaztañadui, 4 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 45 66 • Faxa: 943 71 45 69

*Mendraka*  
Bizkaiko Txakolina.

Ondo ibili danok  
San Pedrotan!!!

**Hemen**  
GARBIKETAK

DISTIRA PROFESIONALA



Ondo pasa  
San Pedrotan!

Intxaurtxueta\_16\_beheia  
20540\_Eskoriatza\_Gipuzkoa  
T\_943 71 48 45  
F\_943 71 30 58  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)



KART AUTOAK

# Adingabeak lau gurpilen gainean San Pedro jaietan

Adin guztiako jendearentzat kart autoak jarriko dituzte aurten ere herriaren erdialdean

NEREA MENOR

**Uztailaren 1ean**  
**Santa Marina plazan**  
**egongo dira autoak**  
**13:00etatik 14:00ak**  
**arte eta 17:00etatik**  
**21:00ak arte. 7 urte**  
**baino gehiagoko**  
**umeek parte hartu**  
**ahal izango dute.**

**P**lazaren aukera guztiak aprobetxatuz pista handia geldituko da. Iaz 11-12 urtetik aurrerako umeek gidatu zitzuten kart autoak, baina aurten 7 urteraino jaitsiko da adin minimoa. Erabateko erantzuna izaten duen ekintza da eta aurten aurreko urtean baino jende gehiago espero dute: "Iaz, Olaeta plazan egin genuen, herri irteeran, eta arrakasta ikaragarria eduki zuten. Aurten, herri erdian dago, doako da eta adin txikiagoko umeek ere parte hartu ahal izango dutenez, jende gehiago espero da", diote Kultura Zerbitzutik. "Ume gaztetxoek gurasoekin

joango dira, eta Olaetaraino heltzea ez da erraza guztientzako".

Gabonetako parkeetan eta antzerako ekitaldieta gaztetxoeak askotan eskatu izan dituzte kart autoak. Gabon aldean, eguraldia dela eta, ezin izan dute inoiz antolatu, baina San Pedro jaietan garai egokia dela deritzote Udalean. Euria eginez gero, atertzen duenean martxan jarriko dira autoak: "Gasolinazkoak izanik, ezin ditugu leku itxian sartu".

Puzgarriak jarriko dituzte pistaren ertzetan, umeek kaskoa eramango dute eta begirale bat egingo da.

**Plazaren  
aukera guztiak  
aprobetxatuz,  
ahal duten  
guztia  
handituko dute  
zirkuitua**



Arrakasta ikaragarria izaten dute auto horiek.

Santa Marina plaza

**Martitzena  
13:00-21:00**

Eguerditik arratsaldera arte egongo dira kart autoak, eta doakoa izango da.

## **Basurdea, poneyak eta oilarrak**

Gorriti ekainaren 29an egongo da Eskoriatzako jaietan. Kart autoak jaso ondoren, lekua egingo da Santa Marina plazan, eta 20:00etan animaliaz beteko da. Urtero bezala, poneyak ekarriko ditu, eta pare bat oilar ere. Horiekin batera, basurdekume bat egongo da plazan; Gorritik olioaz bustiko du animalia eta gero askatu, umeek harrapa dezaten.

"Ia jai guztiak  
egoten diren arren,  
Gorritiren animaliek  
arrakasta izugarria  
lortzen dute beti", dio  
Kultura Zerbitzuak.  
Herriko gaztetxo  
gehienak animaliengana  
gerturatzen dira urtero-  
urtero eta beti primeran  
pasatzen dute.



## **Eraikuntzak Obra Publikoak Kontrata Orokorra**

**Ondo pasa San Pedro jaiak!**

Gaztainadui 15, behe • 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

Yadie industrialdea 14. pab. • Legutiano (Araba)


e-posta: razkin@teleline.es www.construccionesrazkin.com

Tel.: 943 71 49 47 • Faxa: 943 71 31 63



Gaztainadui 21 ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 53 87

*Karmanta*  
Josunek eta Maitek  
San Pedro zoriontsuak  
opa dizkizuete!



## PILOTA

# Puntako pilotariak San Pedro egunean

**Sarrerak aldez aurretik Zarauztarra tabernan daude salgai 20 eurotan**

## ARANTZAZU EZKIBEL

**Domekan, San Pedro egunean izango dira partiduak; 18:30ean hasiko dira pilotalekuak**

**B**uruz buruko txapeldunordea, Barriola, eta Titin III. aurrez aurre ikusko aukera egongo da Eskoriatzako jaietan.

Azken urteetan ohitura bilakatu da profesional mailako partiduak antolatzea jaietan; aurten, profesionalak, eta, gainera, punta-puntan dauden pilotariek jokatuko dute San Pedro egunean. Partidua ez da edonolakoa izango: Titin III. eta Laskurain Xala eta Barriolareneko aurka. "Pilotari onak dira, maila ona ematen ari direnak; nik uste dut zaleak



Barriola, buruz buruko txapeldunordea, Eskoriatzan izango da domekan.

GOIENKARIA

animatuko direla frontoira etortzen", dio Joseba Iñurritegi Pilotaren saileko arduradunak.

**BI PARTIDU**

Partidu nagusiaren aurretik, bigarren mailako pilo-

tarieki jokatuko dute Eskoriatzan: Larralde eta Arizmendi, Ongay eta Arruteren aurka. "Ongay bigarren mailara iritsi berri den pilotaria da; eta Arizmendi eta Arruti, joko asko ematen duten atzelariak

dira", azaldu du Iñurrategik. Partidu hori 18:30ean izango da, eta profesionalena, ondoren.

**SARRERAK AURREZ SALGAI**

Partiduak Eskoriatzako pilotalekuak izango dira.

Txarteldegia partidua hasi baino ordubete lehenago irekiko dute. Baina, sarrerak aldez aurretik daude salgai Zarauztarra tabernan, 20 eurotan. Gura duenak, hortaz, partidu bikaina ikusiko du domekan.

**Maulanda  
merenderoa**

Gora  
San Pedroak!

Maulanda auzoa ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



Zure irribarrerik  
disdiratsuena  
ordu betean!

# BEYOND WhiteSpa

Ezagutzen duzu hortz-fotozuritzea?



Lehen



Orain



Azkarragoa • Ziurragoa  
Eraginkorragoa • Errazagoa



# EDURNE

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTROA

Ondo pasa jaiak!

ESKORIATZA  
943 71 51 54

A ALZA

Aingeru ibiltokia 3 ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 41 31 / 943 71 42 56  
Faxa: 943 71 43 87  
[www.alza.es](http://www.alza.es)

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontziak

Ondo ibili  
San Pedrotan!



## KONTZERTUA

# Umore gaua astelehenean Golden Apple Quartetekin

Laukote donostiarra Gorosarri plazan izango da 23:00etan

MIRIAN BITERI

**Aurtengo jaietako  
astelehenean azken  
ikuskizuna aurkeztuko  
du Golden Apple  
Quartet laukoteak.  
Kontzertua Gorosarri  
plazan izango da  
23:00etan.**

**G**olden Apple Quartet taldeak 21 urte daramatza agerto-kietan. Urteurrena ospatu eta azken ikuskizuna aurkezteko, *Tour 21* ize-neko bira antolatu dute. Horretan leku alegia dio laukote donostiarak Eskoriatzari. Astelehenean, ekainak 30, egingo dute emanaldia.

Taldea eratu zutenetik orain arte zapta ikuskizun egin dituzte donostiarrek. Azkena *Los Golden en serio* deitzen da. Horixe da Goro-

sari plazan aurkeztuko dutena. Musika emanaldia 23:00etan hasiko da eta ordu eta erdi inguruko iraupena izango du; sarre-ra doan izango da.

Tarte horretan egune-rokotasuna eta norberak

izan ditzakeen ardurak albo batera uzteko eta bizi-tza "serio ez hartzeo" gona-bidapena egingo die taldeak Gorosarrira gertura-tzen direnei, musikaren bitartez.

#### UMOREA NAGUSI

Laukote horren ikuskizunetan ohikoa den bezala, umorea izango da nagusi ikuskizun osoan: "Dibertsioa, sorpresa eta entrete-nimendua ziurtatuta daude", diote Golden Apple Quartet osatzen duten Loyola Garmendiak, Eduardo Errondosorok, Enrique Otxoak eta Manuel Romanok. Baino, aldi berean, "orain arte ukitu ez ditugun bideetatik jo dugu emanaldi horretan", gaineratu dute taldekideek.

Aproposena da asteleh- hen gaeian Gorosarrira joatea eta laukotearen azkena zuzenean ikustea.

**21 urte  
daramatzate  
agertokiak  
umore onez  
betetzen**

**'Los Golden  
en Serio'  
izeneko  
ikuskizuna  
eskainiko dute**



Golden Apple Quartet laukotearen azken laneko irudia.

GOIENKARIA

## Likio Ellinidon dantza talde greziarra domekan

Greziako dantza talde baten ikuskizunaz gozatu ahal izango dute eskoriatzarrek domekan. Tesaloniako Likio Ellinidon da talde hori. Dantzariak 23:15ean irtengo dira Gorosarri plazara. Greziako talde zaharrenetarikoa da Eskoriatzan egon

behar dena: 1939an sortu zuten. Greziako ohiturak eta emakumea goraipatzen dituzte dantzariek emanaldietan, zuzeneko musika lagun dutela. Likio Ellinidon taldeak mundu osoan eskaini izan ditu ikuskizunak.




## Zubia Pateek jai zoriontsuak opa dizkizuete guztioi!

Aingeru Guarda pasealekua 17 20540 Eskoriatza

Tel.: 943 71 51 31 / Faxa: 943 71 52 79

[www.pateszubia.com](http://www.pateszubia.com)




*Josek eta Natik San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuete!*



## Esko Sport

Zure konfidantzako denda

Intxartxueta 5 Eskoriatza Tel.: 943 71 52 96



KONTZERTUAK

# Musika talde ezagunen bertsioak entzuteko aukera

Herriko hiru musika taldek ikuskizuna egingo dute, eta Bartzelonatik Beatlesen klon talde bat etorriko da

IKER BARANDIARAN

Talde ezagunen bertsioak joko dituzte talde gehienek jaietan. Horretan ibilikoa dira herriko eta Bartzelonatik etorri-tako taldeak.

**B**eatlesen kantuak eskaintzen dituen Bartzelona koko Abbey Road taldearen aurretik, hainbat tabernetan kontzertua egingo dituzte gaur, egubakoitza: Nairan (18:30) Show Business arituko da, Ciprisen (19:30) Golpe de Estado, Inkernun (20:30) Moby Dick eta txosnetan (21:30) Enboskada.

ASTELEHENEAN, HERRIKOAK

Horrez gain, astelehenean, hilaren 30ean, herriko hiru taldek bertsioak joko dituzte 00:00etan: S-Covers hainbat taldetan ibilitako musikariekin osatzen dute, eta Hertzainak, Ramones, Sex Pistols eta besteren kantuak joko dituzte.



IKER BARANDIARAN

Argazkian S-Covers taldeko kideak, Lukas Prest, Ene Bada, SS-77, Des-Kontrol, Gatillazo eta beste talde askotan ibilitakoak.

Bestalde, Klineks taldeko kideek osatutako Kaka Itten Mendira proiektua jendaurrean erakutsiko dute. My First & The Gimmes Gimmes taldeak egin zuen moduan,

**Gaur, egubakoitza, Beatlesen kantuak jotzen dituen Abbey Roaden aurretik, hainbat emanaldi egongo dira tabernetan**

Beatles eta Dylanen kantuak punk-pop bilakatuko dituzte. Eta bukatzeko, Rocker Feeling talde berriak Ramones, Thin Lizzy eta The Hives gogora ekarriko ditu.

Herriko plazan  
**Egubakoitza eta astelehena**  
Egubakoitzean  
Abbey Road, eta astelehenean, herriko taldeak.

## Beatlesen arima, herriko plazan

Beatles taldearen kantuak entzuteko aukera izango da jaietan. Zeregin horretan eskarmentu handia duen Bartzelonako Abbey Road etorriko da herrira. Liverpooleko moduan janzteaz gain, kantuak jatorrizkoenatik ia berdin interpretatzen dituzte. Hala, zenbait adituk esan ohi dute Beatlesen munduko klon onenetarikoak direla. Egubakoitzean, hilaren 27, izango da emanaldia 23:00etan, herriko plazan.

80ko hamarkada bukaeran sortu ziren netik 1.500 emanaldi egin dituzte munduko lau kontinentetan; besteak beste, Liverpooleko The Cavern areto mitikoan ere bai.

## OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 31 67

**Eguneko menua**

•

**Gazte menua**


•

**Karta**

•

**Bazkariak eramateko**


**San Pedro jai zoriontsuak!**



  
**ONDO IBILI SAN PEDROTAN!**  
**O'DOGHERTY**

GOSARIAK, PINTXOAK, BOKATAK  
ENTSALADAK ETA PLATER KONBINATUAK

Intxaurreta 21, beheha Tel.: 943 53 37 13 ESKORIATZA



**leniz sa**  
**fundizioak**

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA  
[www.fundiciones-leniz.com](http://www.fundiciones-leniz.com)

Jai zoriontsu eta alaiak  
izan ditzazuela!



**PINTURAS**



**ESKORIATZA**

- Pintura lanak orokorrear
- Fatxadak • Iztukuak • eta abar

**ZORIONAK ESKORIATZAR GUZTIOI!  
ONDO PASAU JAIXAK!**

Olaeta 2-1 Ezk. 20540 ESKORIATZA Gipuzkoa  
Faxa: 943 77 07 92 / Mug.: 605 77 27 69  
[pintueskoriatza@telefonica.net](mailto:pintueskoriatza@telefonica.net)

# Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko ekainaren 27a / GOIENKARIaren ARGITALPEN BEREZIA / Arduraduna: Iker Barandiaran / Maketazioa: Oxel Arrieta / Publizitatea: Ziorzta Martin



ARGAZKIA: GOIENKARIA

# SISTECO

MAKINA-ERREMINTAK

Automobilaren, aeronautikaren, trenaren  
eta eraikuntza metalikoaren industria arloa

Heziketa eta aholkularitza pertsonalizatua.  
Berehalako zerbitzu teknikoa, makina guztien  
produkzio maila altuenak bermatuta.



JAI  
ZORIONTSUAK  
GUZTIOI!

Pagatza industrialdea 7A saila, ELGETA. Tel.: 943 76 82 14 Faxa: 943 76 81 00  
[www.sisteco.net](http://www.sisteco.net) e-posta: [empresa@sisteco.net](mailto:empresa@sisteco.net)

EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Eguena, 3

**17:00** Galarren abenturak Elgetan. Umeendako JOKOAK plazan.  
**20:00** Jain HASIERA kanpai hotsekin eta su artizialekin. Ondoren, MOZORRO JAITSIERA Salbador kaleko goialdetik, Ustekabe fanfarrearekin. Plazara iritsitakoan alkate txikiari emango zao agintea, eta gero, fanfarrekoek joko dute.



HERRITAR UGARIK JANGO DU PAELLA.

**22:00** HERRI AFARIA izango da plazan.  
**23:30** Orots taldearekin ERROMERIA izango da.  
**00:00** LARRAIN DANTZA.  
**00:15** ERROMERIAK jarraituko du Orots taldearekin.

## Barikua, 4

**11:00** Umeendako PUZGARRIAK kirol kantxan.  
**11:15** Ozkarbik salda banatuko du.  
**12:00** MEZA NAGUSIA, erretiratuen alde.  
**13:00** HERRI KIROLAK: KOXE BIKONDOAK aizkoran buruz behera eta motozerrarekin figurak egindo ditu.  
**14:00** Erretiratuendako BAZKARIA Espaloian. Bazkalostean, Peli Arantzabal soinu-jolea.  
**14:00** Umeendako bazkaria plazan.  
**16:00** Umeendako PUZGARRIAK kirol kantxan.  
**18:00** The Txortainsekin kalejira, gaztetxetik.  
**18:30** BURUHANDIAK.  
**19:00** ZEZENAK.  
**20:00-21:30** ERROMERIA, Lotxo taldearekin.  
**00:00** KONTZERTUA gaztetxe ondoko lautadan: Emon, Never Surrender eta Porron y Kuenta Nueba.  
**04:00** TRIKIPOTEAOA gaztetxekoekin.

## Zapatua 5

**11:00** ESNA DEIA izango da Galtzgorri txarangarekin.  
**11:15** Umeendako JOKOAK Salbador kalean.  
**11:30** Koadrilen hamaiketakoa.  
**12:30** ASTO LASTERKETA Elgetako VIII. saria.



BASERRIKO PRODUKTUAK FERIA NAGUSIAN

**13:00** Txikiteoa Galtzgorri txarangarekin.  
**14:00** Elgetarron omenaldia Aitor Elkorori.  
**14:30** HERRI BAZKARIA: Paella erraldoia eta saihesquia. Erretiratuek kafea banatuko dute.  
**16:00** Erromeria plazan Mendox eta Bizkai trikitilariekin.  
**18:30** Galtzgorri txaranga.  
**19:00** ZEZENAK.  
**23:30** Suzko zezena.  
**23:30** ERROMERIA, Xero Xiette taldearekin.  
**00:00** Gaztetxe ondoko lautadan KONTZERTUA: Horren ostean, DJ BULL gaztetxean.  
**00:00** DJ TURTURRO Espaloian.

## Domeka 6

**09:00** FERIA NAGUSIA zabalduko da.  
**12:00** Idi gazteen proba.  
**18:00** Umeendako PLAY-BACK lehiaketa.  
**19:30** Viva Jalisco mariatxiak.  
**21:00** Txitxiburduntzia plaza inguruan.

## ELGETA AUTOAK

JULIAN SANZ FERNANDEZ

ZORIONAK  
ELGETAR GUZTIOI!

Berraondokoa z/g ELGETA • Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98



## BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa  
 20690 ELGETA  
 Tel.: 943 76 82 21

Ondo pasa Ferixa Nagusian!

IDI PROBAK

# Idi gazteen proba egingo dute domekan azokan

Ganadu zaleendako gero eta garrantzi handiagoa hartu du Elgetako Ferixa Nagusixak

IKER BARANDIARAN

Aurten, Elgetako Ferixa Nagusian, ganadu erakustaldia egiteaz gain, hiru pare idi gazte lehiatuko dira azokan bertan 12:00etan.

**U**rtero moduan domekan ferixa nagusixa egingo dute. Bertan baserriko produktuez gain, ganadua, erremintak eta beste egongo dira.

Horrez guziaz gain, azkeneko urteetan gero eta ganadu gehiago batzen dute; eta horien artean idia egoten dira ikusgai. Aurten, baina, idiekin proba ere egingo dute.

#### HIRU SARI EMANGO DITUZTE

Bergara, Zumarraga, Urretxu, Elorrio eta Eibartik eramango dituzte idia; 17 bat pare. Eta 4 urtetik beherako hiru idi pare lehian jarriko dituzte. 20 minututan 1.000 kilogramoko harri bat jaso beharko dute.



Aurtengo azokan idi gazteen proba egingo dute ohikoena nagusiekin egitea bada ere.

GOIENKARIA

Antolatzale lanetan dabilen Joxe Agustin Beretxi-k jakinarazi digu ohikoena dela idi zaharragoekin proba egitea, eta orduerdian 2.000 kilogramo jasotzea.

**Idi gazteak, lau urte baino gutxiago dituztenak, lehiatuko dira domekako azokan eguerdiko hamabietan**

Antolatzaleek hiru sari banatuko dituzte: 360 euro, 300 eta 240. Guztiek izango dute saria.

Beretxi-ren esanetan, Elgeta eta Itziar dira idi zaleendako puntu onenak.

#### Elikagai eta ganaduaren azoka


Idi proba egitea berrikuntza nagusiena bada ere, domekako azokan ez da aspertzeko aukerarik izango. Han izango dira, baita ere, ganadua, baserriko elikagai ugari, landareak, txakolina, gazta, eztia eta artisauak, besteak beste. Antolatzaleek jakinarazi dutenez, 70 bat saltoki inguru batuko dira.

Ganaduari dagokionez, honako hauek izango dira kopuruak: 30 bat behi, beste horrenbeste txahal, lau bat behor eta lau bat asto, hain zuzen ere. Horietatik zenbait Elgetakoak izango dira. Bestalde, Elgetako trikitilariak kalean gora eta behera ibiliko dira azoka alaitzen.

**ILE APAINDEGIA**  
Andra Mari plaza 2  
Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

**Marijok  
jai zoriontsuak  
opa dizkizue!**

ONDO PASAU JAIXETAN!



**CIE Recyde**

**CIE RECYDE, S.A.U.**

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
[www.cieautomotive.com](http://www.cieautomotive.com)



ER  
Empresa  
Eregistratua  
ER-0182/2/95

ISO 9002

QS 9000

ISO/TS 16949

## UMEAK

# Umeendako jaiak hasiko dira Galiarren abenturekin

Puzgarriak, bazkaria, buru haundiak eta play-back lehiaketa egingo dituzte uztailaren 3tik 6ra bitartean

MIREIA BIKUÑA

**Elgetako Ferixa Nagusietan ez dira faltako neska-mutikoendako ekitaldirik. Jokoak, mozarroak, bazkaria eta lehiaketa egongo dira, besteak beste, herriko toki ezberdinetan.**

**M**ozorroaz jantzita hasiko dituzte Elgetako neska-mutikoek herriko jaiak. Hain zuzen, Galiarrrez mozorrotuko dira hainbat joko egiteko; besteak beste, edari magikoaren bila ibiliko dira uztailaren 3an, 17:00etatik 19:30era.

#### HAUR PARKEA

Uztailaren 4an, kirol kan-  
txan haur parkea jarriko  
dute umeendako 11:00etan  
eta 16:00etan; hain zuzen  
ere, rokodromo, zezen  
mekanikoa eta puzgarriak.  
Egun berean, umeek baz-  
karia egingo dute plazan.  
Antolatzaleek esan digute  
bazkarirako txartelak

aldez aurretik erosia behar-ko direla, eta menu goxoa egongo dela guztiondako. Merienda jan ondoren, 18:00ak aldera, buruan-diak ibiliko dira kaleetan. Zapatuak ere hainbat joko egongo dira herriko gaztetxoendako. Hala, Salbador kalean hainbat joko eta jolas egingo dituzte egunean.

#### MUSIKA ERE BAI

Jolasak alde batera utzita, musikan trebeak direnen-dako ekitaldia antolatu dute domekarako: hain zuzen, play-back lehiaketa egingo dute 18:00etan. Musikari ezagunen kantak jarriko dituzte.

**Abeslari  
trebeendako  
play-back  
lehiaketa  
egingo  
dute  
domekaran**



Urtero moduan haur parkea plazan jarriko dute.

GOIENKARIA

Hainbat tokitan  
**Eguenetik domekara arte**  
Mozorroak, haur parke, bazkaria eta play-back lehiaketa egingo dituzte.

## Guztiak mozorrotzeko deialdia

Elgetako Udaleko kultura sailak dei berezia egin nahi die herritar guztiei, jaietako lehen egunean mozorrotzeko. Ferixa Nagusietarako aukeratu duten gaia Galiarrak dira. Asmoa da Elgetan Galiarren abenturak bizi ahal izatea. "Deialdi berezia egin nahi dugu aurten, herritar guztiak mozorrotu daitezten, haurrak eta helduak", esan digu Udaleko kultura teknikariak. Mozorra eskatzeaz gain, antolatzaleek, herria girotzeko hainbat dekoratu jarriko dituzte kaleetan. Gainera, neska-mutikoekin Galiarren jolasak egingo dituzte, eta "edari magikoaren" bila ere ibiliko dira.

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue  
elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

*Ondo pasau!*



**INDUSTRIAS EVE, SA**  
*Trokeldintza eta estanpazioa*

ONDO PASAU FERIXA NAGUSIKO JAIXETAN!

Pagatza industrialdea. Elgeta. 943 76 80 99



HERRI EGUNA

# Egunez herriko giroa indartu nahian

Elgetarrei baserritar jantzita joateko gonbitoa egin diete Jai Batzordekoek

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Herriko hainbat koadrilaren eskari erantzunez, Herri Eguna izendatu dute zapatua aurretan. Herritarrei jaietan protagonismoa ematea da helburua.**

**Z**apatuau goizean goizetik hasita jai giroa izango da herrian. Galtzago-rritxarangak musikaz alaituko ditu kaleak.

Musikaz soilik ez da asetzten, ordea, herriko jendea eta koadrilen hamaike-tako ere antolatu dute. Koadrila bakoitzak era-

man beharko ditu jana eta edana. Hala ere, barikuau Ozkarbi elkartekoek egindo duten bezala, zapatuan Intxorta elkartearen aurrean salda banatuko dute. "Horrekin nahi dugu jai giroan egunez dabil-zanei ere zerbait ematea", esan digu alkateak.

Hamaiketakoarekin indarrak hartuta, urtero-ko ohiturari jarraituz, ausartenak asto gainera igoko dira karrera egiteko. Bien bitartean izango da txarangakoekin txiki-teoan ibiliko denik ere.

**OMENALDIA**

Bazkal aurretik tarte bat hartuko dute herritarrek Aitor Elkoro pilotaria



Azken urteotan bezala paella banatzeaz gain, saiheska jateko aukera ere izango da plazan.

GOIENKARIA

omentzeko. "Pilotari profesional jarduna utzi duenez, herritarren aldetik bere lanaren aitorpena egitea pentstu dugu", esan digu Oxel Erostabek alkateak.

**Koadrilek hamaiketakoa egingo dute plazan euren jan-edanekin**

Bazkarirako ordua iritsita azken urteotako paeilla janaz gain, aurten saiheski jana ere izango da eta kafea herriko erretratuek banatuko dute.

**Bazkalostean giro polita sortzeko erromeria izango da**

**ERROMERIA ARRATSALDEAN**  
Tripa beteta bazkal ostean giro polita sortu asmoz Mendotza eta Bizkai trikitilarien doinuekin dantza egiteko aukera izango da.

Aurtengo beste berrikuntzetako bat zezenena da. Zezenak urtero egoten diren arren, Salvador kaleko lanengatik plaza inguruau ibiliko dira aurten.

Egunez jaiak indartzea da asmoa eta horretarako animatu nahi dituzte herri-tarrak baserritar jantzita irteteko kalera.

Jai giroaz egunez gozatu eta oraindik gauerako indarra geratzen zaienendako ekitaldirik ez da falatko gauean ere. Suzko zezena izango da 23:00etan eta horren ostean, Xero Xeiette taldearekin erromeria, arratsaldez nahi-ko dantza egin ez dutenen-dako aukera ezin hobea.

Plazan ez ezik gaztetxe ondoan ere kontzertua izango da. Emon taldeak jardungo du besteak beste, eta jaia gaztetxean luzatuko da DJ Bullekin.

**BOLATOKI taberna**

## ONDO PASAU JAIXAK!

943 76 82 84  
Artekale 4  
ELGETA

**MARIATXIA**

# Mariatxiak alaituko dute jaiak amaitzearen tristura

**'Viva Jalisco'** du izena aurtengo ikuskizunak. Mexikarrek kaleak girotuko dituzte euren musika eta dantza emanaldiarekin

JOKIN BEREZIARTUA

Aurten Mexikoko Jalisko herrialdetik etorriko dira mariatxiak. Izkuskizun paregabea eskainiko dute jaietako azken egunean.

**J**aia ondo baino hobeto amaituko dituzte elgetarrek aurten ere. Jaiak amaitzezar daudela jakiteak sortzen duen tristura eramangarriagoa izango da Mexikotik datozen doinuekin. Izan ere, mariatxiak ezin egokiagoak dira kaleak girotu eta euren kantuekin jendea hunkitzeko.

Dagoeneko ohikoak bihurtzen ari dira mariatxiak gure ibarreko jaietan. Bailarako festetako egitarauetan agertzen dira maiz, eta euren emanaldietara gerturatzan den jendea oso pozik geratu ohi da ikuskinunarekin. Normalean nahiko helduak dira ikusleak, baina emanaldi arrakastatsuak izan ohi dira.



Dantza eta Mexikoko doinu folklorikoak izango dira protagonista jaietako azken egunean.

LATINCOLOURS

**AURTEL, MARIATXEZBERDINA**  
Iaz Mexico Lindo taldea ikusteko aukera izan zuten elgetarrek. Gerturatu zirenak gustura asko izan ziren eta asko gogo biziz daude jaietako egitarauaren

**Viva Jalisco mariatxi taldean hainbat artistek hartzen dute parte: hamar musikarik eta zortzi dantza bikotek, hain zuzen ere**

barruan, mariatxiaren kalejira itxaroten. Aurten ez dira iazko berberak etorriko, baina horrek ez du esan nahi aurtengo emanaldiak ikusgarritasun punturik galduko duenik.

Kaleetan zehar  
**Domeka, hilak 6  
19:30ean**

Mariatxiak Mexikoko musika folklorikoa eta dantza ekarriko ditu Elgetara

Aurten Viva Jalisco taldea etorriko da Elgetara eta hauek ere euren musika eta dantza emanaldi ikusgarria aurkezteria etorriko dira. Errepertorio zabala, jantzi koloretsuak, erritmo alaiak eta berezko grazia dira, mariatxi mexikarren talde guztien antzeza, Viva Jaliscokoen ezauigarriak. Ziur elgetarrak dantzan jarriko dituztela.

**ORIJINALA ETA IKUSGARRIA**  
Dantza eta musika emanaldi orijinala eta ikusgarria eskainiko du Viva Jalisco mariatxi taldeak. Mexikoko errepublikaren estatu ezberdinak eta estilo honetako musika joera guztiek uztartzen dituzte, hala Mexikoko balio kultural oinarritzkoenak mantenduz.

Viva Jalisco taldeak, bestalde, oso kritika onak jaso izan ditu emanaldi ikuskizun guztietan. Taldeak bere herrialdeko aberastasun folklorikoa mantentzeko ahalegin handia egin du, eta hori txalotzekoa da. Domekan jasoko dituzte merezi dituzten txaloak, ziur.



*Hierros Naparra eta Metales  
Bolinagaren izenean*

*Ondo Pasau Jaixak!*

KONTZERTUAK

# Street-punk eta rock kontzertua egingo dute bariku gaeuan

Porron y Kuenta Nueba, Never Surrender eta Emon

IKER BARANDIARAN

**Elgetako eta inguruetako gazteek eta musika zaleek badekite urtero hitzordua daukatela jaietan, gaztetxe ondoko lautadan. Bariku gauerdian izango da.**

**O** hitura bilakatu da jaietako barikuaren gazte batzarrak rock kontzertua antolatzea. Aruten ere ez dute hutsik egingo, eta gaztetxeko lautadan musika izango da bariku gaeuan.

Aurten gaztetxe ondoko agertoki gainera hiru talde igoko dira gauerdian: Bergarako Emon, Arrasateko Never Surrender eta Bergara, Elgeta, Arrasate eta Aretxabaletako kideak dituen Porron y Kuenta Nueba.

PUNK-OI!

Porron y Kuenta Nueba taldeak bi arrasatear eta Bergarako, Elgetako eta Aretxabaletako kide bana ditu. Horietako batzuk, gainera, Ostiada Oi!, Cool Revenge eta Nealta Fola

## Bergarako Emon taldeak rocka, folka, reggaea eta ska batzen ditu

## Kontzertuan street-punka egiten duten bi talde arituko dira barikuaren

taldeetan ibiliak dira. Hala ere, Porron orain dela bi urte sortu zuten eta Azpeitiako gaztetxean estreinatu ziren.

Punk-Oi! edo street-punk musika egiten dute; tarteka azkarrago edo motelago. Abesti gehienak ingelesez abesten dituzte, euskarazko bakarra daukate eta gaztelarazko hainbat. Bi urteotan kontzertu ugari egin dituzte: gehienak Euskal Herrian, baina baita Vigo eta Valladoliden ere.

NEVER SURRENDER

Gaur egungo street-punk talde arrakastatsueta bat Arrasateko Never Surrender dugu. 2002an hasi ziren agertokietara igotzen, eta dagoeneko bi disko dituzte: bata, Emboskada taldearekin erdibana egindakoa; eta beste bat eurena oso-osorik, Aurre-



Arrasateko Never Surrender gaur egungo street-punk talde arrakastatsueta bat da.

GOIENKARIA

rapenaren izenean, Puzkarrera Records diskoteak kaleratu zuena.

EMON TALDEA

Hirugarren taldea eta musika estiloa erabat aldatuko duena Bergarako Emon izango da.

Rock taldeek ibiltzen dituzten ohiko instrumentuez gain, trikitixa eta saxoa ere erabiltzen dute Emon taldekoek.

Euren eskaintzan rockaz gain folka ere egiten dute eta horri reggae eta ska ukuak ematen diz-

kiote. Dagoeneko bost bat abesti propio dituzte, eta gainontzekoak dantza egiteko bertsioak izaten dira.


Talde gaztea indartsu dabil, eta orain dela gutxi Donostiako Piraten Gipuzkoako lehiaketan finalerdiatarako sailkatu zen.

# EGUZKITZA

LÄNDETXEÀ

Leku berezian kokatua, Eguzkitza toki egokiena da lasaitasuna lortzeko eta naturaz gozatzeko, zerbitzu onari uko egin gabe.

Elbarreko erreidea z/g  
Tel. eta faxa: 943 78 90 84  
Poltsikokoa: 679 41 66 97  
e-posta: casaeguzkitza@hotmail.com



ETA ORAIN ZERBITZU BERRIKIN:  
**ZELULAK  
BIRSORTZEKO  
KAPSULA  
ETA MASAJEAK**




**ZORIONAK!**



Jaiak zuk egiten dituzu onak, hartu parte!

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen □ bada giro!

**MRLUTZ**  
TABERNA  
*Gustuko musika*  
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Ezkutu**  
TABERNA  
*Zatoz gure musikaz gozatzera*  
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

**VALDEZATE**  
Bokatak eta plater konbinatuak  
Araba ibilbidea 5, behe - Tel: 943 25 07 40

**IOSU**  
taberna  
harategia  
Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak  
Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08

**Dorleta**  
DORLETA  
*Loteria primitiboak eta kinielak*  
DORLETA TABERNA  
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

**OTZETA JATETXEA**  
Aramburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

**BASABE**  
Menuak eta afariak  
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

**Gurea**  
TABERNA  
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**HIRUSTA JATETXEA**  
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

**Matikua jatetxea**  
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**hemen □ bada  
giro!**

AZPIEGITURAK > UR-DEPOSITUA

## Iraillerako gertu egongo da 2.000 metro kubikoko ur-depositu berria

Aozaratzara bidean dagoen ur-depositu zaharraren alboan egin dute, eta haren edukiera berekoa da; hala, 4.000 metro kubikoko dugu

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Iazko udazkenean hasi zituzten ur-depositu berria egiteko lanak, eta martxa onean doaz aurrera. Bederatzi hilabete iraungo zutela aurreikusi zuen Udalak orduan, eta irailean bukatuko dituztela esan du orain Hirigintza Sailak: "Uste bezala dabilta egiten lanok, baina aurretik zegoen ur-deposituari hobekuntza batzuk egin dizkiote, proiektuan aurreikusita ez zeudenak, hain zuzen, eta horrek luzatu egingo du apur bat bukaera data. Hala, irailean egongo dela guztiz bukatura esan genezake". Lanok



Aozaratzza auzora bidean dagoen ur-deposituaren alboan berria egiten dabilta.

MIRARI ALTUBE

Donostian egoitza duen Construcciones Murias SA empresa dabil egiten, eta ia milioi bat euroko aurrekontua dute.

### URA, DEPOSITU BERRITIK

Aozaratzza auzora bidean dagoen ur-depositu zaharrak 2.000 metro kubikoko edukiera du.

Baina herriak dagoeneko 2.300 metro kubiko inguru kontsumitzen ditu egunero; hortaz, ezin dute urik gordeta eduki. Horre-

gatik erabaki zuen Udalak bigarren depositu bat egitea aurrekoaren alboan, eta edukiera berekoa egin dute, 2.000 metro kubikoko: "Depositu handiagoa dauagu orain, baina benetako arrazoia ez da izan hori, bi edukiontzit dituen depositua izatea baizik. Hala, mantentze lanak egin behar ditugunean, uraren kalitatea bermatzeko garbitasun lanak, esaterako, lasai asko hustu genezake edukiontzit bat. Eta herritarrek beste edukiontzitik berdin-berdin jasoko lukete ura", diote Hirigintza Saileko ardura-dunek. Lanok aprobetxatuta, depositu bietako balbulendako eta kontrolerako gelak izango dituen txabola egin dute.

Lanek iraun bitartean, aretxabaletarrek ez dute igarri inolako aldaketarik ur hornikuntzan; ez lanak hasi berrian depositu zaharrago batetik bideratzen zutenean Urkulu urtegiko ura, ezta orain ere: "Uraren kalitatea betikoa da, eta dagoeneko ur-depositu berritik bidaltzen dugu ura herria".

HEZKUNTZA > OSPAKIZUNAK

## San Juan bezperan hasita, jairik jai ibiliko dira Pausokako umeak

Tantaia jaso zuten astelehenean, Santa Ageda mutilek legez, eta uztailean San Fermin jaiak ospatuko dituzte entzierroa egunero eginda

**M.A. > ARETXABAleta**  
Udan sartu berri gara, eta jaiak izaten dira nagusi urte sasoi horretan. Gazte eta helduak hara eta hona joango dira, eta Pausoka Haur Eskolako umeek bertan ospatuko dituzte. Halaxe egin zuten astelehenean, San Juan bez-

peran: tantaia jaso lehenengo, eta ogia eta gazta jan, gero.

Uztailean, osteria, San Fermin jaiak izango dituzte gogoan, eta 7an hasita egunero egingo dute entzierroa (10:00). Santuari abestuko diote lehenengo, zapi gorria lepoan, eta, egunkaria eskuan

dutela, zezenaren aurrean ibiliko dira gero. Uztailaren 7an, gainera, prozesioa egingo dute santuarekin. Uztailaren 10ean, Lasturrera (Deba) joango dira 2 eta 3 urtekoak, egun pasa; eta uztailaren 14tik 18ra bitartean, argazki emanaldiak izango dituzte gurasoek goiz, eguerdi eta arratsaldean, eskolako sarreran jarritako telebistan.

Ikasturtea bukatzen, osteria, jaialdi berezia egingo dute uztailaren 18an, egubakoitzean.



Umeak, tantaiai sokatik tiraka, astelehen goizean.

PAUSOKA

**((112))**  
**SOS DEIAK**

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**  
**Bertako okelak eta odolosteak**

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

**Jon Díaz**  
**Karakina**

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAleta

**M**obiliario  
**ARENaza**

- **ALTZARIAK**
- **DISEINUA**
- **APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

2000. urtean jaiotako neskek eta mutilek parte har dezakete

Eskerak UDAn edo kirol etxean jasoko dira; baita Internet bidez ere

Oinarriak jakinarazi ditu dagoeneko kirol elkartea

**M.B. > ARETXABAleta**  
UDA elkartea futbol eskolan apuntatzeko epea zabaldu du dagoeneko. Horretan, 2000. urtean jaiotakoek eman ahal izango dute izena, datorren uztailaren 30era arte; alegia, benjamin mailako bigarren urtekoek. Eskerak UDAn nahiz kirol etxean aurkez daitezke. Gainera, [goienasport@goienasport.com](mailto:goienasport@goienasport.com) helbide elektronikora bidaltzeko aukera ere badago.

Aretxabaleta Kirol Elkartea futbol eskolan parte hartu ahal izateko oinarriak jakinarazi ditu dagoeneko. Gogorarazi du, lehenik eta behin, aurrera eroango diren ekintzak osagarriak izango direla eta eskola kirolean egiten direnen ordezkoak ez direla izango. Horrez gain, ekintza horiek edozein neskatori eta mutikori zabalik daudela eta, beraz, ez dela inongo aukeraketa egingo aipatu du.

**ESKOLA-DENBORALDIA**  
Futbol eskolaren barruan egingo diren ekintzak zehazteko, bestalde, eskola-denboraldiak eta eskolarik ez dagoen garaia

KIROLA > FUTBOLA

# Futbol eskolan izena eman daiteke uztailaren 30era arte



1999an jaiotako neska-mutikoen taldea, martxoan Zubietan jokatutako txapelketa hasi aurrelik.

MIRARI ALTUBE

kontuan hartuko direla jakinarazi du aldi berean UDA elkartea. Denboraldi bakotzean, gainera, egingo diren ekimen motak zehaztuko direla gaineratu du; denboraldian izango diren txapelketak eta entrenamenduak, hain zuzen ere.

Bestalde, kirol elkartea gutxieneko baldintzak ezartzen ditu hainbat arlori begira, hala nola, irakasleendako, instalazioendako, erantzukizun zibilaren segururako, eskola kirolaren eta eskolatzearen arteko bateragaitzsunarenak, eskola kirola-

ren gaineko araudien errespetuarendako eta adin gutxikoak babesteko.

## REALAREN EREDUAREKIN BAT

Horrez aparte, ikasketen programazioa zehazteko orduan, Reala egindako ereduak dakartzan

edukiak eta helburuak kontuan hartuko direla nabarmendu du elkartea.

Esan bezala, beraz, datorren uztailaren 30era arte eman dezakete 2000. urtean jaiotako neska-to-mutiko aretxabaletarrek izena UDA futbol eskolan.

## AISIALDIA

### Oinarrizko eskalada ikastaroa antolatu dute

**M.B. > ARETXABAleta**

Loramendi Euskara Elkartea oinarrizko eskalada ikastaroa antolatu du datorren hilabeterako. Gaur, egubakoitza, amaituko da horretan izena emateko epea. Interesa dutenek Loramendin bertan eman behar dute izena; doan da. Hain zuzen ere, 16 urtetik gorakoendako da.

Ikastaroa egun batekoa izango dela jakinarazi dute Loramendikoek. Eguna, ordua eta lekua zehazteke daude oraindik. Sortzen den taldearekin batera adostuko dira. Aitor Oianiguren eta Jon Otxandotegi aretxabaletarrek emango dute ikastaroa. Esan bezala, hasiera baten, egun batekoa izango da. Parte-hartzaleen harreraren arabera, baina, ikastaroa luztzea aztertuko dute.

KIROLA > IGERIKETA

# Helduek ikastaroak izango dituzte

Bi ikastaro mota eskainiko dira: igeriketan hasi berriak direnei eta hobetu gura dutenei zuzenduta daude

**M.B. > ARETXABAleta**

18 urtetik gorakoendako igeriketa ikastaroak antolatu dituzte uztailerako. Bi ikastaro mota eskainiko dira kirol etxean: hasberriak direnendako eta norberaren igeriketa hobetu gura dutenendako. Lehenengo aldia da horrelako ekimen bat antolatzeko.

Klaseak datorren martxenean, uztailak 1, hasiko dira eta uztailaren 25era arte iraungo dute. Astero hirutan

izango dira: astelehenetan, eguzzenetan eta barikuetan. Ordutegiari dagokionez, klasiek hiru ordu laurden iraungo dute; hastapenekoak 19:15etik 20:00etara izango dira eta hobekuntzakoak, 20:15etik 21:00etara.

## PREZIOA

Abonatuek 22,65 euro ordaindu beharko dituzte eta ez abonatuek, berriz, 27,15 euro. Talandeek, gutxienez, sei lagunez eta, gehienez, hamabost lagunez osatuta egon beharko dutela azaldu dute antolatzelak.

Azken ikastaroak izango dira horiek kirol etxea itxi aurretik. Abuztuaren 7an izango da itxiera, eraikin berria egiteko. Bi urtetik gora beharko dituzte kiroldegi berria erakitzeko.

HIRIGINTZA > BIDEAK

# Bainuetxe eta Urkuluko lotuko dute

Udalak landa-bidea berreskuratu gura du irail parterako, oinezkoendako eta txirrindulariendako egokituz

**M.B. > ARETXABAleta**

Udalak Bainuetxe industria-gunea eta Urkuluko urtegia lotuko dituen oinezkoendako bide alternatiboa egokitzea onartu du. Egitasmo hori ez da berria, aurreko agintalditik dator-eta. Orain arte geldi egon bada ere, hori martxan jartzea erabaki du Udalak.

Iralerako bide hori gertu egotea espero du. Gaur egun erabiltzen ez diren landa-bideak berresku-

ratu gura ditu Udalak, oinezkoendako eta txirrindulariendako egokituz. Bidea, esan bezala, Bainuetxeko industria gunetik irtengo da eta Mendiolarra doan errepidea gurutzatuz, Iturriondo parkean sartuko da.

## ZUHAITZAK EZAGUTARAZI

Han dauden zuhaitz familiak ezagutzeko aukera izango dute bisitariek. Horretarako, identifikazio seinaleak jarriko ditu Udalak.

Bideak Bolinaga auzorantz jarraituko du, eta handik Arientzaran joko du. Mitartegari baserria atzean utzi eta Etxabarri baserri ondotik pasatuko da; onoren, gaur egungo bidegorritik Urkuluraino iritsiko dira oinezkoak nahiz txirrindulariak.

KIROLA > LAN ESKAITZA

# Hainbat kirol zerbitzu emateko enpresa kontratatuko du Udalak

Proposamen ekonomiko onena egiten duen eskatzaileari lau urteko kontratua egingo diote

MIREIA BIKUÑA > OÑATI  
Zubikoa kirolegiko kirol zerbitzuak emateko deialdia egitea erabaki zuen Udalak maiatzeko osoko bilkuran. Horren harira, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zen hilaren 18an, eta proposamenak aurkezten epea zabaldu dute, uztailaren 3ra arte. Interesatuek eskaintza ekonomikoak udal bulegoetan egin behar dituzte. Epea bukatu eta hurrengo egunean eskaintza guztiak aztertu eta oneña aukeratuko dute.

## HAINBAT KIROL

Kirol zerbitzua esleitzentzen zaion enpresak hainbat kirol eman beharko ditu. Hain justu ere, elbarriendako gimnasia, gimnasia terapeutikoa, aerobika, mantentze gimnasia, fit-bike, pilates, pilates terapeutikoa, hirugarren adinekoendako gimnasia, body balance, body combat, body pump, batuka, fitness eta erditze ondorengoko gimnasia.

Irakasleek bete beharreko baldintzak ere zehazten dira deialdian. Horren harira, irakasleek derrigorrez monitore titulua izan beharko dute. Gainera, gimnasia terapeutikoa emango duen pertsonak Fisioterapeuta edo Heziketa Fisikoan lizenziaduna izan beharko du. Bestalde, proposamena egiterakoan honako agiri hauek aurkeztu behar

DATUA

15  
KIROL

Hori da Udalak aukeratzen duen enpresak Zubikoa kirolegian eman beharko dituen kirol kopurua; besteak beste, gimnasia, aerobik, pilates, batuka, body balance eta fitness.

## PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Proposamen ekonomikoa egin ahal izateko, gehienezko kopuruak zehazten dira baldintzetan: adibidez, hirugarren adinekoendako eta elbarriendako gimnasiaren kasuan, 20,11 euro orainduko dituzte orduko, gehienez. Proposamen ekonomiko hoberena egiten duenari lau urterako kontratua egin dio Udalak, eta, bi aldeak ados egonez gero, beste bi urte luza daiteke.

## Helduendako ikastaroak, astelehenetik

Astelehenean hasiko dituzte helduendako ikastaroak Zubikoa kirolegian. Besteak beste, pilates hastapena, hirugarren adineko gimnasia, body jam eta fit bike ikastaroa hasiko dituzte, uztailaren 30era arte.

Uztailerako aukera jarri ziren gainerako eskaintzetan tokia dago izena emateko. Hain zuzen ere, pilates terapeutikoa, erditze osteko gimnasia, body balance, batuka, gimnasia terapeutikoa eta fit-bike ikastaroak. Izena kirolegian eman behar da.

AISIALDIA > UMEA

# Udalekuak martitzenetik aurrera

Lehen aldiz doazenen umeen gurasoendako bilera egingo dute bihar Institututuan

## M.B. > OÑATI

Martitzenean, uztailaren 1ean jarriko dituzte martxan udaleku irekiak. Guztira, 265 neska-mutiko ibiliko dira uztailaren 30era arte, eta haietan, 28 begirale egingo dira. Gainera, udalekuak koor dinatzaile bat eta laguntzaile bat izango dituzte.

Dena den, aisialdi programa hasi aurretik, bihar bilera egingo dute udalekuetara lehen aldiz doaznen umeen gurasoekin. Hain justu ere, Rodrigo Mercado de Zuazola Institutuko aretoan egingo dute 11:00etan. Bileran, hurrengo lau asteetan txikienek egingo dituzten aktibitateak azalduko dituzte, eta gainera, talde bakotzeo begiraleak aurkeztuko dituzte. Gurasoek nahi dituzten galderak egiteko aukera izango dute.



Iaz San Fermin eguneko entzierroa egin zuten.

GOIENKARIA

## INSTITUTUAN

Iaz egindako moduan, umeak utzi eta hartu Institutuko gimnasioan egin beharko dute gurasoek. Ume bakoitzak hainbat ekinzia egingo ditu begiralearekin; besteak beste, jokoak, irteerak,

eta San Fermin eguneko entzierroa egingo dituzte. Martitzenean, 10:00ak aurretik joatea aholkatzen dute, ume bakoitzak zein begiralearekin egon behar duen ikusteko. Zerrendak jarriko dituzte sarreran.



Iazko erakustaldiaren bukaera egindako erretretua.

GOIENKARIA

KIROLA > JAIALDIA

# Ikasturte bukaerako gimnasia erritmiko erakustaldia

Taldeka eta banaka, 45 neskak egingo dituzte ariketak Zubikoa kirolegiko kantxa berdean

## M.B. > OÑATI

Aloña Mendi elkarteko gimnasia erritmiko sailak ikasturteea bukatzeako erakustaldia egingo du. Hain zuzen, bihar izango da 18:00etan, Zubikoa kirolegiko kantxa berdean. Oñatiako gimnastekin batera, nagusia goak diren Azkoitiko taldekoak etorriko dira. Azkotiarra Euskadi mailako txapelketetan ibiltzen dira.

Urtero moduan, gurasoek eta etxekek harmailak lepo beteko dituzte jaialdia ikusteko. Erakustaldian 45 gaztetxok

parte hartuko dute, eta taldeka zein banaka hainbat ariketa egingo dituzte, eta horretarako, mazoak, uztaia, pilotak eta sokak erabiliko dituzte.

## BI ENTRENAMENDU

Irailean hasitako ikasturtean 45 neskatala ibili dira eskolak hartzen. Gazteenak 4 urte ditu eta zaharrenak 20 urte. Dena den, ikasle gehienak 4 eta 11 urte artekoak dira. Bi entrenamendu saio egin dituzte astero, kurto osoan, martitzetenetan eta eguznetan.

ERREPIDEAK > ASFALTATZE LANAK

# Trafiko arazoak egongo dira herrigunean astelehenetik

Hainbat kale asfaltatzeko, Pesako autobusak ez dira geratuko Euskadi Etorbideko geralekuan

## M.B. > OÑATI

Irisgarritasun Planaren barruan hainbat kale asfaltatzeko dituzte astelehenetik eguztainera arte. Hain justu ere, Kurte Bide, Santa Marina, Bakardadeko Ama eta Portu kaleak asfaltatzeko dituzte. Horregatik guztiagatik, herrigunean trafiko arazoak egongo direla esan digute udaltzaingotik: "Batez ere, arazoak sortuko dira kul-

tura etxeko errepide aurrean, zati hori asfaltatu egin behar dute-eta". Horren harira, saihesbidea erabiltzeko aholkua eman du udaltzain buruak.

## PESAKO AUTOBUSAK

Bestalde, hiru egun horietan Pesako autobusak ez dira Euskadi Etorbideko geltokian geratuko, Bidaurreta biribilgunean baizik.

## > EKITALDIAK

# 'Gaztiak gaztetxian aske' leloarekin aste bukaerako jaia antolatu du gazte batzarrak

Gazteburua izeneko jaia gaur bertan hasiko dute antzerki emanaldiarekin. Bihera berriz, herri bazkaria egingo dute plazako frontoian, eta 18:00etan "gaztetxea aldarrikatzeko" manifestazioa egingo dute. Gauen, askotariko kontzertuak egongo dira. Aste bukaera amaitzean, domekan, ordu alaia egingo dute 17:00etan.



Argazkian lehen planoan Jose Arana eskola zenaren erlojua, eta atzean Aranak Atotxan (Donostia) eraikitako zezen-plazaren maketa bat.

IKER BARANDIARAN

ONDAREA &gt; JOSE ARANA

# Jose Arana herriko filantropoa zenaren omenezko erakusketa

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute erakusketa Ibarraundi museoan, 19:00etan, lunch eta guzti

Testamentuan Eskoriatzari diru asko emateaz gain, Donostiako Aste Nagusiaren sortzailea da

IKER BARANDIARAN &gt; ESKORIATZA

Aurtengo abenduaren 5ean 100 urte beteko dira Jose Arana Elorza Eskoriatzako semea hil zela. Hala, Ibarraundi museoko arduradunek erabaki zuten Arana gogoratzeko zerbaite antolatzea. Eta hain zuen ere, urtero San Pedrotarako Ibarraundin herriarekin lotutako erakusketaren bat egiten dutenez, aurten Aranaren gainekeko materiala batu dute.

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Jose Aranaren gainekeko erakusketa, 19:00etan, Ibarraundin. Horren ostean, lunka egongo da. Horretarako, otsaila ezkerro daramate lanean. Isabel Aramendia museoko langile arrasatearrak izan du ardura nagusiena. Hura ibili da dokumentazio lanak egiten, materiala batzen eta erakusketa izango dena diseinatzen, besteak beste.

Aramendia aipatu du, lankideez gain, Kutxak, Euskadiko Kutxak eta Arrasateko Udalak ere lagundu dutela.

## IKASLEENDAKO ERE APROPOSIA

Erakusketa gaur zabalduko dute, baina urriaren 19ra arte egongo da zabalik. "Ikasleek herriaren

historiaren gainean ikastea gura dugu eta, dagoeneko oporretan daudenez, iraillerako material didaktikoa prestatuko dugu", azaldu zigun Aramendiak.

## ERAKUSKETA ETA LIBURUXKA

Erakusketa lau informazio panelez osatuta dago: *Jose Arana Elorza, Jose Arana eta Donostia, Jose Arana eta Madrid eta Jose Arana*

*eta Eskoriatza*, hain zuen ere. Panel horietan jasotako informazio guztia liburuxkatan ere batu dute, eta horiek eskuragarri egongo dira Ibarraundin. "Era-kusketa etxera eramateko modu bat da", azaldu zigun Isabel Aramendiak.

Panelez gain, baina, bestelako elementuak ere izango dira: hala, zezen-plaza handi bat eta Aranaren bulegoa irudikatu dituzte; herriko plazan zegoen Jose Arana eskolako erlojua eta marmolezko kartela berreskuratu dituzte; Mariano Benlliurek egindako panteoiaren erreplika bat jarriko dute; eta baita Aranaren gaineko bideo muntatua ere.

## EKINTZALE ETA FILANTROPOA

Jose Arana loteria-rekin aberastu zen Donostian, eta dirua inberitzeari ekin zion. Hala, hango Aste Nagusia Aranak berak asmatu zuen, eta zezenketak eta bestelako ikuskizun ugari antolatu zituen, tartean Donostian egindako nazioarteko orfeoi eta txaranga lehiaketa. Madrilen ere egin zituen hainbat urte: han Errege antzokiko arduradun izan zen bost urtean eta arrakasta handia izan zuen, antzokiari galduztako xarma eman zion-eta. Horrekin guztia-rekin diru ugari batzeaz gain, irabazitakoa Eskoriatzan eta beste leku batuetan banatu zuen Jose Arana mutilzaharrak.

## Herrian jaio zen eta bertan dago lurperatuta

Jose Aranak urte asko egin zituen Donostian eta Madrilen, baina tarteka jaioterrira etorri zen eta harreman estua zeukan Eskoriatzarekin. Hil zenean, testamentuan 200.000 pezeta utzi zizkion herriari eskola, ospitalea eta ur hornidura egiteko. Herrian lurperatu zuten, Mariano Benlliurek egindako panteoian.



IBARRAUNDI

## > LEHIAKETA San Pedro jaietako argazki lehiaketa deitu du Udalak

Udalak San Pedro jaietarako argazki lehiaketa antolatu du. Lanak euskarri digitalean aurkezta beharko dira, eta 4x3ko zabalerla proportzionala izan beharko dute. Argazkiak aurkezteko azkeneko eguna uztailaren 18a izango da, hain zuzen ere.

Bestalde, parte-hartzaile bakoitzak gehienez hamar argazki aurkezta ahal izango ditu. Horretarako, interesatuek [kultura@eskriatza.net](mailto:kultura@eskriatza.net) helbidera jo beharko dute.

Aurkeztutako argazki guztiek [www.eskriatza.net](http://www.eskriatza.net) webgunean jarriko dituzte, eta honako sariak banatuko dituzte: argazki onenari 150 euro, bigarrenari 100 eta hirugarrenari 50 euro.

## > GARRAIOA Autobus geltokiak aldatuko dituzte San Pedro jaietan

Udalak jakinarazi du San Pedro jaietako itxita egongo direla, antolatu dituzten ikuskizun eta ekintzen ondorioz. Hala, biharkik, zapata, eguztenera (uztailaren 2a) bitartean ohiko autobus geltokien ordez beste batzuk erabili beharko dituzte. Hortaz, biharko 12:45etik eguzteteneko 07:00ak bitartean honako hauek izango dira behin-behineko geltokiak: Eskoriatza eta Arrasate arteko Bertakoak zerbitzua hartu gura dutenek Aingeru Guarda pasealekuaren (Alza ondoan) edo Intxaustxuetan izango dute horren aukera; eta Arinak erabilizko, hau da, Gasteizkoak, Aingeru Guardan bakarrik.

## > PREBENTZIOA Domekan, alkohol kontsumoa neurteko aukera

Etzi, domeka, nork bere borondatetik alkohol kontsumoa detektatzeko eta neurteko probak egiteko aukera izango da herrian. 00:00etik 03:00ak arte egongo da zabalik karpa bat horretarako Jose Arana kalean.

Karpa hori jartzeak Udaleko Prebentzia Sailaren ekinmena du oinarri, eta Sasoia enpresako talde teknikoa arduratuko da alkohol maila neurteaz. Horrekin lotuta, jakinarazi dute proba egin gura dutenek baldintza bakkara bete beharko dutela: adin nagusikoa izatea, hain zuen ere. Proba egiten dutenei alkoholaren ondorioen gaineko informazioa eta alkoholimetro bat emango dizkiete.

Joan den astean  
estreinatu zuten  
ikuskizun gunea

Hilero kontzertu bat eta  
bakarrizketa ekitaldi  
bat egin gura dute

Helburua da herrian  
daudenendako  
ekitaldiak egitea

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Azkoaga Eneko arduradunak  
hasi dira hoteleko lorategian  
ikuskizunak egiten. Hain zuen  
ere, joan den egubakoitzean pia-  
no eta biolontxelo emanaldia egin  
zuten lorategian.

Hoteleko arduradunek jakin-  
narazi digure asmoa aspaldiko  
dela, baina horren aurretik inguru-  
ua ondo babestu gura izan dute-  
la istripua saihesteko.

**LEHENNGOAK, ARRAKASTA**  
Hala, behin arazo hori saihestuta,  
joan den egubakoitzean Elo-  
rrioko Blanqui Gomez piano jo-  
tzaileak eta Aretxabaletako  
Eñaut Zubizarreta biolontxelo  
jotzaileak kontzertua egin zuten,  
arratsaldean. Ikuskizunak oso  
harrera ona izan zuen, eta hote-  
leko arduradunak oso pozik dau-  
de emaitzarekin.

Hortaz, emaitzak ikusita,  
hamabostean behin ikuskizunak  
egitea pentsatu dute, eta ahal  
bada, gainera, aste barruan.

KULTURA > IKUSKIZUNAK

# Ikuskizunak egiten hasi dira Azkoaga Enea hotelean



Argazkian, joan den egubakoitzeko kontzertua. Blanqui Gomez piano jotzaileak agindu zuen hamabostean behin pianoa joko duela hotelean.

AZKOAGA ENEA

**ABUZTUAN ERE EMANALDIAK**  
Uztailaren 17an, eguna, Carlos  
Celero-k bakarrizketak egingo  
ditu lorategian.

Hurrengo ikuskizunak ez daude  
konfirmatuta oraindik, baina  
bakarrizketak eta kontzertuak  
tartekatu gura dituzte. "Kanpotik

jendea badator, ondo, baina hel-  
burua da, batez ere, herritarren-  
dako gauzak egitea eta abuztuan  
ere ekimenak izatea. Ea Errekan

Gora, Inkernu eta gurea batuta  
herriari bizitasun handiagoa  
ematen diogun", azaldu zigun  
Azkoaga Eneko Valen Gomezek.

**OSOKO BILKURA > HILEROKO BATZARRA**

## Huhezin obrak egingo dituzte

San Pedro kaleko 7.  
zenbakiko bizilagunei  
kalte-ordinak emango  
dizkie Udalak

**I.B. > ESKORIATZA**  
Martitzenean ohiko osoko bilku-  
ra egin zuten udaletxeen. PSE-  
EEko eta Elizateetako ordezka-



IKER BARANDIARAN

riak ez ziren egon, baina gainontzeko alderdietako ordezkari guztiak, bai.


**KULTURA ELKARTEAK**  
Lehenik eta behin, Pedro Lasagabaster alkateak Arrasateko alkate Ino Galparsororen omenezko poesia irakurri zuen. Lasagabasterrek gogoratu zuen Galparsorok 60 egun bete dituela kartzelan.

Landu zituzten gaien artean  
kontuan izan zuten herriko zen-  
bait elkartea dirulaguntzak jasotze-  
ko epea bete ezinik zebiltzala.  
Hala, Amuska eta txistularien  
elkartearrekin salbuespena egitea  
onartu zuten aho batez.

**SAN PEDROKOI KALTE-ORDAINA**  
Horrez gain, udalatzak aho batez  
onartu zuen San Pedro kaleko 7.  
zenbakiko bizilagunei 28.414  
euroko kalte-ordinaria ematea.  
Horren arrazoia da Udalaren  
erruz igogailu bat egin ezinean  
egon direla.

Gaia aldatuta, udalatzak begi onez ikusi zuen Maringo  
bizilagun batzuek ur sarera  
konektatzeko eskaria. Hala, Uda-  
lak kostuaren %25 finantzatuko  
du, beste batzuetan egin ohi duen  
moduan.

Berbagai izan zuten beste kon-  
tu bat izan zen Huhezik egin  
behar dituen hainbat konponke-  
ta eta berrikuntza lan Udalak  
interes berezikotzat hartza.  
Hala, Huhezin kapera altxatu  
gura dute eta eraikinaren atze-  
ko zelaian ikasgela aurrefabrika-  
tuak ipini gura dituzte.



GOIENKARIA

## Gaztelekuak jaia egingo dute

Txatxilipurdik eta Eskoriatzako Udaleko Gazteria Zerbitzuak jaia  
antolatu dute biharko, zapatura, gaztelekuak. Ohikoa duten  
moduan, ekitaldiak 12 eta 16 urte bitartekoendako izango dira.  
San Pedroak direla-eta, ikuskizun bereziak egitea erabaki dute.  
Hala, 19:00etan jokoak izango dituzte; 20:00etan Bergarako Azkai-  
ter Pelox bakarlariak (argazkian) kontzertua egingo du; 21:30ean  
mahaiaren bueltan elkartuko dira afaltzeko; eta 22:30etik 00:00etara  
bitartean musika festa egingo dute.

## &gt; ADINEKOAK

**Erretiratuen eguneko bazkaritarako izena eman behar da aurrez**

Uztailaren 13an, domeka, Erretiratuen eguna ospatuko dute. Aurten estreinakoz, bazkaria Landatxope lokalean egingo dute, Torresoro eraikinean. Bazkaldu aurretik meza izango da 11:30ean eta Antzuolako abesbatzak jardungo du han. Bazkaria 14:00etan egingo dute eta ondoren dantzarako aukerarik ez da faltako. Gainera, opari bana jasoko dute bazkaritarako joaten direnek. Izena emateko uztailaren 1etik 4ra bitartean dago aukera 17:00etatik 18:00etara bitartean.

## &gt; JAIAK

**Marmitako lehiaketan izena emateko epea zabalik dago**

Jaietan, egubakoitz eguerdian, marmitako lehiaketa egingo dute frontoi txikian. Herriko gastronomia elkartek zein lehiaketarako propio osatutako taldeek eman ahal izango dute izena, eta taldeak bi edo hiru lagunekoak izango dira. Uztailaren 7ra arte dago epea zabalik izena emateko: 943 76 62 46 telefono zenbakira deitura edo e-postaz *kultura@antzuola.net* helbidera idatzitsa. Talde bakotzak 60 euroko dieta jasoko du osagaiak erosteko.

## &gt; ALARDEA

**Uztailaren 2an izango da Alarderako lehen entsegua**

Mairuaren Alardearen Elkartetik herritarrei jakinarazi nahi diente uztailaren hasieran ekingo dietela alardeko entseguei. Uztailaren 2an danbor joleek egingo dute lehen saioa, eta uztailaren 9an eta 16an danbor joleek eta eskopetariet. Alardean parte hartu nahi dutenak aurrez esandako egunetan udaletxeko arkupeetan elkartuko dira 21:00etan eta gero joango dira entsegua egingo duten tokira.

**MUJICA HARATEGIA**

**Berezitasunak:**  
**Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
**ANTZUOLA**  
Tf. 943 76 64 34



Bergara aldera doan zatia da lehenengo egokituko dutena.

I.A.

**AZPIEGITURAK > BIDEGORRIA****Bidegorria, gertu urte amaierarako**

Etxezuri baserritik Arizti baserrira arteko bidegorriaren lehen zatia egingo du Diputazioak

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**

Antzuolako Udaleko ordezkariek Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalekin batzartu dira, besteak beste, bidegorriaren gainean berba egiteko.

Bileran hitz egindakoaren arabera, 2008 bukaerarako edo, beranduenez, 2009 hasierarako, bidegorriaren lehen zatia eginda egongo da. Etxezuri baserritik Arizti baserrrainokoa izango da, hain zuen ere, lehen zatia, eta zatiaren amaieran zubi bat ipiniko dute. Lanen kostu guztiak ordaintzeaz Gipuzkoako Foru Aldundia arduratuko da.

Bigarren zatia Arizti baserritik Lapur-zubirainokoa da. Gero autobidea gainean egingo dutenez, oraingoz bidegorri bezalako zatia egingo da. Etxezuri baserritik Arizti baserrira arteko bidegorriaren lehen zatia egingo du Diputazioak. Hirugarren zatia Lapur-zubitik Bergarara iritsiko den zatia da. Zati hori kolektorearen obrak egiten dituztenean egingo dute, bi lanok zati komunak baitituzte.

**DESKARGA ALDERA**

Bergarako zatiak ez ezik, Urretxura, trenbide zaharretik, doanaz ere jardun zuten. Diputazioak asmoa du Deskargan bidegorria Legazpi aldera bideratzeko, baina Udalak proposamena egin du Deskarga inguruan beste bide bat har dezan. Hala ere, oraindik teknikariekin landu behar dituzte proposamenok.



PILAR ETXANIZ

**Aldabeko iturria konponduta**

Aldabeko iturria konpondu zuten zapatuan auzolanean bost lagunek. Garai batean Zubia zegoen erreka pasatzeko, baina, uholdeek hondatu ostean, hodi bat ipini eta ura errekez beste aldera ekarri zuten. Iturri ingurua garbitu eta egokitua eta Ariztitik iturrira bidea egin zuten. Orain geratzen da bidezidorra babesteko baranda ipintzea, hartunea egokitzea eta erreka zeharkatzeko hodi berriak eta erroto luia ipintzea.

**ELKARTASUNA > ANELKAREN JAIA****Izena eman behar da afarira eta guatekera joateko**

Uztailaren 12an egingo du Anelkarrek elkartasun afaria eta guatekera frontoian

**I.A. > ANTZUOLA**

Anelkarrek afari solidarioa antolatu du uztailaren 12rako. Joan nahi dutenek uztailaren 1etik 9ra bitartean eman beharko dute izena eta 20 euro ordaindu Ongi Etorri eta Gorosti tabernetan, Nerea drogerian edo Itzar liburu dendar.



Elkartasun proiektuetarako dirua lortu nahi du Anelkarrek.

GOIENKARIA

**JAIAK > KALEBARREN****Egitarau oparoa gertatu dute Kalebarrengako jaietarako**

Bertsoak, jolasak, afaria, dantzak eta ikuskizuna izango dira asteburuan

**I.A. > ANTZUOLA**

Aste bukaera honetan ospatuko dituzte jaiak Kalebarren, eta egubakoitzetik domekara bitareterako egitarau oparoa gertatu dute auzotarrek.

Gaur, egubakoitzak, 20:00etan hasiko dira jaiak eta txapligoen ostean, bertso poteoa izango da. Hamaika Bertute taldeko Asier Otamendi eta Mikel Arrillaga bertsolariek jardungo dute herriko trikitilariek batera. Gauean, erromeria izango da Unsain anaikin, 22:30ean.

**UMEENDAKO EKINTZAK**

Zapatuan, txikienen txanda izango da. 11:00etan hasita marrazki lehiaketa, ginkana, soinujole gazteen kalejira izango dituzte goizez. Arratsaldean, berriz, 16:30ean umeendako talierrak eta jolasak egingo dituzte eta 19:00etan buruhandiak izango dira.

Afalosteetan guatekera izango da eta afaritara joan ez arren bost euroko sarrera ordaindua dantzaldira joan daiteke. Taberna ere ipiniko dute han.

70eko hamarkada gogoratuko dutenez, jendea animatu nahi dute orduko arropa jantziat joateko, jaia girotzeko.

**PROIEKTUAK**

Afarian eta guatekean batutako dirua erabiliko dute hainbat elkartasun proiekturi laguntzeko. Brasilgo, Senegalgo eta Kongoko proiektuak izango dira, nagusiki.

Kalebarren ohitura den moduan arbola jasoko dute gero, 20:00etan eta Ondarreko gaiteroen musika izango dute lagun auzotarrek.

Arbola jasotzeo egindako indarra berreskuratzeko edo jaiak girotzeko auzo afarian elkartuko dira.

Afalosteetan Biduri Sound disko jartzaileak ipiniko die soinua jaietako dantza egiteko aukera ere izango dute. Goizalderako arte irauten dutenek piropo eta antiproto lehiaketa parte hartzeko moduan izango dira.

**IKUSKIZUNA, ILUNTZEAN**

Txitulariek hasiko dute domenkako egitaraua. 11:30eko mezzaren ostean salda eta txorizoza banatuko dituzte eta dantzari gazteen saioa ere egongo da 12:00etan. Arratsaldean mus txapelketa eta umeendako jolasen ostean, ikuskizun batek itxiko ditu jaiak. Argentinako Los Estramboticos taldeak *Kataplum* emanaldia eskainiko du. Zirkuko ariketak, antzerkia eta musika uztartuko dituzte umorezko ikuskizun batean 20:00etan.

bere ustez



Maria Elena Eztenaga

## Ezkontzako argazkiei begira

Gure Larraitzek eta Etorrek ezkontzeko erabakia hartu dutela-eta, bat-batean zera bururatu zitzadan: nire alaba eta semea txikiak zirenean, sarritan, gure ezkontzako argazki bilduma hartzen zuten eskuetan eta, aitaita-amama, osaba-izebak, lehengusuak eta hainbat senide eta lagun seinalatu ondoren, barneko tristura euren aurpegitxoetan agertuz, beti galdera berbera egiten zidaten: "Ama, ama, eta gu non gaude? Zergatik ez gara argazkietan agertzen?"

**"Nire alabak eta semeak txikitau gure ezkontzako argazki bilduma hartzen zuten"**

Agian, horrelako galdera bat tontokeria hutsa eta galdera barregarria dela iruditu zu zaio askori. Baino gure umetxoen aurpegia ikusita ez dut uste barre egitekoa zenik kontua; ez behintzat eurendako.

Zergatik etorri zaidan burutazio hori? Bada, bikote honek ez duelako horrelako galderarik erantzun beharrik izango.

Zeren, euren bihotzeko Ander maitea agertuko da aitarekin eta amarekin ezkontzako argazkietan.

Lerro hauen bitarte zorionak eta animuak eman nahi dizkizuet: aupa, hirukote! Bihotz-bihotzetik bejon-deizuela, eta mundu honetako bedeinkapen eta zorion guztia zuendako.

AISIALDIA > UDAKO ESKANTZA

# Udako ekintzetan, 26 umek eman dute izena

Bi begiralerekibiliko dira 2 eta 10 urte bitarteko umeak eta ahalik eta jarduera gehien kanpoan egitea da asmoa

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA**  
Ikasturtea amaituta, umeendako eta gazteendako ekintzak antolatu dituzte uztailerako. Uztailaren 7tik 30era bitartean hainbat aisiaaldi jarduera egingo dituzte.

2 eta 10 urte bitarteko 26 umek eman dute izena aisiaaldi ekintzearako. 09:00etan hasi eta 12:30era bitartean egongo dira, baina 10:00ak bitartean, sarrera malgua izango dute.

Nagore Ojanguren eta Maialen Retolaza begiraleekin, kirol ekintzak, jolasak, eskulanak...

egingo dituzte. Saiatuko dira -betiere, eguraldiak hala uzten badu- ahalik eta ekintza gehien kanpoan egiten. Izen ere, ikasturtean barrena, eskolan nahiko denbora ematen dute gelan sartuta umeek.

### GRAFITIA ETA ARGAZKILARITZA

Txikiendako ez ezik, nagusiagondako ere antolatu dituzte jarduerak. Uztailaren lera arte izango dute, udaletxera joanda, izena emateko aukera 10 eta 16 urte bitartekoek.



ZEZILIO TOTORIKAGUENA

## Pozalaguako kobak eta animalien parkea ikusi zituzten erretiratuek

Elgetako erretiratuek ekainaren 18an irteera egin zuten Bizkaira, Karrantza bailarara. Kuxak antolatutako txangorako autobusa bete egin zuten 48 lagunek. Hamarretako egin ostean, Pozalaguako kobazuloa bisitatu zuten (argazkian kobazuloko atarian) eta baita animalien parkea ere. Bazkalostean, eliza txiki bat eta hango pinturak ikusteko aprobetxatu zuten bidaia. Txangoa gustura ibilita, datorren irteera nora egin pentsatzen hasiak dira jadanik erretiratua.

Hurrengoa irailerako antolatuko dute.

Bi talde egongo dira: kirola eta grafitia uztartuko dituzte lehenengo taldekoek, eta kirola eta argazkilari digitala, bigarrenekoek. Kirol ekintzen aranean daude eskalada, mendi bizikleta irteera, kirol alternatiboak eta jolasak, besteak beste.

Aste bakotzeko 45 euro ordaindu beharko dituzte partaideek; uztail osoan barrena parte hartzen dutenek, berriz, 40 euro asteko; eta familia bereko bi kide edo gehiago badaude, bakoitzak asteko 35 euro.

### HELDUENDAKO KIROL ESKANTZA

Bestalde, helduendako udarako kirol ekintzen eskaintza ere egin du Udalak. Aukeran ipini dituzte pilates, areto dantza eta tai txi ikastaroak.

Ikastaroak uztailaren 7tik 31ra bitartean izango dira. Pilates ikastaroa astelehenetan eta eguztetenetan 11:30etatik 12:30era bitartean; areto dantzak martxetenetan eta eguztetenetan 19:00etatik 20:00etara; eta tai txi ikastaroak astelehenetan eta eguztetenetan 19:45etik 21:00etara. Lehenengo biek 25 euro balio dute eta 30 euro hirugarrenak. Interesatuek uztailaren 1era arteko epea izango dute udaletxean izena emateko.



Zorionak guztioi!

> GARAJEAK  
**Udalak lau garaje ditu salgai Torrealdean**

Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzetan lau garaje plaza ditu salgai Udalak, hiru itxiak eta zabalik laugarren. Interesa dutenek uztailaren 7ra bitartean eman dezakete izena udaletxeen, Elgeta 21en bulegoan. Garajeen prezioak 10.950 euro eta 15.650 euro bitartekoak dira.

> KIROLA  
**Intxortako Lehoiak taldearen bilera izango da domekan**

Intxortako Lehoiak Athletic-zaleen taldeak batzarra egingo du domekan, ekainaren 29an, 20:00etan, Bolatoki tabernan. Bileran berba egingo dute, besteak beste, jaietarako ekintzez eta baita taldearen pin-en gainean ere. Bazkideei bilerarako gonbita egin nahi diete.

> JAIAK  
**Herriko tabernetan salgai daude jaietako afarirako txartelak**

Jaietako egunean egingo duten herri afarirako txartelak salgai daude herriko tabernetan 15 euroren truke. Bestalde, barikuan umeendako bazkaria egongo da plazan eta txartelak Julianen kioskoan eros daitezke hiru eurotan.

San Roque 26 ELGETA  
Tel.: 943 78 91 07  
Fax: 943 78 91 06

[www.casaruralelgeta.com](http://www.casaruralelgeta.com)  
[hotelrosena@terra.es](mailto:hotelrosena@terra.es)



**IRAMA**  
ELEKTRIZITATEA  
Instalazioak eta mantentze lanak

Zorionak, elgetar guztioi!

Salbador 3 • Elgeta  
Tel. eta faxa: 943 78 90 57 • Poltsikokoa: 619 69 23 36

**OSMA**  
PIESEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salbador kalea 19 behe • 20690 ELGETA  
Tel.: 943 76 81 27  
Mobila: 677 03 27 39

**((112)) SOS DEIAK**

**UDALA > IRISGARRITASUN PLANA**

# Udala irisgarritasun plana ari da lantzen, eta Eusko Jaurlaritzan urrian aurkeztea espero du

Adir enpresarekin elkarlanean ari da plana lantzen Udala, eta herriko oztopo arkitektonikoak kentzea da helburua

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Pasa zen otsailean hasi zen Aramaioko Udala irisgarritasun plana prestatzen. Horretarako, Adir enpresa kontratatu zuen. Enpre-

sa horrek Aramaioko kaleak eta auzoak aztertu ostean, txosten bat aurkeztu berri dio Udalari. Bertan, Aramaioko oztopo arkitektoniko nagusiak jasotzen dira eta horiek konpontzeko irtenbideak proposatzen dituzte. Udalak, orain, txosten hori aztertuko du eta proposamenak egingo ditu. Horretarako, gainera, hilaren 30era arte herritarren iritziak jasoko dituzte. Horrenbestez, proposamenen bat daukatenek datoren astelehenera arte izango dute aukera horiek Aramaioko udaletxean aurkezteko.

Aramaion espaloia dira arazo nagusia, Adir enpresak aurkeztutako txostenaren arabera, gehienak ez daude-eta gurpildun aulkienkako egokituta. Espaloi asko, bestetik, estuegiak dira, eta zabaltzea proposatzen dute. Ikastolan igogailua jarri beharko litzateke eta eraikin publiko guztietan braille hizkuntza ipini errotuluetan. Osa-sun etxeko sarreran ere aldaketa batzuk egin beharko lirateke.

Urrirako plana bukatuta egongo da eta Jaurlaritzan aurkeztuko dute. Irisgarritasun planera 9.280 euro bideratuko ditu Udalak.



Adir enpresak aurkeztutako txostenak dio espaloia direla oztopo arkitektoniko nagusiak Aramaion.

ARAMAIO

**SAN MARTIN JAIAK > EGITARAUA**

# Jaietako egitarauan nobedade bat baino gehiago egongo da

Zapatuan, tortilla txapelketa egingo dute, eta domeka arratsaldean, bertso monologoak

**A.B. > ARAMAIO**

San Martin jaiak gainean dira eta guztia prest dago datorren barikuan txupinazoaren ostean festa giroa murgiltzeko. Auren, gainera, jaiei kutsu desberdin emateko asmoarekin eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko, aldaketa bat baino gehiago egongo da jaietako egitarauan.

Barikuan, 19:00etan, murgilduko da Aramaio festa giroa. Txupinazoaren ostean bertso eta triki potea egingo dute festa giro hori herriko kaleetan zabaltze-

ko. Gauean, gero, kontzertuak egongo dira. Anestesia, UEK eta Feos Pero Majos taldeek egingo dituzte emanaldiak.

Zapatuan, goizean goiz hasita egongo da zereginik. 12:00etan, buruhandiak egongo dira; herriko gazteek egindako buruhandiak izango dira, gainera. 12:30ean tortilla txapelketa egingo dute. Aurtengo egitarauko nobedadeetako bat da hori, eta Jai batzordetik herritarra lehiaketan parte hartzen animatu gura dituzte.

Arratsaldean, urteroko Txirri-tolinpiadak egingo dituzte, eta doinu mexikarrak entzuteko aukera ere egongo da, Real Azteca taldearen eskutik. Gauean, kontzertuak egongo dira.

Domekan ere egongo da nobedaderik. Arratsaldean, herri kirolak egingo dituzte plazan. Urte asko dira herri kirolak egiten ez direna, eta ohitura hori berreskarratu nahi izan dute. Ondoren, bertso monologoak egongo dira, eta hori ere berritasuna izango da.

Astelehenean, umeendako jolasak egongo dira goizean, eta eguerdian, Marshall magoaren ikuskizuna plazan. Gauean, afaria egingo dute eta, gero, disko jartziale bat egongo da txosnetan.



EAEko zinegotzi zirenak bakarka jardungo dute aurrerantzean.

GOIENKARIA

**UDAL GOBERNUA > TALDE MISTOA OSATU DA**

# EAEko zinegotzi zirenak talde mistora pasatu dira

Talde mistoan egon arren, ez dute talde moduan jardungo Udalean, bakarka baizik

**A.B. > ARAMAIO**

Auzitegi Nacionaleko epaile Baltasar Garzonek 2008ko otsailaren 8an egindako autoak Eusko Abertzale Ekintzaren jarduerak bertan behera uztea exijitzen du. Horri irtenbide bat topatzeko asmoz, EUDELeak txosten bat bidali die udalei, jarraitu beharreko pausoeng inguruko zenbait proposamen egin. Txosten horrek proposatzen dituen irtenbideak ikusita, Aramaion egindako azkeneko osoko bilkuraren aho batez onartu zen EAE udal taldearen ekintzak bertan behera uztea.

Udal zinegotzien parte-hartzea bermatzeko, talde mistoa

eratzea erabaki zen, eta Asier Agirre, Joseba Jauregi, Martin Arriolabengoa, Jon Errasti eta Ainara Inuntziaga talde mistoko kide izatera pasatu dira, Baltasar Garzonen autoaren ondorioz talde barik gelditu dira-eta. Dena dela, talde mistoan egongo badira ere, ez dute talde moduan jardungo, ez dute loturarik izango elkarren artean eta bakarka jardungo dute.

Erabaki horren ondorioz, 2000ko apirilaren 12an Aramaioko udalbatzak udal talde politikoen asignazioaren inguruaren hartutako akordioa bertan behera uztea onartu zen azkeneko osoko bilkuran.



Guztia prest dago San Martin jaiei ongietorria egiteko.

GOIENKARIA

OSOKO BILKURA > ORDENANTZA ALDAKETA

## Abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantza, onartuta

Apirilean aurkeztutako ordenantzari aldaketatxo bat eginda onartu zuten asteleheneko osoko bilkuran, alegazio bat kontuan hartuta

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**  
Abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantza behin betiko onartu du udalbatzak. Ordenantza aurretik zegoen, baina apirilean aldaketa batzuk egitea proposatu zuen, baserritar eta abeltzainekin adostuta. Hala ere, alegazio bat jaso dute ikusgai egon den tartearen, eta eskatutakoak aztertuta, aldaketatxo bat egin diote onartu aurretik.

**ESKAERAK EGITEKO, HIRU TALDE**  
Udalak erabaki zuen apirilean gatzagarrek lehentasuna izatea abereak mendian ibiltzeko eskaera egiterakoan. Gatzagar dionean, ondoko hiru baldintzak betetzea eskatzen du: Gatzagan erroldatuta egotea, bertan bizitzea eta abereendako lurrik izatea. Alegazioa aurkeztu duena ez da bertakoa, baina Gatzagan lurrik ditu, eta horregatik, gatzagarrek dituzten eskubideak gura ditu. Udalak ezetza eman dio eskaera, baina aldaketatxo bat sartu du ordenantzan. Abereak mendian ibiltzea eskatzen dutenen artean, hiru talde egongo dira: gatzagarrak -herriko erroldatuta, bertan



Ardiak Goierri auzoko zelaian, aurtengo udaberrian.

ARGINDARRA > TRANSFORMADOREA

## Iraillerako aldatuta egongo da herriko transformadorea

Aurrekontutik 122.000 euro gordetzea erabaki dute lanendako; ez dakite mailegurik beharko duten

lanon gaineko argibide gehiago uztailaren bukaeran izango dugu", dio.

### ARGINDARREAN ERAGINIK EZ

Urbina enpresak aldatuko du Gatzagako transformadorea. Udalak Iberdrolari erosten dio argindarra, eta ondoren, herrian banatzen du, Leintzargi enpresaren bitartez. Urbinak, hain zuzen, Leintzargi enpresa kudeatzen du. Orain, baina, nahiko potentzia ez dauka transformadoreak, eta aldatu beharrean dago. Eta halaxe eskatu diote Espainiako gobernuko Industria Saileko ardura-dunek Udalari.

Alkateak uste du iraillerako aldatuta egongo dela, baina ezin du datarik eman: "Transformadorearen piezak ez dakigu noiz iritsiko diren, ezta langileek noiz egingo duten lan ere", dio. Lanok egin bitartean, hala ere, herritarrek ez luke tela etxearen ezer igarri beharko uste du Villarrek, eta argindarra berdin-berdin jasoko dutela.



Herrian argindarra banatzen duen transformagailua.

MIRARI ALTUBE

bizi eta lurrik dituztenak; aurreko hiru baldintzetatik bat betetzen dutenak; eta kanpokoak -aurreko baldintzarik betetzen ez dutenak. Hala, lehentasuna gatzagarrek izango dute, baina, horiek eskaerak egin eta gero, oraindik lekua baldin badago abere gehiagoren dako, bigarren taldekoak sartuko dira. Zenbat abere ibil daitezkeen mendiko lur zati bakoitzean Foru Aldundiak zehazten du.

Bestalde, alegazioa aurkeztu duenak abereak mendira bidali gura ditu, eta Aldundiari eskaera egiteko konpromisoa hartu du Udalak.

**GATZAGARREK, MERKEAGO**  
Mendira eroaten dituzten abere horiek lur publikoetan ibiltzen dira, eta jabeek ordaindu egin behar diote Udalari. Beste ordenantza batek tasak zehazten ditu, eta aldaketa egin du hor ere udalbatzak. Gatzagarrek tasa bat izango dute; gatzagar ez direnek baina hiru baldintzetako bat betetzen dutenek %50 gehiago ordainduko dute; eta kanpokoek, %100 gehiago. Tasa abereko dauka ezarrita Udalak, eta zaldiek eta behiek prezio bat daukate, eta ardiek, beste bat. Abeltzainen elkarteko kideek, gainera, 10 euroko kuota dute urtean.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

GOLFA &gt; IX. DEBAGOIENEKO SAN JUAN TXAPELKETA

# Jon Anduaga jokalari oñatiarrak Larrabeako errekorra ondu zuen

Martitzenean jokatu zuten Larrabeako zelaian Debagoieneko San Juan Txapelketa

Anduagak 66 kolpe behar izan zituen Larrabeako zelaiko ibilbidea egiteko

**XABIER URTZELAI** > BERGARA  
Larrabeako (Legutio) golf zelaian egiten duten Debagoieneko San Juanetako Golf Txapelketak bederatzi urte egin zituen martitzenean, eta dagoeneko klub horretako txapelketa garrantzitsuenetako batean bilakatu da, baita sariei dagokienez ere.

**TALDEKA, EIBAR IZAN ZEN ONENA**  
Martitzenean Debagoieneko 94 lagun animatu ziren txapelketan esku hartzera, hainbat kategoria banatuta. Lehia horretan Eibarko eta Soraluzeko jokala-



Martitzeneko txapelketan esku hartu zuten ibarreko golf jokalarien erretretua, Larrabea (Legutio).

KOLDO GOROSPE

riek ere hartzen dute esku; iaz, Bergarak eskuratu zuen herriko saria, baina martitzenean Eibarko jokalariak izan ziren onenak.

Hala, izatez arrasatearra den baina urtetan Gasteizen bizi den Koldo Gorospek txapelketan izandako giro ederra azpimarratu du: "Eguraldia lagun oso txapelketa

ederra izan da aurtengoa, eta dato-ren urtekaoa hamargarren edizioa izango denez, ea zerbaiz berezia egiten dugun". Sarien gainean ere egin zuen berba Gorospek: "Augastako sarian irabazleari txaketa orlegia janzen diote, guk bergararren mahoizko txaketak banatzen ditugu", esan du barrez. Lehian zehar maila ona erakutsi

zuten jokalariiek, eta horren adieraz da Jon Anduagak egindakoa. Golf jokalari oñatiarrak Larrabeako errekorra ondu zuen -66 kolperekin egin zuen zelai osoko ibilbidea. Hala, scratch saria eta driver luzeenaren saria eskuratu zuen Anduagak. Antolatzaleek babesleen laguntza eskertu gura izan dute.

PILOTA

## Elgetako lau t'erdiko finalerdiak, gaur

**X.U. > BERGARA**  
Gaur, egubakoitzta, 20:00etan hasita jokatuko dituzte Elgetako Lau t'erdiko Txapelketa-ko finalerdiak. Kadete mailan Urbietak Juanenea izango du aurrean, eta Gallartzak Taintaren kontra jokatuko du.

Senior mailan, berriz, Onsalok eta Renobalesek jokatuko dute finalerdieta bat, eta Urrutikoetxea eta Berioz izango dira beste zeingehiagokan. ETBk emango ditu partiduok.

**IBARREKO ORDEZKARI BARIK**  
Elgetako Txapelketan Debagoieneko pilotari batek ere ez du lortu finalerdieta sailkatzeari. Aitor Mendizabal zen txapelketako faboritoetako bat, baina joan den egubakoitzean Antzuolakoak kale egin zuen Renobalesen kontra.

Mendizabalek, baina, lehenbailehen atera zuen arantza hori, Urretxuko San Juanetako txapelketa irabazi zuen-eta domekan Soraluzeko Iñaki Jauregi lagun zuela (22-15).



# 0 Km-aren jaia

## Eskaintza hoberenak:

- 0 Km-ean
- La berriestan
- Direkzio autoetan

**Giauto**

Kontzesionario ofizialak

**GIAUTO OPEL**

ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA  
ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA

Tel. 902 345 123 Salmentak  
Tel. 902 345 125 Tайлера

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

**GIAUTO CHEVROLET**

EIBAR · OLABERRIA

Tel. 902 345 225  
[www.red-chevrolet.com](http://www.red-chevrolet.com)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

**GIAUTO SAAB**

BERGARA

Tel. 943 763 347  
[www.giauto.redsaab.com](http://www.giauto.redsaab.com)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)



Iazko lasterketan, irteera puntuak egindako erretratua, Etxe Aundi jatetxearen parean.

GOIENKARIA

ATLETISMOA > TORREAUZOKO KROSA

## Torreauzoko krosak hamaika urte egingo ditu domekan

10:30ean gaztetxoen lasterketa egingo dute eta 11:00etan korrituko dute nagusiek

XABIER URTZELAI > OÑATI

San Pedro jaien barruan egingo dute domekan Torreauzoko 11. Krosa. Aurten Antxintxiketan taldeak hartu du proba hori antolatzearren ardura. Hala, Asier Osiñagak azaldu duen moduan,

aurrekontu aldetik justu samar ibili diren arren, proba hori ondoren egiten den zozketagatik egin da famatu, eta aurten ere mailari eusteko ahalegina egingo dute: "Baina, orain arte zozketatzen ziren urdaiazpikoak gatzengatik

ordezkatuko ditugu", esan digu umore onaz. "Gogoan dut iaz 100 lasterkari inguru izan ginela, eta gutako erdiak saria eraman zuen etxera.

GEHIENAK, IBARREKOAK

Aurten ere lasterkarien parte-hartzea antzerakoan izango dela uste dugu". Zozketarekin batera, baina, lehenengo sailkatuek euro batzuk poltsikoratuko dituzte:

200 lehenengoak, 100 bigarrenak eta 50 hirugarrenak. Horrekin batera, inork probaren marka ontzen badu, beste 200 euro irabaziko ditu; gizonezkoetan Abdeslam Serrokh-ek du errekorra (22.07), eta emakumezkoetan Cristina Petitek (26.06).

Goiko markak profesional mailako atletek eginikoak dira, eta maila apalago batean, atleta herrikoien artean, beste marka hauek gainditzen dituztenenda-ko 50 euro izango dira: Ritxar Fernandez (22.41), eta Estela Biain (31.01).

GAZTETXOENDAKO ERE BAI

Domekarako prestatu duten hitzordua ez da nagusiendako bakarrik, gaztetxoendako lasterketa ere egingo dute-eta. Hala, 10:30ean kadete, infantil eta alebin mailako atletek 2.000 metro-tako lasterketa egin ahal izango dute, eta ondoren etorriko da nagusiena (7.600 metro).

Ibilbideari dagokionez, Torreauzon bertan egongo da irteera puntuak eta baita helmuga ere -Etxe Aundi jatetxearen ondoan. Handik Usako aldera egingo dute korrikalariek, eta errepidean gora jarraituko dute Olateraino, han buelta erdi eman eta behera egiteko. Izenemateari dagokionez, antolatzaileek egunean bertan hartuko dituzte izenak, proba baino ordu erdi lehenago. Helduak 5 euro ordaindu beharko dituzte krosean esku hartzearen, eta gaztetxoendako doan izango da.

TOURRA

## 'Tropela' webguneak gertu dauka lehiaketa

X.U. > BERGARA

Txirrindularitzako zaleek dagoeneko bete dezakete [www.tropela.net](http://www.tropela.net) webguneko lagunek Tourrari begira geratu duten lehiaketa. Giroan egin zuten lehiaketak harerra oso ona izan zuen, baina, duda barik, Tourrak errekor guztia hautsiko ditu.

Uztailaren 5ean hasiko dute Frantziako Itzulia, eta, kinielak egiteko orduan, askok kontuan izango dituzte Dauphine Libere eta Sutzako Itzulia. Bi itzuli horietan ikusten diren txirrindularien saso-i-puntuak ziurrenik jende askoren kinielak baldintzatuko ditu.

Baina badaude kiniela bolo-bolo egiten dutenak ere, ziklismoa gertu-gertutik jarraitu barik ustez aurrean ibiliko direnak aukeratzen dituzte-nak, edo, baita ere, gustuko txirrindularien alde egiten dutenak, beste barik.

Hala, Tourra jarraituz sariak eskuratu gura dituenak Tropelako kiniela betetzea dauka.

## DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA



OÑATIN

### Erdi Maila

- Mekanizazioa
- Talde gidaritza natur ingurunean
- Mantentze-lan elektromekanikoa



ARETXABALETAN

### Erdi Maila

- Soldadura eta galdaragintza
- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa

### Goi Maila

- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa



ESKAINTZA  
PAREGABEA!

MATRIKULAZIOA  
Ekainaren 31tik Uztailaren 4ra

ikasLAN  
Gipuzkoa

RM Zuazola - Larraña Institutoa  
San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati  
Tel.: 943 78 21 50  
E-posta: [onatikobhi@goieskola.net](mailto:onatikobhi@goieskola.net)  
[www.onati.net](http://www.onati.net)



Aretxabaleta GLHBI  
Etxebarri auzoa, z/g • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 79 00  
E-posta: [ia@aretxabaleta.com](mailto:ia@aretxabaleta.com)  
[www.aretxabaleta.com](http://www.aretxabaleta.com)



Aurten 84 milioi euro inbertituko ditugu Gizarte Ekintzan. **Adituek esaten digute publizitate-kanpaina zirraragarriren bat egin beharko genukeela. Bainaz ezagutzen gaituzu.** Guk nahiago dugu zuri Institutu Onkologiko berriaren lanak nola doazen erakutsi.

125 urte gizartearren ongizatearen alde lanean  
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**



## > SAN PEDROAK

Eskoriatza jaietan murgilduko da asteburu osoan barrena > 45



## > MENUAK EUSKARAZ

Menuak euskaratzeko gailua sarean > 51

## > NEREA ARIZMENDIARRIETA

Pazientzia da bere bertuterik onena eta umeekin lan egitea gustatzen zaiola kontuan izanda, doian ona da hori. Arrasatearra da, 21 urte ditu eta Loquillo du gustuko > 50



AZALA: ALEX AZKARATE

# Hamaika aukera gazteendako, oporrak gustura pasatzeko

Denetariko bidaia egiten dituzte gazte debagoiendarrek: udan, San Juan jaietan eta abuztuan bidaiatzen dute, batez ere; hala ere, oso zaila da bidaiaiaren perfila zehaztea.

### JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Udan gutxi izango dira herrikirik irteten ez diren gazte debagoiendarrek. Ikusi besterik ez dago, esaterako, abuztuan gure ibarreko herriean nagusi den lasaitasuna. Hori bai, gurean gazteek asko bidaiatzen dutela esan daitekeen arren, oso zaila da gazte debagoiendar bidaiaiaren estereotipoa zehaztea. Izen ere, gaur egun bidaiatzeko ematen diren erraztasunekin -hegaldien merkatzea, aterpetxe sareen areagotzea, une-

an uneko eskaintza bereziak...-, denetariko lekuak aukeratzen dituzte; eta ez hori bakarrik, oporrak antolatzeko orduan ere oso ikuspegi ezberdinak dituzte. Hau da, gazte debagoiendarrek epe ezberdinetan, garraiobide ezberdinak eta denbora tarte ezberdinetan gozatzen dituzte euren oporrezz.

Hala ere, aniztasun honen barruan badira gehien errepikatzenten diren lekuak, denboraldiak eta planak.

### GAZTE BULEGOEN GARRANTZIA

Gazteen opor ohiturak ulertzeko leku aproposen tarikoak gure ibarreko gazte bulegoak dira, zalantzak gabe. Izan ere, hainbat gazte bisitatzent du bere herriko gazte bulegoa oporrak antolatzeko orduan. Paper garrantzitsua jokatzen dute gazteen oporraldietan, gazteek badakite-eta bertan, besteak beste, informazio oso baliagarria eta zerbitzu berezi batzuk jasotzeko aukera izango dutela.

### FITXATEGIEN ZERBITZUA

Arrasateko gazte bulegoan, esaterako, aipatzeko da fitxategien zerbitzua, oso arrakastatsua baita. Opor garaian, hainbat gazte arrasatear hurbiltzen dira Biteri kalean dagoen gazte bulegora bertako informazio fitxategiak kontsultatzera. Fitxategi horietan oso informazio baliagarria aurkitzen dute gazteek: oporretarako helburuen arabera sailkatutako fitxategiak,

(43. orrialdetik dator)



NEW YORK Dolarra euroaren azpitik izateak debagoiendar asko animatu ditu AEBetara joatera.

GOIENKARIA

## Hamaika aukera gazteendako, oporrak gustura pasatzeko


(43. orrialdetik dator)

era ordenatuan eta noiz edo noiz eguneratzen doan informazioarekin. Izan ere, fitxategi horiek eskaintzen duten zerbitzua ezin daiteke edozein bidaia agentziatan aurkitu. Edozein tokitara bidaia- tu ostean, askok bisitatu duten lekuak eskuratu ahal izan duten informazioa uzten dute gazte bulegoan, gero hango teknikariekin sailkatu eta fitxategietan sartzeko.

Patxi Gezuraga Arrasateko gazte bulegoko teknikariak jakinarazi duenez, "fitxategienetan ideia bikaina da, arrakasta handia duna. Hamar urte baino gehiago beteko ditu, eta gazteen artean dagoeneko ohitura bihurtu da karteta horietako informazioa erabiliztea". Gainera, Gezuragaren aburuz, "txalotzekoa eta eskertzekoa da oporretan izan diren lekuetako informazioa hona ekartzea".

### NAFARROA ETA IPARRALDEA

Bidaiatzeko lekuak zehaztea zaila dela dio Gezuragak, opor lekuak denetarikoak baitira gazteen artean. Hala eta guztiz ere, memoria apur bat egin ostein gehien errepikatzen diren norakoak jakinarazi dizkigu. Hala, Euskal Herri mailan Nafarroa eta Ipar Euskal Herria dira helburu ohikoenak.



Gazte aterpetxeen gida.

### AEB, KORSIKA, KROAZIA...

Euskal Herritik kanpo, Amerike- tako Estatu Batuetara bidaia gehitu egin omen dira azkenaldian, eta Gezuragak dolarraren jaitsiera jotzen du arrazoi nagusi. Bestalde, kanpora egiten diren beste bidaien artean, Korsika, Kroazia, Portugal eta Santiago bidea aipatu ditu Gezuragak. Aniztasuna nagusi, beraz.

### GOMENDIO MERKEENA

Gezuragak diruz justu dabilen gazte bidaiaiari trena eta aterpetxeak uztartzen dituen bidaia gomendatzen dio. Aterpetxe sare handia dago mundu osoan eta, gainera, kontuak egin ostein aterpetxeak kanpina baino merkeagoa dela dio teknikariak.

Bestalde, goiz ibiliz gero hegaldi merke eta oso interesgarriak aurki daitezkeela adierazi du Gezuragak.

### PORTUGAL, INTERESGARRIENA

Gazte debagoiendarrarentzat bidaia interesgarriena moduan Portugal aukeratu du Gezuragak. Lau arrazoi eman ditu Por-

### ATERPE ETA IKASLE TXARTELEN ZERBITZUA GAZTE BULEGOETAN

## Mundu osorako erabilgarriak diren ikasle eta aterpetxe txartelak egiteko aukera

Debagoineneko gazte bulegoek leku ezberdinen inguruko informazio erabilgarria emateaz gain, gazteentzat oso garrantzitsuak diren beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte, hala nola ikasle edota aterpetxe txartelak. Mundu osorako erabilgarriak dira, erabat ofizialak, eta txartel horiek dena da abantaila. Are gehiago, hotelak eta gune turistiko erraldoiak gustuko ez dituen gaztearentzat, askotxo bidaiatzen badu, behintzat, ia ezinbestekoak dira. Oso erraza da txartel horiek lortzea: gazte bulegora hurbildu, eta han modu errazean egiten dituzte tramite guztiak.



Ikasle txartelak abantaila handiak eskaintzen dizkie ikasleei

GAZTE BULEGOA

## Oporraldiko gomendioak bidatzeko abian da 'Gomendatzen dizut! Merezi du' sarketa

*Gomendatzen dizut! Merezi du* sariketaren helburua gazteen oporretako gomendioak jasotzea da, gero beste bidaiai batzuentzat gomendio horiek erabilgarriak izan daitezzen. Antolatzaleek gomendio xumeak eskatzen dituzte: "Oporretatik bueltan lagun bati kontatuko zeniokeen hori", alegría.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Zerbitzuak lagundutako ekimena da eta Arrasateko Gazte Bulegoan du jatorria, bertako informazio zerbitzua izan baitzen sariketa horren aitzindaria. Egun Gipuzkoako hainbat herrian egiten da lehiaketa, hala nola Andoain, Azkoitia, Azpeitia, Donostia, Elgoibar, Irun, Hondarribia, Tolosa, Bergara eta Arrasaten. Gipuzkoa mailan oso erantzun ona badu ere, sortu zen herrian jasotako gomendioek behera egin dutela jakinarazi du Arrasateko Gazte Bulegoak.

Sariketan parte hartu ahal izateko baldintza nagusiak honakoak dira: Gipuzkoan bizi, ikasi edota lan egiten duen nerabe edo gaztea izatea, nahi beste gomendio irailaren 30a baino lehen entregatzea -[www.aizue.com](http://www.aizue.com) blogean, posta elektronikoz edo Gazte Bulegoetan utziz- eta gomendioaren zergatia era laburrean azaltzea. Bestalde, bi kategoria izango dira; bata, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeek osatua eta bestea, 18 eta 34 urte arteko gazteena. Lehen multzoko irabazleek 300 euroko saria jasoko dute eta bigarrenekoek, aldiz, 500 eurokoa.



Irudian, sariketaren berri ematen duen idazkia.

GAZTE BULEGOA

**Gomendatzen dizut** sariketa[www.aizue.com](http://www.aizue.com)

tugal aukeratzeko: kultura era-kargarria, eguraldi ona, herrialde atsegina dela eta gertu bezain urrutu dagoela. Hau da, ez da kilometro askoko bidaia, baina kultura erabat ezberdina da eta etxetik oso urrun egotearen sentzioa eman ei du. Bestalde, oporraldi lasaiak nahi dituena-rentzat, Korsika gomendatzen du gazte bulegoko teknikariak.

### MUNDU OSOKO BIDAIAK

Gezuragak, gainera, azkenaldian indartzen ari den fenomeno baten berri eman nahi izan du. Gezuragak dioenez, gazte arrasatearrek asko bidaiatzen dute, baina horretaz gain, "gazte arrasatearrok oso bidaia indartsuak egiten ari dira eta gero eta gehiago dira era hone-tako bidaiaiak egitera animatzen direnak".

Oporretarako planik ez due-narentzat uztaillean oraindik zabalik izango dira gazte bulegoak; aitzakiarik ez, beraz, herria zaintzen geratzeko.

# San Pedroak Eskoriatzan

## Egubakoitza, 27

- > **19:00** Eusko Labeldun txahal pintxoan dastatzea.
- > **23:00** Abbey Road taldearen kontzertua, herriko plazan. The Beatles taldearen imitatzaileak.

## Zapatua, 28

- > **11:00** Umeendako (4-12 urte) margo lehiaketa, Herriko plazan.
- > **13:00** Jaiak hasteko festa kanpaiak eta txupinazoa, Herriko plazan.
- > **Ondoren**, Musika Eskolako bandaren eta buruhaundi eta txistularien kalejira.
- > **13:45** Margo lehiaketaren sari banaketa, Herriko plazan.
- > **17:00** V. Kontzejupe pilotu txapelketa.
- > **18:30** Los Estranboticos taldearen *Kataplum* ikuskizun komikoa, Herriko plazan .
- > **19:00** Jaia Gaztelekuau 12-16 urte bitartekoendako.
- > **19:00** Jokoak.
- > **20:00** Kontzertua.
- > **21:30** Afaria.
- > **22:30-00:00** Musika festa
- > **19:30** H. Eslavaren *Salve-a* lau ahots mistotan Parrokiako abesbatzaren eskutik, San Pedro elizan.
- > **20:00** Lisker taldearekin dantzaldia, Herriko plazan.
- > **22:30** Nagusien danborrada.
- > **Ondoren**, Dantzaldia Lisker taldearekin, Herriko plazan.

## Domeka, 29

- > **09:00** Eskoriatzako txistulari taldearekin kalejira.
- > **11:40** Elizbira.
- > **11:55** Txistulariekin batera Udal ordezkarriak San Pedro elizara joango dira.
- > **12:00** Meza nagusia, San Pedro elizan
- > **12:00** Irrati-kontrol bidezko auto erakustaldia, Rc Dos Pistones klubak antolatuta, Santa Marina plazan: 1/8 Rally Game (gasolina); 1/8 Rally Game (elektrikoak); Monster Truck.

> **13:15** Musika Eskolako Bandaren kontzertua, Herriko plazan.

> **18:30** Pilota partiduak, pilotalekuak. Larrade - Arizmendi / Ongay - Arruti Titin III-Laskurain / Xala - Barriola

> **18:30** Kale antzerkia. Hortzmuga taldearen *12K* antzezlana.

> **20:00** Animaliek jokoak umeendako (zezentxoak, pottokak...), Santa Marina plazan.

> **20:00** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin, plazan.

> **23:00** Suzko erroberak, Piroteknia Zaragozanarekin, kanposantutik.

> **23:15** Greziako Tesalonika Likio Ellinidon dantza taldearen emanaldia, Gorosarri plazan.

> **00:00** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, Herriko plazan.

## Astelehena, 30

> **09:00** Herriko txistulari taldearekin kalejira.

> **12:00** Txan Magoa, Gorosarri plazan.

## Autoak

MARTITZENA 1,  
13:00-14:00 / 17:00-21:00

### > Kart pista

Eguerdian eta arratsaldean kartean doan ibiltzeko aukera izango dute eskoriatzarrek Santa Marina plazan ipiniko duten pistan. Auto txiki horiek gidatzeko adin muga hamaiaka urtetik zazpi urtera jaitsi dute aurten; hortaz, iaz baino jende gehiago espero dute antolatzaleek. Plazaren luze zabalean ipiniko dute pista ahalik eta gehien handituz zirkuitua. Gidariek kaskoa eraman beharko dute soinean eta mugimendu guztiak begirale batek zainduko ditu.



> **12:00** Herriko hildakoen aldeko meza.

> **13:00** Nafarroako Voces Navarras taldea, plazan.

> **16:30** XVII. Mus txapelketa, Gernika plazan. Izena ematea: 12 euro. Sariak:

1. Jasotako diruaren %50 garaikurrak eta txapelak.
2. Jasotako diruaren %25 eta garaikurrak.
- 3.-Jasotako diruaren %15 eta garaikurrak.
- 4.-Jasotako diruaren %10.

> **18:30** Haurren danborrada, herriko kaleetan barrena.

> **20:00** Samu Crew break dance taldea eta Aritz Sound Systems disko jartzalearen ikuskizuna eta tailerra, Santa Marina plazan.

> **23:00** Golden Apple Quartet. Los *Golden en serio* ikuskizuna. Gorosarri plazan.

> **24:00** Rock abesti ezagunen bertsioak herriko taldeen eskutik, Herriko plazan.

## Martitzena, 1

> **10:30** Eskoriatzako txistularien kalejira.

> **12:30** Talogileak eta sagardo kupelak, Herriko plazan.

> **13:00-14:00** Kars pista (7 urtetik aurrerakoendako), Santa Marina plazan.

> **13:00** Musika Eskolako dantza taldeen ikuskizuna, Herriko plazan.

> **13:30** Trikitilari Eskolako ikasleekin kalejira, herriko kaleetan barrena.

> **14:30** Herri bazkaria, Gorosarri plazan.

> **Bazkalostean**, Bentazaharreko mutiko alaiak kantu boskotearren emanaldia. Eskusoinua, biolina, gitarra, dultzaina, txirula, aho-soinua eta perkusioa izango dituzte lagun.

> **18:00** II. San Pedroetako Kantu Txapelketa, Herriko plazan. Parte hartu ahal izango da koadrilan edo banaka. Saria: 300 euro.

> **17:00-21:00** Kars pista, (7 urtetik aurrerakoendako), Santa Marina plazan

> **19:30** Euskal preso eta errefiguratu aldeko kalejira .

> **20:00** Dantzaldia Imuntzo eta Belokirekin, Herriko plazan.

> **22:00** Dantzaldia, plazan.

> **00:00** Jaiak bukatzeko bandera jaitsiera.

> **Ondoren**, *Mascleta*, Santa Marina plazan.

## Musika



EGUBAKOITZA 27, 23:00

### > Abbey Road, herriko plazan

Bartzelonako Abbey Road taldearen eskutik, The Beatles taldearen kantuak entzuteko aukera izango jaietan. Liverpooleko musikarien janzkera ez ezik, kantuak ere imitatzen dituzte eta ez nolanahi, gainera, jatorrizkoenatik ia berdin interpretatzeko gauza dira-eta. Adituen esanetan, benetako The Beatlesen munduko klon onenetarikoak dira.

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Antzuola.** Etxebizitza berria salgai garaje itxarrekin. Hiru egindar. Oso eguzkitsua. 12m<sup>2</sup>ko terrazarekin. Erdi jantzia eta prezio onean. 671 66 01 69.

**Aramaio.** Etxebizitza salgai Nardeaga kalean. 945 44 51 01

**Aretxabaleta.** 72 m<sup>2</sup>ko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarrria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 39

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitzasalga San Lorentzen. Berriztza eta guztiz jantzia. Bizi zera sartzeko moduan. 943 53 22 19

**Ofici.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egonela. Garaje itxia eta ganbara. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55

**Ofici.** Apartamentu berria salgai herri erdi-erdian. Garaje guta sgu. Ordainketarako erraztasunak. 665 71 42 69

**Ofici.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Guztiz eraberrirria. 210.000 euro, negoziagarrria. 635 71 41 39.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Uribarri kalean. 635 72 27 81.

**LAN ESKAITZA****Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak****KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:**

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan jarduna.
- Aldi baterako kontratu, Gizarte Segurantzarekin.
- Lantalean lan egitea.
- Soldatu interesgarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Gidatzeko baimena edukitzea.

Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial ezagutzak izatea.
- Debagoienean edo inguruan bizi ztea eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali uztailak 10a baino lehen ondorengo helbidera:  
[idazkaritza@goiena.com](mailto:idazkaritza@goiena.com)

**ETXE AGENTZIAK**

**INMOBILIARIA**  
Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubietza 80 m<sup>2</sup>. Berritua. Ganbarekin.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua. Gazeentzat.
- Ibargarai 74 m<sup>2</sup>. Ondo. Garaje aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m<sup>2</sup>. Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubietza 75 m<sup>2</sup>. Txokarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Gazteentzat.
- Azkarrente 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbarekin.
- Artekal 62 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Fraikozuri 102 m<sup>2</sup>. Bi balkoi.
- Ibargarai 106 m<sup>2</sup>. Duplexa.
- Zubiaurre 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorentzon etxe berriak

**Arrasate:**

- Erdiko kalea 113 m<sup>2</sup>. Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m<sup>2</sup>. Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**

- Buztinzu, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m<sup>2</sup>. Duplexak eta adosatuak.

**Ofici:**

- Kale Zaharra. 62 m<sup>2</sup>. Terrazarekin. Ortu.
- Lezesari. 75 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Erdi berritua.



**DEBA GARAIA**  
INMOBILIARIA  
Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**

- Artekale, 89 m<sup>2</sup>, ondo.
- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Artekale, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubietza 65 m<sup>2</sup>, ondo, horturekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, ondo.
- Aranerreka, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- San Antonabat, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m<sup>2</sup>, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealekuak, 132 m<sup>2</sup>, berritzen.
- Iriar Pasealekuak 89 m<sup>2</sup>, ia berria.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzen.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>, berritua. Oso ondo.
- Zubietza, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterkan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorentzon etxe berriak

**SORALUZE**

- Baltegieta, 83 m<sup>2</sup>, berria.

**ANTZUOLA**

- Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m<sup>2</sup>, erdi berritua.

**ELGETA**

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.

**IRAGARKI SAILKATUAK**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIKA ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

GOIENKARI ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizun.

**Ofici.** 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitza. Garaje izateko aukerarekin. Estreinatzear. 651 70 92 57

**Torrejueva.** Apartamentua errentan urbanizazio lasaien, ondartzatikur. Bilogela, terraza, solarium, garaje itxia eta elkarteko igerileku. Ekaina,

uztala eta abuztua. 400 euro asteko. Deitu 609 07 41 27 edo 649 88 79 17 telefonoetara.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Ifaki. Deitu 49 89 93 telefonora.

**Baserria** hartuko nuke errentan, berdin da egoera. 669 17 09 51.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan herri erdaldean. Igoz gurearekin eta altzariak gabe. Ekaina,

**105. ETXEAK OSATU**

**Aretxabaleta.** Mutila etxea osatu edo logela allokatzeko gertu. 662 08 22 03.

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira Eguzki dorrean etxebizitza osatzeko. 620 52 94 98.

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan. Ifaki. Deitu 608 49 89 93 zenbakira.

**Arrasaten** etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etan aurrera 680 17 38 37 zenbakira.

**Bergara.** Bolun logela ematen da errentan, sukalderako aukerarekin. Natalia. 670 85 68 68.

**Debagoina.** Etxebizitza partekatuko nuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

**Donostia.** Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko, unibertsitatik oso gertu. Deitu 651 70 85 13 edo 665 70 00 27 telefono zenbakietara.

**Debagoina.** Emakumea garbitasun lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. 660 64 16 09.

**Debagoina.** Emakumea garbitasun lanak egiteko prest, baita pertsona nagusiak zein haurrek zaintzeko ere. 650 70 98 76.

**Debagoina.** Emakumea gertu goizean eta arratsaldean umeak zaintzeko. 696 84 19 51.

**Debagoina.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 676 87 64 08.

**Debagoina.** Gizonzko gertu garbitasun lanak egiteko prest, baita pertsona nagusiak zein haurrek zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. Jose. 680 75 14 88.

**Debagoina.** Ieskak dituen emakumea esperientziaduna pertsona nagusi edo gaixoak zaintzeko edo etxeko garbitak egiteko gertu. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Emakume** euskalduna astean hiri egunez lan egiteko gertu (biedo hiru orduz). Abuztua barne. Rosi. 943 77 16 01.

**3/ LOKALAK****203. ERRENTAN HARTU**

**Lokala** hartuko nuke errentan. Gehienetan 350-400 euro. 669 17 09 51.

**4/ LANA****401. ESKAITZAK**

**Aramaio.** Emakumea euskalduna behar da ordut batzuetan umeak zaintzeko. 685 73 58 55.

**ARRASATE**

**Sukaldari laguntzailea behar da.**  
**Autoa beharrezkoa**  
**665 71 65 57**

**LAN ESKAITZA****TXANTXIKU IKASTOLA****EUSKAL FILOLOGIA LIZENTZIATUA behar du.****Curriculumak jasotzeko epea: uztailaren 7a.****Helbidea: San Juan, 1 20560 - ONATI****Posta-e: txantxiku@ikastola.net**

Jar ezazu hemen zure publizitatea  
943 25 05 05 publi@goiiena.com

**Ofici.** Irakasle eta lehen mai-lako Psikologoa ikasketak dituen neska uztalean lanerako prest. 651 70 85 13.

**Mahai obalatua** salgai. 136x92 cm, luzgarriarekin. Asier. 617 17 15 88.

**Phillips HD Ready 37"-ko telebista** salgai. TDT-rekin. 1.300 euro. 650 80 80 39

**Ordenagailua** salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13

**Sarrerak.** The Police taldeak uztailaren 4an Bilbon emango denean kontzertu bariko berritzaileko. 660 44 77 70

**Snowboard** botak (Burton Hail, 10 zenbakia, egoera onean) eta fijazioak (Technine, gama alta, erabiliz barik) salgal. Dena batean 150 euro eta banatuta, 80 euro bakoitzak. 680 44 91 51

**Solariuma** salgai. Lanpara berriezin. Prezioa astosteko. 678 61 50 40

**Taladroa** salgai, mahaikoa. Egoera onean dago. 400 euro, negoziagari. 679 10 95 23

**Terrazarako zortzi mahai**, 42 aulkietan bi eguzkitako handi

## hildakoak

- **Maria Pilar Sagasta Etxaniz.** Oñatin, ekainaren 18an. 84 urte.
- **Ana Maria Diez Urmeneta.** Bergaran, ekainaren 20an. 68 urte.
- **Teresa Larraza Urmeneta.** Antzuolan, ekainaren 20an. 71 urte.
- **Felix Pablo Burrieza.** Arrasaten, ekainaren 20an. 76 urte.
- **Maria Angeles Murua Zabaleta.** Oñatin, ekainaren 21ean. 82 urte.
- **Beatrix Etxebarria Altuna.** Arrasaten, ekainaren 22an. 94 urte.
- **Manuel Uribarri Salas.** Oñatin, ekainaren 23an. 81 urte.
- **Concepcion Olalde Barrena.** Oñatin, ekainaren 24an. 86 urte.
- **Antonio Sanchez Gallego.** Arrasaten, ekainaren 24an. 69 urte.
- **Rufina Herrera Ruiz.** Bergaran, ekainaren 25ean. 84 urte.



**Aitor Arana** arrasaterra eta **June Urtzelai** oñatiarra bihar ezkonduko dira Aramaion, Untzillako San Pedro elizan. Bazkaria Zuma-rragako Etxeberri jatetxean izango dute. Bidaian AEBetara joango dira. Zorionak, familiakoen eta lagunen partetik!



**Gotzone** bergararra eta **Mikel** legazpiarra, bihar, zapatua, ezkonduko dira Arantzazun. Ezkontza eguna aprobetxatu eta ondo ibili ezkon-bidaian! Zorionak eta muxu handi bana, koadrilako-en partetik!

### 1. URTEURRENA

#### Consuelo Garcia Oñate

Lehen urteurreneko meza domekan,  
ekainaren 29an, 19:00etan  
Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### 8. URTEURRENA

#### Fernando Santamaria Franco

2000ko ekainaren 26an hil zen, 57 urte zituela.

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.*

*Maite zaitugu.*



Emaztea, seme-alabak eta senide guztia.  
Bergaran, 2008ko ekainaren 27an.

### OROIGARRIA

#### Ana Maria Diez Urmeneta

Jesus Kalboetxeagaren alarguna

Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 20an, 68 urte zituela



*Amama, inoiz ez zaitugu ahaztuko.*

Paule, Malen eta June.  
Bergaran, 2008ko ekainaren 27an.

### 2. URTEURRENA

#### Pedro Mari Iturbe Arenaza

Bigarren urteurreneko meza zapatuan,  
ekainaren 28an, 19:30ean  
Aretxabaletako Jasokunde Amaren parrokiian.

*Joan zinen gu hemen utzita,  
baaina, jakin ezazu  
inoiz ez zaitugula ahaztuko*

Haren emaztea: Itziar; seme-alabak: Iraide eta Angel,  
eta Aritz eta Nerea; bilobak: Lore, Maren eta Kepa.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### 3. URTEURRENA

#### Gregorio Garay Txintxurreta

Hirugarren urteurreneko meza  
domekan,  
ekainaren 29an, 12:30ean  
Arrasateko Santa Teresa elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### 1. URTEURRENA

#### Arantxa Oteo Askasibar

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren  
29an, 12:00etan Bergarako Santa Marina elizan.

*Bihotzean daukagu zure oroitzenapena,  
aurrera egiteko behar degun kemenet.  
Zure borondate eta maitasunak  
bizirik diraute gure bihotzian  
berriz ere elkar besarkatzeko itxaropenaz.*



Zure familia  
Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

#### Juanita Kortabarria Gabilondo

Antzuolan hil zen 2008ko ekainaren 25an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurralde  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2008ko ekainaren 27an.

## ESKELAK

GOIENKARIA eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritzat batera, eguztuen eguerdia baino lehen:

**Arrasate** Goiena: Otalora Iantzadiuna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.  
**Ofici** Biklo publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramao** Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22  
**Elgeta** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: **100 euro**.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIA, bietan, argitaratuz gero, **120 euro**.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle (CIES).**



### ESKER ONA

#### Ana Maria Diez Urmeneta

Jesus Kalboetxeagaren alarguna

Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 20an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurralde bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko ekainaren 27an.

## bila-bila 7



## sudokua

		8		4	2		6
7			5	1			
8			4		5		2
5	9					8	3
6		3		8			1
			7	6			4
3		2	5		9		

## hitz gezidunak

	* Irudiko hiriburua	Modua	Toka, zuen
	Jatorri	Koipeak	Egoera
	Emakume izena		
	Arakatua		
Poliki	1101	N birritan	Pl., suari darionra
Oin-ukaldiak	Euskal fonema	Gizon izena	
Behien umeak			▼
Musika nota	Herri jokoak	Bokala	
	Ez eme	Jainko egipsoarra	
Gizon izena		Bizkaieraz, iratzea	
Eromenak		Bokala	

GOIENKARIA


jeroglifikoak: Keten.

1	3	6	2	5	4	9	7	8
2	8	9	1	7	6	5	3	4
4	7	5	8	3	9	2	1	6
6	2	7	3	9	8	4	5	1
5	9	4	7	2	1	6	8	3
8	1	3	4	6	5	7	9	2
9	4	1	6	8	7	3	2	5
7	6	2	5	1	3	8	4	9
3	5	8	9	4	2	1	6	7

Z	O	R	A	M	E	N	A	K
R	A	U	L	I	R	A		
S	I	T	O	K	A	E		
T	X	A	H	A	L	A	K	
O	S	T	I	K	O	N	N	
A	M	C	I	N	N			
E	T	O	R	K	I			
S	E	E	Z					

N	I	O	T	L	I	M	A	H	R
I	S	A	E	H	E	D	I	A	
N	N	G	R	K	O	E	M	I	
R	O	S	B	E	R	G	U	K	
A	L	E	A	F	B	A	B	K	
L	A	N	O	Z	A	E	L	O	
M	Z	A	E	E	B	A	D	N	
I	L	I	T	U	S	E	G	E	
A	T	Z	A	E	H	U	E	N	

## bono fotoa



**Gure bailarako herri batean bada legenda bat herensugeei buruz?  
Nola du izena herri horrek?**

Argazkia eta galdera > Jose Félix Diaz de Tuesta

**BM**  
supermercados

**1FA**  
grupu

**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIK asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....  
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**BMn beti  
eskaintzarik onenak!**

**AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA**  
Bergarako JULIO ELKOROrendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderen erantzun zuzena: Simon Arrieta.

# UDAN be bai!

arrasateko gazte bulegoa eta sexologia zerbitzua

*Uztailien kalien hobeto*

## Uztaila 2008

**Uztailak Ekintzak**

3	Graffitiak. Esan / DJ. Kirrin	17:30-19:30	Garibai Etxearen kanpoaldean
7,8,9	Bulegoak kanpora	17:00-20:00	Garibai Etxearen kanpoaldean
8	Ain_1.	19:00	Garibai Etxearen kanpoaldean
10	Bidaiatzeko aholkuak	17:00-20:00	Gazte Bulegoan
17	Dantza. Maite Albes	19:00	Garibai Etxearen kanpoaldean
24	Ipuin kontaketa. Arrasateko neskak	19:00	Garibai Etxearen kanpoaldean

**Ordua Lekua**

**Sexología Zerbitzua**  
www.sexologiazertzua.com  
943 25 20 66

**ARRASATEKO UDALA**

# Aurtengoan ere, Tourreko tropela Kanariar irletara!

Lehiatu Frantziako Tourrean,  
sarean, euskaraz,  
eta sariekin...

**Izen ematea doan.**  
Izena emateko epea: uztailak 5, larunbata, 12:30ean

Zatoz [www.tropela.net](http://www.tropela.net) webgunera eta gozatu gehiago txirrindularitzaz eta Frantziako Tourraz. Aukera berriekin eta sari gehiagorekin gatoz lagunartean goza dezazun. Abian da Tropela!

[tropela.net](http://tropela.net)

Nerea Arizmendarrieta > Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria

# "Haurrekin, futbol partidu batean baino pazientzia handiagoa behar da"

Pazientzia da, Nerea Arizmendarrieta diarietaren esanetan, bere ber-

nahi bada "ezinbestean" eduki behar dena. Goizetan eskoleta-joaten da eta arratsaldeetan

lanera, umezaintzara; futbolean ere aritu izan da, baina lesio bat izan eta gero, "erlaxatzeko modu

onena igeriketa" dela adierazi digu. San Juanetan "parranda bai, baina gutxi" egin du.

JASONE ZABALA > ARRASATE

Nerea Arizmendarrieta 21 urteko arrasatearra da; umeekin lan egitea asko gustatzen zaio. Goi mailako Haur Hezkuntzako ikasketak amaituta, datorren urtean Haur Hezkuntzako irakasle ikasketen azken kurtsoa egingo du Eskoriaitzan.

**Beti gustatu izan zaizu haurrekin lan egitea?**

Bai, txikitatik gustatu izan zaizkit haurrak. Lehengusuetatik ni naiz nagusienetako, eta agian horrek eragina izan du. Hasieran, udalekuetara joaten nintzen haurrekin, eta ondoren Txatxilipurdin begirale ibili nintzen. Hasieratik argi neukan haurrei zuzendutako ikasketak egingo nituela, eta hala izan da. Lehenengo, goi mailako Haur Hezkuntzako ikasketak egin nituen eta orain, Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak egiten ari naiz Eskoriatzan; amaitzeko urte bat falta zait.

**Askok esaten dute umeak bi minuturako bai, baina gero nekagarriak direla. Ados zaudet horrekin?**

Bueno, haurrekin egoteko pazientzia handia behar da eta gustatu egin behar zaizkizu. Ni oso gustura egoten naiz haikein, asko betetzen naute-eta.

**Hortaz, eguna nahiko okupatua izaten duzu: goizean esko-lak eta arratsaldean lana ume-zaintzan. Ez da estresagarria?**

Egun oso okupatua izaten dut. Ikasturte amaiera arte nahiko ondo moldatu naiz, baina ikasturte bukaeran lanak, azterketak... direla eta nahiko larri ibili naiz. Eskolak bakarrik izango banitu, baina, aspertu egingo nintzateke. Egia esan, eguna okupatua izatea beharrezkoa da niretzat.

**Erlaxatzeko futbola baino hoberik ez da?**

Egia esan, niri orain futbolak baino gehiago igeri egiteak erlaxatzten nau. Belauneko lesio bat izan nuen eta ordutik hona igerilekura joan izan naiz igeri egitera; asko gustatzen zait.

**Igeri egiteak ere erlaxatu egiten zaitu?**

Hasieran, goizetan eskolara joan aurrelik joaten nintzen igerilekura eta eguna beste indar eta gogo batekin hasten nuen. Gero, lanetik irteten nintzenean joaten nintzen igeri egitera. Azkenal-



JASONE ZABALA

## PERTSONALIA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria naiz eta Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak amaitzen; datorren urtean hirugarren kurtsoa egingo dut Eskoriatzan. **Zaletatsunak:** Lagunekin eta mutil-lagunarekin

irtetea eta herritik buelta bat ematea. **Gorrotatzen duzu zer edo zer:** Gazta. **Gomendatzeko moduko film bat:** *Océanos de fuego*. **Liburu bat:** *Déjame que te cuente*. **Musikari bat:** Loquillo. **Arrasateko txokorik politena?:** Monterron eta Santa Barbara.

dian, baina, gutxi joan naiz, lanpeturik ibili naizelako.

**Musikazalea ere bazara. Jotzen duzu instrumenturen bat?**

Gustatzen zait musika, trikitia jotzen dut, baina denbora laburra daukadanez, hori ere alde batera utzia dut; ez guztiz, baina ez dut lehen bezala jotzen.

**Udako oporretan norabait joateko asmorik badaukazu?**

Egia esan, bidaiatzea ez dut oso gustuko. Oraindik ez dut ezer erabaki, baina eguzki pixka bat hartzera Cadiz aldera joan gura nuke.

**Atzo amaitu ziren San Juan jaiak. Parranda handia egin duzu?**

Zerbait beti izaten da. Zapaturuan hasi ginen parranda apurbatekin, eta gero astelehenean jarraitu genuen, San Juan bezperan. Gainontzeko egunetan nahiko lasai ibili naiz; irten bai, baina parranda handirik egin gabe. Gainera, ez da jende askorik ibili aurtengo San Juan jaietan, eta hori jai giroan nabari egiten da; gero eta jende gehiago kanpora joaten da, eta jai giroa pixka bat itzali da azken urteetan.

**Non behar da pazientzia handiagoa: haurtzaindegian ala futbol partidu baten?**

Haurtzaindegia baten dudarik gabe. Haurrekin pazientzia handia behar da; haur txikiak dira eta askotan, eurek esaten dutena egin nahi dute beti; baina haur horien gurasoekin ere izan behar da pazientzia. Haurtzaindegian jende asko ari gara lanean, eta denok izan behar dugu pazientzia elkarren artean, bai guraso, bai lankide eta baita haurrekin ere.

**Askotan, helduok ume txikien moduan portatzen garela diote. Egia da hori?**

Bai, eta gainera, batzuetan okerrago. Denok ditugu momento txarrak eta nire kasuan hau ahalik eta ondoen eramatea ezinbestekoa eta beharrezko da. Horregatik diot pazientzia dela izan beharreko ezaugarri garantzitsuenetariko bat.

**Nola ikusten duzu etorkizunean zure burua?**

Hemendik urte batzuetara, umeekin eskolaren batean lanean eta familia batekin.

The screenshot shows a website for 'merkatari.net' in Spanish. The top navigation bar includes links for 'Sarrera', 'Zerbitzuak', 'Materialak', 'Euskara Ikasi', 'Dirulaguntzak', and 'Ostalaritz'. A search bar is present with the placeholder 'hemen zaude: hasiera → euskara platerean → menuen bihurgailua'. Below the search bar, there's a section titled 'Menuen bihurgailua' with a list of food items and their Euskaran equivalents. A sidebar on the left lists categories like 'Gaztelania-euskara hiztegia', 'Menuen bihurgailua', 'Jatetxeak/Tabernak', 'Gastronomiaren entziklopedia txikia', 'Literatura', and 'Errezetak'. At the bottom, there are links for 'Berriz hasi', 'Gunearen Mapa', 'Irissarrasuna', and 'Kontaktu'. Logos for 'euskalherri.eus' and 'EUSKAL HERRIA' are visible at the bottom.

Ostalaritzan euskararen presentzia areagotu nahi du egitasmo horrek.

## teknologia berriak

> GPS GAILUAK  
**Mapak denbora errealean kargatzen dituen DeLorme Earthmate PN-40 tamainu txikiko GPSa**

DeLorme enpresak GPS gailu berria aurkeztu du, DeLorme Earthmate PN-40 modeloa. Tamainu txikia eta distira handia duen pantaila dira nabarmen egiten duten ezaugarietako batzuk. Gainera, nukleo bikoitzeko prozesagailuari esker, pantaila denbora errealean eguneratzen da. Mapak ordenagailutik kargatzent dira, USB 2.0 atakatik (portutik).

GPSaz gain, iparroratz elektronikoa, barometroa eta altimetroa ditu.

> TXARTEL GRAFIKOAK  
**OGD1, software librearekin bateragarritasuna lortzeko kode irekia duen txartel grafikoa**

2004 urte amaieran *The Open Graphics Project* –diseinugile eta garatzalie taldea– txartel grafikoak software librearen munduan sartzen ahalegindu zen. Hardware eta programazioaren alorreko xehetasun guztiak irekia izatea nahi zuten. Hasiera batean lortu ezinezko ametsa zirudien, baina ordutik ona lau urta pasa dira eta han guzti horrek bere fruituak eman ditu.

Dagoeneko eskuragarri dago 1500 dollarretan.

> ARGAZKILARAITZA  
**Canon EOS 1000D, erabiltzaile aurreratuentzako 10 megapixeletako Live view pataila duen kamera**

Canon ekoizle japoniarak EOS 1000D argazki kamera berria aurkeztu du. Argazki kamera berria argazkilariaritzar reflex digitalera salto egin nahi duten erabiltaile aurreratuentzako da.

Argazki kamerak 10.1 megapixeletako sentsorea, auto garbitze sistema eta zazpi fokatze puntu ditu. 2,5 hazbeteeko pantaila du *Live View* sistemarekin. Segunduko hiru argazki ateratzeko gai da.

Uztailean merkaturatuko dute 655 eurotan EF-S 18-55 IS objektiboarekin, gorputza bakarri 555 eurotan.

Argazki kamera tamainua txikikoa eta pisu arinekoa (450 gramu) da.

EUSKARA > MENUAK EUSKARATU

# Jatetxeetako menuak euskarara itzultzeko webgunea abian da

Mila berba baino gehiago batzen ditu 'www.merkatari.net' webguneak; horri esker, jatetxeetako jabeek minutu gutxitan euskaratu ahal izango dute menua

NEREA MENOR > BERGARA  
Ostatu eta jatetxeetako menu eta karten euskaratzea errazteko asmoarekin, Digitalitatea enpresaren eskuak Donostiarra Udal Patronatuak itzultziale bat jarri du Interneten, [www.merkatari.net](http://www.merkatari.net) helbidean: "Tresna hori ez da itzultziale automatikoa bat. Menu eta jaki aukera ugaria euskarara bihurtzen duen tresna

da", diote. 1.057 berba eta haien eratorriak biltzen ditu eta, egi-leek nahiko mugatuta dagoela dioten arren, bultzatzaileek sistema bikaina dela uste dute egunen eguneko arazoak konpontzeko. Ostalaritzan euskararen presentzia areagotu eta gastronomiari lotutako terminoak normalizatzeko nahiarekin sortu dute tresna hori. Bihurgailua hobetzeko asmoa dago, eta gomendioak bidaltzeko gorbita egiten dute bultzatzaileek.

Jatetxeetako jabeek eguneko menua euskaratu ahal izango dute minutu gutxi batzuetan. Interneteko webgunean jakien izenak idatzi eta sistemak bere-hala euskaratuko ditu. Nolanahi ere, tresnak proposatutako euskaraz dakien norbaitek berrikustea gomendatzen dute bultzatzaileek. Euskaraz ez dakienak ere erabil lezake itzultzialea; hala

ere, hizkuntza menderatzen dute-nei dago zuzendua bereziki. Izan ere, zalantzak sor daitezke hitz zehatz batzuekin. Izen propioekin arreta berezia edukitzeko gomendioa egin dute egileek. Adibidez, *babarrunas de Tolosa* idatziz gero, sistemak ez du onartuko; *alubia de Tolosa* jarri beharko da itzultzialean.

### PAUSOZ PAUSO

Itzultzialea [www.merkatari.net](http://www.merkatari.net) webgunean erabil daiteke. Ostalaritzan sartu eta, bertan, menuen bihurgailua aukeratu. Agertzen den lauki zurian testua sartu eta *euskaratu* botoari jo. Tresnak eskaintzen duena hobeto ulertzeko, egileek hainbat adibide sartu dituzte; iradokizunak egiteko aukera ere badago bertan. Azkenik, jasotako emaitzak ordenagailura jaitsi daitezke *rtf* formatuan.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko-blog.komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog.komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn  
/aistui  
/arantxa  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz-  
aseguruak  
/BZ-sistemas  
/bolusukaldeak  
/denetik

/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/ezugzigraf  
/ekilore  
/elkin  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/gallastegi  
/ganesh  
/garaia  
/gertu  
/gorkataxi

/gorla  
/gurea  
/gutzizeder  
/hamakataberna  
/itxaseder  
/irudisport  
/ixaun  
/izeder  
/jcracing  
/lamaino-etebeberri  
/lorelan  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi

/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiópticas  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/optico  
/otzeta  
/pando  
/perfipar  
/puerta-ingles  
/richimaier  
/tabernaberri

/udalatx  
/udalaitz  
/erdeki  
/ugar tearotza  
/urbeta  
/urkia  
/vitoria  
/zaindusz  
/ziripot

### Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejateak.com](http://www.baster-aldejateak.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.lillura.com](http://www.lillura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)  
[www.biark.net](http://www.biark.net)



**berriak**

> 'ERREPORTAJEA'  
**Elorregiko Gurutze Gorriak 25 urte bete ditu**

25 urte bete ditu Elorregiko Gurutze Gorriak. Hori horrela, datorren astelarenko erreportaje horren gaineko izango da. Julen Iriondok Elorregiko Gurutze Gorriaren funtzionamendua eta 25 urte hauetako lana jasoko du erreportajearen. Horretarako, bertan lan egin duten voluntarioekin eta Gurutze gorriaren sortzaile Mikel Garagorriarekin egongo da, besteak beste.

> 'HARMAILATIK'  
**Elgetako lau t'erdiko txapelketa, 'Harmailatik' saioan**

Asteburuan jokatuko da Elgetan lau t'erdiko pilota txapelketa. *Harmailatik* saioak txapelketan gertatutakoak jaso ditu, astelarennean zuei eskaizteko.

Bestetik, Oñati Torre-azulo krosa ere asteburuan egingo da, eta hor ere egongo dira Goiena Telebistako kamerak, bertatik bertara krosoan gertatzen direnen berri izan dezazuen. Hori guztia astelenean *Harmailatik-en*.

> ARRASATE IRRATIA  
**Astelehenetik aurrera, udako irratsaioak irratian**

San Juan jaien ostean, Arrasate Irratia jai girotik irten eta uda giroan murgilduko da. Horrek esan gura du, besteak beste, azken urteotako oihura onei eutsi eta aurten ere udako sasoian Donostiarriko Aquariuma bisitatuko dutela sarri baino gehiago irratiko lankideek. Horrez gainera, kontuan hartuta jende gehienak abuztuan hartzen dituela udako oporrak, bidaien gaineran jardungo dute.

> ARRASATE IRRATIA  
**Aquariumerako sarrerak eta Esne Beltzaren musika**

Aquariuma bera bisitatzeaz gainera, datorren astetik aurrera Aquariumera bidaliko dituze, baita ere, irratiko entzuleak, hara joateko sarre-rak zozkatuko dituzte-eta aste-ro-astero. Horrek batera, Esne Beltza taldearen CDa ere zozkatuko dute. Parte hartzeko 943 25 05 05 telefonora deitu edo Internetez mezua bidal daiteke: *irratia@goiena.com* edo *goiena.net* atarian dagoen irratiko blogean sar daitezke zozketarako eskaerak.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

## Harria jasotzen onena, Miren Urkiola, 'Ilunpean'-en

Miren Urkiola  
bizkaitarra da gaurko  
'Ilunpean' saioko  
gonbidatua; harri  
jasotzaile trebea da

GOIENKARIA > ARRASATE

Miren Urkiola harri jasotzaile gaztea da gaurko *Ilunpean* saioko gonbidatua. Iker Barandiaranekin batera, haren bizitzako gorabeherak jakin ahalko dituzte Goiena Telebistan. Miren Urkiola emakumezko lehen harri jasotzaile ezaguna da Euskal Herrian. Gainera, harena da harri jasotzaile onenaren marka, 5 minutuan 100 kiloko harria bederatziz bider jasotzeko gai da eta. Bolibarko gaztea gaur egongo da GOITBko *Ilunpean* saioan eta berba egingo du bai harri jasotzaileen egunerokoaz eta baita beste alderdi batzuetaz ere.



Miren Urkiola 20 urte ditu Bolibarko harri jasotzaileak. IKER BARANDIARAN

'ESKORIATZAKO JAIAK' > EGUAZTENA, 21:47

## Eskoriatzako San Pedro jaiak, Goiena Telebistako 'Jaiak' saioan, eguaztenean

GOIENKARIA > ARRASATE

Joan den astean Arrasateko San Juan jaiak eskaini zituzten neurrian, datorren eguazteneko *Jaiak* saioa Eskoriatzako San Pedroen gaineko izango da. Hain zuen ere, Eskoriatzako San Pedroek bihar hasi eta

uztailaren 1era arte iraungo dute, eta Goiena Telebistak eguaztenean eskainiko du San Pedroen gaineko saio berezia; hain zuen ere, jaietako une politenak eta onenak ikusteko aukera izango duzue. GOITBko kamerek eta mikrofonoek

kaleko giroa, jendearen poza eta jaien egitarauaren barruan dauden hainbat ekintza jasoko dituzte; besteak beste, nagusien eta haurren danborradak, talogileak, uztailaren 1ean egingo den herri bazkaria eta San Marinian ipiniko duten kart pista. Azken hori da aurtengo Eskoriatzako San Pedro jaietako berrikuntzeta bat.

Horretarako, kazetariak, kamerak eta kolaboratzaileak kalean izango dira jaietako irauten duten bitartean. Ez galdu, beraz, Eskoriatzako jaietako saioak eskainiko dituenak.

**telebegi**

Iñaki Larrañaga

### Gehiegikeriak

**T**elebista eta telebistako albistegiak ikuskizun huts dira gero eta gehiago. Informazioa eta ikusgarritasuna behar dituzte albistegiek jarraituak izateko; eta iritzia eta analisia ere erakargarri dira. Batik bat telebista kate pribatueta. Horietan nabarmenagoa da gehiegikeria, puztu nahia. Eta ekuazioa bada, kate pribatua eta kirol saioa, orduan bihurtzen da ikusgarriagoa, puztuagoa, gehiegizkoagoa. Ikus-entzule gehienendako erakargarriagoa da estilo hori. Baino kirola gustuko ez dutenendako, benetako gurutze bidea.

Cuatro kateak, Manoloen gidaritzapean, Eurokoparekin eta *gorria*-rekin egiten diharduena edota Telecincok, Lobato gidari, Alonsorekin, diodanaren erakusle garbiak dira. Spainiar abertzetasun merkeena bultzatzen dute, audientziaren mesedetan. Hori telebistari dagokionez; izan ere, Spainiaren partidu batean Ser katetik entzuten direnak Madrileko taska kutreenean ere ez genitzuke entzungo. Neurria hartzea da kontua, ze ETBko esatarriak Giroko etapa bat bazkalostean entzuteak, erakarri-erakarri ez baitu egiten, logurea sortu bai, ordea.

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua.  
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordu AEKKo Komunikazio arduraduna; Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albisteak  
Eguraldiaren iragarpenea (Joxe Landa)  
Iñaki Araiz  
Elkarritzketak  
Lorategiaren geltokia  
Zozketak  
Zorion agurrrak  
(parte hartzea: 943 71 17 31)  
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarreran ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurrren tarte (errep.)

## GOITBko programazioa

**EGUBAKOITZA, 27**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta Iur. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Arrasateko San Juanak. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 28**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Ikusmira. 11:30 ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Berbaire. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Wasemak. 14:30 Arrasateko San Juanak. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Erreportaje. 19:30 Hitz bitan. 20:00 Ur eta Iur. 20:30 Ikusmira. 21:00 Euskaldunok hizketan. 21:30 Wasemak. 22:00 Erreportaje. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Klip. 00:00 Emisio amaiera.

**Domeka, 29**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Kantari. 12:00 Eltze beroa. 13:00 Hitz bitan. 13:30 ikusten. 14:00 Ur eta Iur. 14:30 Erreportaje. 15:00 Ikusmira. 15:30 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Klip. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta Iur. 20:30 Erreportaje tipi tlapa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Arrasateko San Juanak. 22:45 Erreportaje. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

**Astelehena, 30**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje-Ttipi Tlapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Wazemak. 16:15 ikusten. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitz bitan. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunako. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportaje. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

**Martitzena, 1**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klip. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Wazemak. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 2**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroia. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Wazemak. 16:15 Berriak. 17:15 Marrazki. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Euskal artzainak. 20:45 Berriak. 21:15 Hitz bitan. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Jaiak: Eskoriatzako jaiak. 22:15 Ur eta Iur. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 3**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Euskal artzainak. 14:15 Jaiak: Eskoriatzako jaiak. 14:45 Berriak. 15:15 ikusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ur eta Iur. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Muka muka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

# SAN PEDROAK 2008 GOITB-N

## SAIO BEREZIAK

Eguaztenean, uztailak 2an, 21:47ean  
Eguenean, uztailak 3an, 14:15ean  
Egubakoitzean, uztailak 4an, 18:15ean

Babeslea: Hemen Garbiketak



**Ikusteko!**



Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!


UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

## Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)

Har ezazu parte!



### Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtenoak edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 23an eta amaituko da irailaren 17an.
- Argazkiak aurkezta ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzezkan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte-hartzaleek gehienez 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazko beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren 14tik aurrera *Asteleheneko Goienkaria*.
- Urriaren 6ko ASTELEHENKO GOIENKARIA aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditzu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epai-maiak baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta biziutasuna, besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENKO GOIENKARIaren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.



### Sariak

1. saria: Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala  
Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.  
10 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarririk: Zuiko digital 14-42 mm  
eta 40-150 mm / Flash eta guzti. /  
2,5 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.



2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako,  
Arrasate Bidaia-ekin eskutik.  
3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz  
Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Babeslea:



Laguntzaileak:

**GURE AMETSIA**

JATETXEA

Arrasate Bidaiaik  
BIDATA-AGENTZIA ELKARTUA



OLYMPUS  
Your Vision, Our Future

**ASTELEHENKO  
Goienkaria**

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:  
**943 08 10 50**  
Asteleheneetik egubakoitzera  
09:00etatik 18:00etara

# Ekainak 27-Uztailak 3

**LEIRE KORTABARRIA**  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzateneko egurdi baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Aisialdia



ARRASATE

### > Grafitiak eta DJ baten emanaldia izango dira datorren egunean

Gazte Bulegoak eta Sexologia Zerbitzuak aisialdi programa antolatu dute, eta lehenengo emanaldia egunean, hilak 3, izango da, Biteri plazan. Esan-ek grafitiak egingo ditu eta DJ Kirrinek, musika ipini.

## Ospakizuna



BERGARA

### > San Martzialera erromesaldia egingo dute, eta datorren domekan, erromeria

San Martzial egunean, astelehenean, erromesak auzo horretara igoko dira, letania errezatzen. 07:30ean irteno dira Santa Marinatik. Han, meza entzungo dute. Datorren domekan, uztailak 6, San Martzialeko erromeria ospatuko dute.

## Ospakizuna



OÑATI

### > Bazkaria, antzerkia, kontzertuak... bihar, zapatua, IV. Gaztetxe Egunean

Triki-bertsopoteoa, herri bazkaria, jokoak, kale agerraldia eta kontzertuak –Mak, Sanlo Garage Brothers, Vomitori tributua eta The Witols– egongo dira. Gaur eta etzi ere ekintzak izango dira. Argazkian, iazko kontzertu bat.

hasi zuen bere ibilbidea, tech house eta techno Detroit emanaldiekin. Asturiasko hainbat klubetan jo ondoren –Oxigeno, Particular, El Club...–, Gasteizen erroto zen, eta hango hainbat klubetan –Cairo Stereoclub, Tapioca...– emanaldiak egiten hasi zen, azkenean Absolut-en finkatu eta hango erresidente bihurtu arte. Bere estiloa minimal, elektro, italo, tech, brokenbeats... estiloetan oinarritzen da. Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 04:00etan.

## Ospakizunak

OÑATI

### > Torreauzoko jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

San Pedroak ospatuko dituzte Torreauzon. Honako egitaraua prestatu dute: bihar, zapatua, etxafuego jaurtiketa (09:00), kalejira baserririk baserri (10:00), auzo txikiteoa (13:00), 24. Mus Txapelketa (16:00), Arnoren zezenen erakustaldia (17:00), umeendako txokolate-jana eta goxokiak (19:00) eta Gau-Alai taldeak girotutako erromeria (20:00; 23:00etan jarraituko du). Etzi, domeka, honako ekintzak egongo dira: XI. Torreauzoko Herri Krosa (10:30), sari banaketa (12:00), meza nagusia (12:30), luntxa herriko trikitilarri, bertsolari eta dantzariekin (13:00) eta auzotarrendako bazkaria (14:30).

Ekintza guztiak, bihar, zapatua, eta etzi, domeka.

OÑATI

### > Zubillagan jaiak izango dituzte aste bukaera osoan

Honako egitaraua gertatu dute: gaur, egubakoitza, txupinazoaren ondoren, futbolin txapelketa (19:00) eta rock kontzertua: Desprezio, Rombos negros, Clavo oxidado eta Banda de Pegaso (22:30); bihar, zapatua, umeendako jolasak (16:30), mus azkar txapelketa (17:00), bertsos afaria (21:00) eta dantzaldia (22:30); eta etzi, domeka, meza (11:00), luntxa eta erretiratuei omenaldia (12:00-14:00), zinta lasterketa (17:30), Ganbara Txikiren kontzertua (19:30) eta musika emanaldia frontoian (20:00).

Ekintzak egongo dira gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean.

## Musika

OÑATI

### > Oskorrik Oñatiko bandarekin joko du uztailaren 18an

Oskorrik eta Oñatiko musika bandak batera joko dute uztailaren 18an, Banda Band biraren barruan. Kontzerturako sarrerak salgai daude kultura etxeen, 10 eurotan; egunean bertan, txarteldegian, 12 euro kostatuko dira.

Kontzertua kirolegian izango da, 22:30ean.

ARRASATE

### > Arrasate Musikaleko Big Bandak kontzertua egingo du

Arrasate Musikaleko Big Bandak emanaldia egingo du. Euren ohiko estiloak ukituko dituzte: jazzza, bossa, funk, rocka...

Gaur, egubakoitza, Monterron parkean, 22:30ean.

BERGARA

### > Disko-jartzaleen emanaldiak egongo dira Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, DJ Paki (kpk) disco-jartzalearen emanaldia egongo da Ziripot tabernan, eta bihar, zapatua, I-Real Workhouse-rena.

Emanaldi biak 23:00etan izango dira.

BERGARA

### > Orkestra Sinfonikoak, San Martzialeko kontzertua

San Martzial eguna datorrean ospatzeko, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduta.

Honako piezak joko dituzte: *Tanhauser* martxa handia (R. Wagner), *Iphigenie in aulis* obertura (C.W. Gluck), *Valse triste* (J. Sibelius), *Elisabeth* musikala (Kunze-Levay) eta *The last of the Mohicans*-eko

soinu banda (Jones-Edelman; Alfredo Gonzalez Chirlaquek moldatuta).

Gaur, egubakoitza, San Pedro parrokan, 20:00etan.

BERGARA

### > Musika bandak kalejira eta kontzertua egingo ditu

Bergarako Udal Musika Bandak San Martzialeko emanaldiak egingo ditu etzi, domeka. Lehenengo, kalejira egingo du: San Martin plazan hasi eta Bidekurutzeta, San Pedro, Artekale eta Barrenkalekiko pasatu eta gero, San Martin plazan bukatuko dute.

Gero, kontzertua egingo du Espoloiko kioskoan, honako errepertorioarekin: *Lagartijilla* pasodoblea (J. Martín), *Algona* obertura (J. V. der Roost), *Raquel* vals erromantiko (M. Gonzalez Bastida), *San Martzial* euskal estanpak (M.

Gonzalez Bastida) eta *American beauties* (N. Iwai). Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduko ditu.

Etzi, domeka; kalejira 11:30ean hasiko da, eta kontzertua, 12:30ean, Espoloiko kioskoan.

ARRASATE

### > Enboskada, Malos Tiempos eta Hell Beer Boys taldeak

Hiru talderen kontzertua egongo da egubakoitzean. Enboskada talde arrasatearrak punk-rock doinuak joko ditzu; Beasaingo Hell Beer Boys taldea streetpunk musikarekin etorriko da, euren laugarren diskoa aurkezten; eta Donostia aldeko punk beteranoek osatutako Malos Tiempos taldeak ere joko du, izen bereko diskoa aurkezten. Santos Inocentes, Micky Kaos eta inguru horretako beste talde askotan ibiliak dira, eta

Gonzalez Bastida) eta *American beauties* (N. Iwai). Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduko ditu.

Etzi, domeka; kalejira 11:30ean hasiko da, eta kontzertua, 12:30ean, Espoloiko kioskoan.

ARRASATE

### > Gasteizko Sergio Absolut Djak emanaldia egingo du 3.60an

Xixonen jaio eta gaur egun Gasteizen bizi den Sergio Absolut diskos-jartzaleak emanaldia egingo du. 1996an

BERGARA

### > Bihotz Bakartien Klubak 'Katamalo' aurkeztuko du

Debagoienean egondako da Bihotz Bakartien Klub literatura taldea, poesia eta musika bateratzen. Oraingoan, Larrabetzuko Katamalo disko eta ikuskizun berria ekarriko dute. Gorka Urbizu (Berri Txarrak), Nerea Urbizu (Itzalak) eta Jon Piris (Ruper Ordorika) musikariak batu zaizkie, eta Gotzon Barandiaranen poemetan oinarritutako abestiak egin dituzte.

Gaur, egubakoitza, Espoloian, 18:00etan, Jardunek antolatuta.

## PROPOSAMENA



BERGARA

### > Unai Azkarateren collage lan ikusteko aukera

Unai Azkarate artista bergararrak egindako hainbat collage lan ikusteko aukera dago egunotan. Espoloiko Hamaika tabernan dago.

## Erakusketa

## ANTZUOLA

### > Sexu askapenaren inguruko erakusketa egongo da zabalik

Ekainaren 28ren, Sexu Askatasunaren Egunaren harira, *Borroka baten koloreak* delako erakusketa egongo da. Olaran etxeen. EHGAM elkartek egindako lanaren leku, 24 koadro ipiniko dituzte.

Bisita ordutegia: zapatuan eta domekan, 12:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era.

## ESKORIATZA

### > Jose Aranaren inguruko erakusketa inauguratuko dute

Jose Aranaren gaineko erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan. Erakusketaren gaineko liburuxkak ere banatuko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan, 19:00etan.

## OÑATI

### > Korpus prozesioko irudiak erakusketan ipini dituzte

Korpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek. Parrokian izango dira ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30. Bestalde, uztail eta abuztuan, turismo bulegoko bisita gidatuen barruan egongo da erakusketa.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

## Bestelakoak

### DONOSTIA

### > Euskal Herriko -tartean, ibarreko- motorzaleen batzarra

Debagoieneko motorzale batzuek dei egiten dute etzi Donostian egingo den Euskal Herriko motorzaleen batzarera joateko. Errepidean motorzaleak babesteko neurri hobeak eskatuko dituzte.

Honako ibilbidea egingo dute: Tolosa etorbidea, Concha, San Martin, Miracruz, Bidebieta, Antiguo eta Juan Ramon Arantzial motorzalea hil zen lekutik pasatuko dira gero.

Etzi, domeka, batuko dira Ibaetako aparkaleku, 10:00etan.

## OÑATI

### > Ekitaldi irekiak, Lege Soziologaren Erakundeak antolatuta

Lege Soziologiaren Nazioarteko Erakundeak antolatu dituen udako ikastaroen barruan, honako ekitaldi irekiak egingo dituzte: martxozenean, uztailak 1, Munduko Emakumeak delako jardunaldi irekia egongo da, kultura etxeen, 17:00etan; eguztenean, hilak 2, SOS Arrazakeriak berriketaldia bideratuko du, eta *El lobo de los cuentos* filma emango dute, hori ere kultura etxeen, 17:00etan; azkenik, eguztenean ere, Oñatz dantza taldeak emanaldia egingo du Unibertsitateko klaustroan, 19:30ean.

Argibideak, [www.ijsj.es](http://www.ijsj.es) webgunean.



## Margot y la boda

\*

Zuzendaria: Noah Baumbach.

Aktoreak: Nicole Kidman, Jennifer Jason Leigh, Zane Pais. AEB, 2007. 93 min. 13 urtetik gorakoendako.

Duela urte batzuk zinematan Noah Baumbachen *Una historia de Brooklyn* ikusteko aukera izan genuen. Horretan, bikote baten krisia kontatzen zen. Askotan, izaten den prozesua ez da batere erraza, eta euren arteko tirabirek semeengana ondorioak izaten dituzte. Filmak ondo islatzen zuen nolakoak izaten diren halako egoerak. *Margot y la boda*-rekin, familiako gatazkekin jarraitzen du. Kasu honetan, ezkontza bat izango da istorioaren abiapuntua. Jennifer Jason Leigh-ek egiten duen pertsonaiak ezkondu egin behar du, eta bere ahizpa –Nicole Kidman– haren etxera joango da ospakizuenan parte hartzeko. Bion arteko harremanak ez dira batere onak eta, elkartzen direnean, euren barneko sentimenduak kanpora aterako dituzte: mesfidantza, gorotoa, frustrazioa... Beste pertsonaia batzuk ere agertuko dira: bien bikotekideak, semeak, aldamenean bizi direnak... leku eta partaide izango dira sortzen den kaosean.

Istori horrekin, film interresgarria egin daiteke, baina ez da kasua. *Margot y la boda* film latza da: momentu guztietan gehiegikerian erortzen da; pertsonaia guztiak gatazka iraunkor baten bizi dira, eta zitalak dira. Gidoiak drama eta zentzugabeberria nahastu nahi ditu, originala izan nahi du, eta azkenean ikusten ditugun pertsonaiak eta egoerak benetan faltsuak iruditzen zaizkigu. Jokaera eta gertakizun arraro gehiegi daude. Lan konplexu baten edo egile-film baten aurrean egotearen sensazioa eduki daiteke, baina ez da horrela. Filma nahiko hutsa da, fikzioa faltsukeria bilakatzen da. Bost axola zagu pantailan ikusten duguna, ez dugu sinesten gertatzen dabilena. Istoriaok eta pertsonaietik itxura besterik ez dute. Filmaren iraupena 93 minutukoa besterik ez bada ere, azkenerako ikusleak benetan gogaitua bukatzen du.

Antonio Zabala

# Zinema

### ELGETA ESPALOA

(Emanaldi berezia)

Eguaztena: 21:30.

### EIBAR UNZAGA

The contract

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martxetena eta eguztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ GURIDI

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

17:00, 19:30, 22:00.

### El incidente

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

### 12

18:00, 21:00.

### Antes de que el diablo sepa que has muerto

17:30, 20:00, 22:30.

### La boda de mi novia

20:00.

### Sexo en Nueva York

17:00, 19:45, 22:30.

### El increíble Hulk

17:30, 20:00, 22:30.

### 3:19

17:30, 22:30.

### YELMO CINEPLEX GORBEIA

Eurokopa (España finalera iristen bada)

Domeka: 20:45.

### Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

12:15, 15:45, 17:00, 18:15,

19:30, 20:45, 22:00, 23:15,

00:30.

### El incidente

12:15, 16:00, 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

### La niebla

17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

### Speed racer

12:15.

### Rivales

12:15, 15:50, 18:00, 20:10,

22:20, 00:30.

### Algo pasa en Las Vegas

18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

### Rivales

España, 2008.

Zuzendaria: Fernando Colomo. Aktoreak:

Ernesto Alterio, Gonzalo de Castro, Santi Millán.

110 min. Denonkako.

Gaztetxoek osatutako bi futbol talde, Madrilgo Deportivo eta Bartelonako Atletikoa, Sevillan jokatuko den final handirako prestaketa dabilta. Betidanik arerioak dira bi talde horiek.

Sevillara bidaien, gaztetxoek gurasoekin, bikotekideek

edo familia batzuek besteariak dituzten hartu-emakan ikusiko ditugu hainbat egoera barregarriren bitartez.

Eskasa: \* Baleko: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

### El incidente

AEB-India, 2008. Zuzendaria: M.

Night Shyamalan. Aktoreak:

Zooey Deschanel, Mark Wahlberg.

91 min. 13 urtetik gorakoendako.

AEBetako hainbat lekutan, une

berean, jende bere buru hiltzen

hasten da. Zer dabil hori eragiten?

Elliot Moore irakasleandako, ihes

egitea da garrantzitsuena.

### Paso de ti

AEB, 2008. Zuzendaria: Nicholas

Stoller. Aktoreak: Jason Segel,

Kristen Bell, Mila Kunis.

110 min. 13 urtetik gorakoendako.

Peter Bretter musikari ezezagun bat

da, eta sei urte eman ditu nesk

lagunarekin, telebistako izar Sarah

Marshall-ekin, maiteninduta.

Halako bat, neskak utzi egiten du

Peter, eta, hora azahatzko asmoz,

Hawaira bidaiatzen du.

### Caos calmo

Italia-Erresuma Batua, 2008.

Zuzendaria: Antonello Grimaldi.

Aktoreak: Nanni Moretti, Valeria

Golino, Alessandro Gassman.

112 min. 13 urtetik gorakoendako.

Pietro Paladiniaren emaztea hil egin

da. Udko egun bat, Lara bat-

batean hil zen, baina Pietro ez zego-

en berarekin: hondartzan zegoen,

emakume ezezagun baten bizitzazalbatzen.

### 3:19

Espania-Mexiko, 2007.

Zuzendaria: Dany Saadia.

Aktoreak: Miguel Ángel Silvestre,

Barbara Goenaga, Félix Gómez.

105 min. 13 urtetik gorakoendako.

Emakume erakargarri ezagutzeko

pentsatutako joko original batek

kasualitateak -edo patuak- ere era-

gina izatea ekarriko du.

### El increíble Hulk

AEB, 2008. Zuzendaria: Louis

Leterrier. Aktoreak: Edward

Norton, Liv Tyler, Tim Roth.

114 min. Denonkako.

Bruce Banner zientzialaria *Hulk*

bihurtzen duten gamma izpien efek-

tua osatzeko modu baten bila dabil.

### Aritmética emocional

Kanada, 2007. Zuzendaria: Paolo

Barzman. Aktoreak: Susan

Sarandon, Gabriel Byrne.

100 min. 7 urtetik gorakoendako.

1945ean, Jakob Bronsik ana-ar

# Espaloian, Trukean bai!

**TRUKEAN** Aratusteetan hasi ziren  
Trukean bai! egitasmoarekin, Letizia  
printzesaren argazki batekin

**ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA**  
Blogean idatzi duten moduan, "trukearen helburua ez da txalat bat tokatzea. Gure helburua jendearekin harremana izatea, ondo pasatzea eta egunen baten truko denekin afaritxo bat egitea da. Denborak esango du!".

Aurtengo Aratusteetan hasi ziren, kasualitatez, Elgetako Espaloia kafe antzokian Trukean bai! egitasmoarekin. "Kiosko bezala apaindu genuen antzokia; halako batean, aldizkari batetik argazki bat hartu, eta argazkiagatik ea zer ematen zidaten galdeku nuen", gogoratu du Gorka Arizmendiarietta Espaloia Kafe Antzokikoak. Espainiako printzesaren Letiziaren argazkia zen.

**BLOGA SORTU DUTE GOIENAN**  
Letiziaren argazkiagatik erregeleta elektrikoa trukatu zuen Jon Markuerkiaga ondarrutarrak. Hala, dagoeneko hainbat truke egin dituzte. Gainera, Trukean bai! izenarekin bloga sortu dute Goiena.net-en ([goiena.net/blogak/truk](http://goiena.net/blogak/truk)). Han, trukerako dituz-

ten artikuluak ikusteko aukera dago. Baina azpimarratu dute ez dela trukerik egiten Internet bidez. "Trukea egin gura duenak Elgetako antzokira eterri behar du, hemen dagoen artikulua jaso eta trukean ekarri duena uzteria", dio Arizmendiarrietak.

**BALIO HANDIAGOKO ARTIKULUA**  
Norberak gura duenagatik egin dezake trukea: "Baina beti hartzen duzuna baino balio handiagoko artikulua ekarri behar da trukean", diote.

Gaur egun, bi artikulu daude trukean: Enrike Elkorok utzitako egurrezko pala -2006ko San Inazio jaietan irabazitakoa; eta *Berria* egunkariko bi hilabeterako harpidetza, sagardo botila eta *Berria*-ko kamiseta.

**ANTZERAKO ESPERIENTZIAK**  
Ingruan ez dute ezagutzen halakorik egiten duen inor, baina Markuerkiagak gogoratu du behin mutil batek klip bat etxe bategatik aldatu zuela. Elgetako asmoa afaria egitea izango da.

**ARAU** Arau nagusia da norberak hartzen duen artikulua baino balio handiago artikulua uztea

**ESPALOIAN** Goienan Trukean bai! bloga sortu dute, baina truke guztiak Elgetako Espaloia kafe antzokian egiten dira



TRUKEAN Arizmendiarrieta eta Markuerkiaga. Egitasmoaren hirugarren sortzailea falta da, Ivan Escribano.

ARANTZAZU EZKIBEL

## ahobero

"Espainolez  
heztek eskubidea  
da bermatu behar  
dena, kontuan  
hartu barik  
ama-hizkuntza"

Fernando Savater > Filosofoa

Hori da Fernando Savaterrek esan duena espinolaren aldeko manifestu batean. Baino, orain dela urte batzuk, 1996an hain zuzen, *Contra las patrias liburuan* kontrako ideiak idatzit zuen. Orain, espinola defendatzen du, heztek hizkuntza bakar bezala.

## iturri onetik

**Frantziskotarrek**  
**Jorge Oteiza**  
**omenduko dute**  
**irailean**

100 urte dira Jorge Oteiza jaio zela; hori dela-eta, Arantza zuko frantziskotarrek omenaldia egitea erabaki dute.

Irailaren 15ean ekitaldiaren aurkezpena egingo dute eta Arantza aldizkariaren zenbaki bereziaren aurkezpena ere bai. Irailaren 20an, Pedro Manterolak, Oteiza museoko zuzendaria, hitzaldia egingo du. Bestalde, herri bazkaria ere egingo dute frantziskotarrek.

## piperraутса

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperraутса](http://www.goiena.net/blogak/piperraутса)

### Ino udaletxera

**S**inadura eman nuen, baina gero ezin udalean agertu, lan-kontuek Donostian lotuta. Zilegi bekit orain pulpito hau erabiltzea, ekimenarekin bat natorrela adieratzeko.

Arrazoi ugari dugu boladan haserre ibiltzeko. Spainiar estatua bere aurpegirik beltzena ari zaigu erakusten euskaldunoi, eta gurekiko ia dena da debekua, kartzela eta ukazioa. Baino ni Inorenak bereziki asaldatu ninduen, indar erakustaldi gisa egin zutelako. Ino kargutik kendu behar zuten eta, bide normalak antzu agertu zirenean, ez zuten inongo begirune etikorik izan bide anormaletarra jotzeko. Inpunitatea dute, Espainiako iritzi publikoa mendean hartuta. Indarraren kontra, duintasuna gelditzen zaigu. Eta irmotasuna. Duintasun irmoz nahi dugu Ino Arrasaten, alkate.

## ai, ene!



**Bulegorako balio duten  
mahai tresnak**

Etxera jatera joateko astirik ez duzuneko egokiak dira; boligrafoari itsatsi eta koilara, labana eta sardexka izango dituzu.

[www.sarda.es](http://www.sarda.es)



**ARKAUZ**  
MUEBLES  
ARETXABAleta



**ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABAleta  
FAGOR  
banatzalea ofiziala

**GRUPO ARKAUZ**  
ARETXABAleta • ARRASATE  
1950-2008

Arkauz zure etxea da.

**ETXE MOBEL**  
ALTZARIK  
ARRASATE



**ARKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABAleta  
expert  
banatzalea ofiziala

